

GERNIKA-LUMO

2002. URTEA



LJK

Lehenengo Idazlan Koadernoan
DBH eta Batxilergoa

Argitaratzailea:

- Gernika-Lumoko hezkuntza Arloa.

Laguntzaileak:

- Allende Salazar Ikastetxea.
- Barrutia Eskualde Ikastetxea.
- Barrutialde Institutoa.
- Gernika-lomoko Institutoa.
- La Marced Ikastetxea.
- San Fidel Ikastola.
- Seber Altube Ikastola.

Portadaren egileak:

- Jose Ramón Castillo.
- Oscar Santa Maria.

Babesleak:

- Gernika-Lumoko Udaleko Hezkuntza Arloa.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskera Zuzendaritza).

Maketazioa eta Inprimaketa:

- GRAFICAS AMOREBIETA.

2002ko edizioa.

AGURRA

“Ikasleek ikasleentzat”

Herri baten geroa ume eta gazteengan dagoela esaten dogunean, sarritan entzun dogun zeozer esaten ari gara. Baina, ume eta gazte horreeen asmo, nahi eta fantasiak zelakoak diran jabetuz bihar-etzikoa gorputzen arduratzen bagara, gizartearen nondik norainokoa igerriko dogu.

Lehenengo idazlanen koaderno (L.I.K) Gernika-Lumoko ikastola eta ikastetxe ezberdinetan ikasturte bakotxean tajutu diran idazlanak plazaratzeko asmoagaz jaio da.

Gaiak, daikezuen lez, ugariak eta era askotakoak dira. Ziur nago hemen argitaratzen diran lanek irakurlego zabal bateri egingo deusola zirrara, hasi “idazleen” ikaskideengandik eta etxeko guraso eta ingurukoengandik jarraituta, haur, gazte eta helduak.

Datozen ikasturteetan bilduma osotuten jarraituko dogula-eta, zuen ipuinak/kontakizunak/sentimenduak paperean azaltzen jarraitu deizuen eskatu gura deusuet, zuen konplize garean irakurle guztion atseginerako.

Agurrari agur egiteko, aurtengoan egitasmo honetan parte hartu dozuen ikasleoi eskerrik beroenak, guztion gozamenerako egin dozuen lan bikain honegaitik eta modu berezian eskertu baita irakasleei, irakaskuntza eta euskerea uztartzeari ekiteko egiten daben esfortzuagaitik.

Zorionak eta eskerrik asko.

Kepa Butron
Hezkuntza Arloko Zinegotzia

AURKIBIDEA

LEXURI ELGUREN	DBH 4. MAILA	BIDAIA GORABEHERATSUA	5
AIORA AIZPURUA	DBH 3. MAILA	BIHOTZ URRATUA	8
JON REMENTERIA	BATX 2. MAILA	BIZITZA GOGORRA DA	10
GALDER URZAA	BATX 1. MAILA	ESKUAK BEGIRA	14
IBAN AUZOKOA	BATX 1. MAILA	HERIOTZAK ERAMAN ARTE	19
EIDER LAINA	BATX 2. MAILA	ITSASNESKA	23
EKAITZ IBARGUENGOITIA	DBH 2. MAILA	PISTITXO	27
IBAI LEJARRETA	DBH 1. MAILA	TXARRIBODA	29
EMMA ALBIZU	HHI-EPA	INOIZ ESANGO ES NOTZUTEN SENTIMENDUAK	33
<i>OIANE ZENDAGORTA GALARZA</i>	<i>HHI-EPA</i>	<i>PAULAREN IZARRA</i>	36
NAIARA ORDORIKA	DBH 4.MAILA	ADIMENAREN ALDE ILUNA	40
MIRIAM LLONA MORENO	DBH 3 MAILA	AMODIOA USTEKABEAN GALTZEN BAITA	46
AMAIA JAUREGIZAR	BATXILERGOA 1	AHAZTU EZIN	53
ISARNE MEABASTERRETXE	BATXILERGOA 1	ERANTZUNEN BILA	55
EUNATE JAUREGI BARAIZARRA	BATXILERGOA 1	ZERUKO AURPEGI BELTZARANA	60
HAIZEA CAMINOS IKAZURIAGA	BATXILERGOA 2	SUSTRAIAK HOZTEAN	62
MARIA ARAMBURU LANDA	BATXILERGOA 2	ODOLOSTERIK EZ	67
ALAZNE BUSTINZA TXERTUDI	BATXILERGOA 2	BIZIA	72
ALAZNE BUSTINZA TXERTUDI	BATXILERGOA 2	SARIA ESKURATU NUENEKOA	74
AMAIA CORTA	DBH 1.MAILA	ZER ARI DA GERTATZEN EGOITZAN?	79
SARA BOYRA	DBH 2.MAILA	HERIOTZAREN ITZALA	83
M.I BERASALUCE	DBH 3.MAILA	ZER OTE DA ITSU IZATEA	87
ELI URRITIA	DBH 4.MAILA	IRRATIKO ABESLARIA	90
LEIRE GANDARIAS ISPIZUA	DBH 1.MAILA	1993KO UDA	93
ARIANE LAZAGA	DBH 2.MAILA	ITSAS LABARREKO ETXEA	96
ARAITZ AZKARAI ITURBE	DBH 3.MAILA	AZKEN GAUA	99
NEREA BILBAO MONASTERIO	DBH 3.MAILA	MAITASUN IRAGANKORRA	105
LEIRE MEABE AGIRRE	DBH 1.MAILA	DENBORAREN MAKINA	110
ANDERE SOBARAN SANTOS	DBH 1.MAILA	KITANO KONTUAK	115
EMMA YARZA IRUSTA	DBH 4.MAILA	GOGOETA	119
GARAZI BARRENETXEA URIARTE	DBH 4.MAILA	GAZIA, GOZOA,...GARRATZA	124

BIDAIA GORABEHERATSUA

Egilea: Lexuri Elguren
DBH 4. maila

-Zer nolako gau zoragarria dagoen! –esan zion Jonek Aneri emeki.

-Arrazoi duzu bai –erantzun zion Anek.

Izan ere udako gau epeletako bat zen, izarren dizdizka iluntasunetik gailentzen den horietako bat. Hondartzan zeuden, itsasoa eta zerua elkartzen ziren puntua begiztatu nahirik urrunean ahots bat entzun zutenean.

-Ane, zatoz etxera afaltzera! –oihukatu zuen Mikelek, Aneren aitak.

-Bai aita, oraintxe noa! –erantzun zion Anek.

Ane eta Jone, agurtu eta etxera joan ziren afaltzera. Gazteak ziren, noski, eta gauetz irtetea erabaki zuten, ea mutil atseginen batzuk ezagutzen zituzten. Gau dibertigarria izan zen, dantza pila bat egin zuten eta baita mutil talde bat ezagutu ere.

Goizean goiz jaiki ziren biak etxeko garbiketak egiteko asmoz, baina zutik ere ezin ziren egon logurarekin eta ohean sartu ziren berriro. Arratsaldeko laurak inguruan kalean elkartu ziren.

Ane hamasei urteko neska gazte galanta zen, lagunengatik edozer egiteko prest zegoena, nortasun handikoa eta ikasle fina. Bere gurasoekin bizi zen kostaldeko herri batean.

Mikel, bere aita, alai, dibertigarria eta broma zalea zen. Iragan beltz samarra izan arren guttiz berrituta zegoen. Beltzak ikusia zen gizajoa.

Josune, ama, zintzoa, liraina eta leiala zen. Hautzaro zail samarra eduki zuen, gurasoak hil zitzaizkiolako bera oso gaztea zela. Familiara gehitu behar zen esaneko zakur bat, Roki izenekoa. Txikitan askotan jolasten zuen Anek berarekin, orain ere bai, baina, modu desberdinean.

Jone, bere lagunik minena zen, dibertigarria, maitagarria eta lagunak laguna zena. Asko gustatzen zitzaion lagunekin egotea; gustura eta zabal aurkitzen zelako eurekin.

Udako oporrak hasi berriak ziren eta institutuko lau lagunek kanpamentu batera joatea erabaki zuten. Talde hau, Anderrek, Josuk, Jonek eta Anek osatzen zuten, noski.

Jonek eta Anek elkarri lagundu zioten bidaiarako poltsa prestatzen. Arratsalde dibertigarria pasatu zuten arropa tartean.

Goizeko seiak ziren eta Aneri iratzargailuak jo zion bidaiari hasiera emateko. Neskak logura alde batera utzi, eta sei eta erdiak aldera kalean zen lagunekin. Bere gurasoak aldamenean zegoen kanpin batean gelditzeko asmotan zirenez, denak furgoneta batean sartu ziren Roki barne zela. Bidaia oso luzea izan zen, hamabi ordu inguru egon ziren errepidean.

-Begira han urrutian, kanpamentua! –oihu egin zuen Josuk.

-Bai, arrazoi duzu! –erantzun zion Anderrek.

Josu eta Ander, Aneren ikaskideak ziren. Josu futbol zale amorratua zen eta lagunekin egotea izugarri gustatzen zitzaion, batez ere, Anderrekin. Honek ere zaletasun berdina zuen eta gainera alaia, atsegina eta dibertigarria zen.

-Neuk ere ikusten dut! –bota zuen Anek.

-Baita neuk ere! –segitu Jonek.

Kanpamentura iritsi bezain laster saltoka hasi ziren laurak. Baina ez zekiten nolako opor laburrak izango ziren haiek. Jakin nahi duzue? Ba, hemen doakizue.

Lehenengo egunean oheak astindu behar izan zituzten, gelak garbitu, arropak bere lekuan utzi, aurkeztu... Ez zitzaien askorik gustatu gure lagunei.

Bigarren egunean goizean goiz mendira joan behar zuten. Monitoreak mapa batzuk eman zizkioten galdu ezker bidea aurkitzeko eta iparrorratz bana. Josuk eta Anderrek ez zuten kasu gehiegirik egin ez zirela galduko pentsatzen zutelako. Lau lagunak batera irten ziren. Ez zegoen aldapa handirik, baina oso arriskutsua zen mendi hura.

-Harritsua da gero –esan zuen Jonek.

-Bai –erantzun zion Josuk.

-Ah!!!!!! –entzun zen euren atzean.

Ane zen, irrist egin zuen eta sakan batetik erortzeko zorian zegoen. Zuhaitz baten adarretik zintzilik aurkitzen zen. Hori ikusita berehala korrika abiatu ziren Ane zegoen aldera. Josu zen denetatik altuena eta besteek hanketatik eusten zioten bitartean Aneri eskua luzatzen zion, baina neskatoarena ez zuen oratu. Era desberdinetara ahalegindu arren, neska arriskutik aldentzeko biderik ez zuten aurkitzen.

Bitartean, Aneren gurasoak lasai batean zeuden eguzkia hartzen euren kanpinaren aurrean.

-Zer nolako egun zoragarria dagoen! –esan zion Mikelek.

-Bai. Eman al duzu krema? –besteak galdetu.

-Bai, lazтана. Lasai igaro itzazu faltatzen zaizkigun egunak.

Egia esan Josune kezkatu zegoen. Ez zekien Ane non zebilen eta gehienetan, lagunekin zebilenean, istiluren batetan sartzen zenez...

Arazo makalean sartuta zegoen Ane! Jausteko oso gutxi falta zitzaionean mutil bat ikusi zuten urrutian.

-Kaixo, mutil –esan zion Josuk.

-Kaixo, bai, kaixo –erantzun mutilak.

-Ba al daukazu telefono mugikorrik 112ra deitzeko? –galdetu zion ahal zuen lasaitasunik handienarekin.

-Bai, badaukat. Tori ! –erantzun zion mutilak.

Ane bitartean ahal zituen adarrei eusten zegoen, lurrari musurik eman ez ziezaion.

-Kaixo, etor zaitezte Gorbeia mendira, neska bat dago amildegi batetik jausteko zorian –bota zuen Josuk telefonotik.

-Oraintxe bertan joango gara –erantzun zioten beste aldetik.

Jone negarrez hasi zen berehala, uste zuelako Ane galduko zuela betiko, baina ez zen hala izan. Denbora gutxian salbamenduko helikoptero bat ikusi zuten euren buruen gainean. Soka batetik dindilizka gizon bat jaitsi zen Aneri langutzeko. Ane zorabiatu egin zen, egin zuen esfortzuekin, eskerrak gizonak lurrarekin topo egin orduko harrapatu zuela. Helikopteroan eritexera eraman zuten, osasun azterketa bat egitera.

-Goazen korrika bere gurasoei abisatzera –esan zuen Anderrek.

Korrika abiatu ziren bere gurasoen kanpinera.

-Zer, zer gertatu dela? –oihu egin zuen Mikelek ezin sinesturik.

-Anek harri artean irrist egin duela eta adar batetik zintzilik gelditu dela. Orduan milaka gauza egin ditugula bera handik ateratzeko baina ezin izan dugula ezer lortu –azaldu zien Jonek lehenengo partea.

-Honela geundela mutil bat ikusi dugula eta 112ra deitu dugula bere telefono mugikorretik –hori zen hurrengo azalpena eta Josuren ahotik irten zen.

-Gizon bat jaitsi dela soka batetik eta Ane ospitalera eraman dutela - gertaturikoaren azalpena horrela bukatu zuen Anderrek-.

Zitzu bizian eritexean agertu ziren. Ane konortetik gabe aurkitu zuten ohean etzanda, eskuineko eskua eta ezkerreko oina igeltsatuta zituela. Esnatu zenean etxera bidali zuten. Etxera itzuli baino lehen kanpamentutik igaro ziren euren ekipaia hartu zezaten. Arrera oso polita eduki zuten, festa antolatuz, Aneren omenez.

Handik egun batzuetara itsasoari begira zeudela...

-Zer nolako gau zoragarria dagoen! –esan zion Jonek Aneri.

-Arrazoi duzu bai, hau gauaren ederra! –erantzun zion Anek.

BIHOTZ URRATUA

*Egilea: Aiora aizpurua izagirre
DBH 3. maila*

Mikelengan pentsatzen dudan bakoitzean oilo ipurdia jartzen zait, bera ezagutu dudan mutilik harrigarriena da, hau da, beste mutilengandik desberdina, bere begirada ziurra, bere ukitzeko modua eta bere irribarreek beste mundu batera eramaten ninduten.

Azken uda ahaztu ezina izan zen niretzat, berarekin pasatu bainuen. Herririk herri joan ginen eskutik helduta, adibidez: Ibarrangelu, Elantxobe, Mundaka, Bermeo, Bakio... Baina Gorbeia mendiko irteeran egun zoragarriak igaro nituen, biok goxo-goxo ilargia eta eguzkia irteten eta sartzen ikusten genituen. Nik hodei baten gainean igaro nituen egun haiek, momentu horretako desio bakarra irteera hura inoiz ez amaitzea zen. Hain ongi nengoen bere ondoan! Munduan bera eta ni bakarrik geundela amesten nuen, amets hura egun batzuetarako egi bihurtu zen. Bere besoen artean erregina sentitzen nintzen, berarekin nengoenean orduak, segundu batzuk bezala igarotzen ziren, urteak egun gutxi batzuk bezala ziren, eta asteak minutu eskas batzuk.

Udazkenean murgildurik geunden, zuhaitz hostoak eroriak zeuden, ostegun goiz euritsua zen, ohetik jaiki, dutxatu, jantzi, atondu eta gosaria jan ostean autobusa hartzera nindoala, bidean, beti bezala, karteratik Mikelen argazkia atera, eta beregan pentsatu nuen, begiak itxi ezkerreko antze ikusten nuen Gorbeia mendian irribarrez.

Eskolara heldu bezain laster, nire lagun Nerea eta Olatzek tristetik, egunkaria erakutsi zidaten, harrিতuta nengoen, ez nuen ezer ulertzen, hasieran berri ikusgarri bat zela pentsatu nuen, baina oso erratuta nengoen, nire barrurako irakurri nuen, horrela zioen: “Hamalau urteko mutil bat larri zaurituta geratu da, autobus eta kotxe batek elkar jo dutenean Gernikan”.

Artikulua irakurtzen jarraitu nuen, oraindik ezer ulertu gabe, baina segituan ulertu nuen dena. Mikel Gelbentzu izan zen zauritutakoa, ez nuen sinetsi nahi. Momentu horretan mundua erori zitzaidan gainera, ez nekien non nengoen ezta zer pentsatu, dena beltz ikusten nuen. Begiak itxi nituen, bere argazkia eskuetan hartu eta negar batean hasi nintzen eskolako eskailerapean. Betan azken uda begien aurretik pasatu zitzaidan segundo eskasetan.

- Nola zaude? Galdetu nion Mikeli ospitalean.

Ondo erantzun arren banekien oso gaizki zegoela. Bere medikuak ospitaleko korridorean argitu zidan oso egoera zaila pasatzen zegoela eta posibilitate gutxi zituela bere egoeran, buruan golpe larria hartu baitzuen. Alde guztiak tristuraz beteak zeuden, bertako usain larriak goragalea ematen zidan, medikuak alde batera eta bestera, erizainak kirofanorantz eta senitartekoak ate aurrean negarrez. Ifernua zen hura!

Ez nuen ulertzen egoera hura, zer egin zuen Mikelek hori merezi izateko? Behin eta berriz galdetzen nion nire buruari.

Etxera joan behar nuen, bere senideak berarekin ere egon nahi zutelako. Beraz, musu bat eman eta ospitaletik irten nintzen.

Hurrengo egunean Mikelen amak hots egin zidan telefonoz negar batean. Mikel hil egin zen, beste mundura joan zen. Nire buruak gutxi ulertzen zuen, baina nire bihotza zeharo galdua zegoen.

Bion oroitzapen haiek ez nituen inoiz ahaztuko, Mikelek nire bihotzean oso zati handia osatzen baitzuen.

Ziur nago ez dagoela munduan bera bezalako mutilik, hain argi, sentsudun, barregarri eta maitekorrik. Goian egon arren, nik Mikel beti maite izango dut nire alboan, eta ez dut inoiz ahaztuko, gainera, gure azken musua ospitalean hain hotza izan arren bero sentitu nuen nire barruan. Ez dago inolako hitzik zuk maite duzun pertsona bat galdutakoan deskribatzeko. Honek ez du atzera bueltarik, baina izango balu, bi aldiz pentsatu gabe bere tokiagatik aldatuko nintzateke. Nire bihotza bera joan denetik urratua geratu zen, betirako.

Mikelengan pentsatzen dudana bakoitzean oilo ipurdia jartzen zait, bera, ezagutu dudana mutilik harrigarriena da, hau da, beste mutilengandik desberdina, bere begirada ziurra, bere ukitzeko modua eta bere irribarreek beste mundu batera eramaten ninduten. Oraingoan ni ez, bera joan da.

BIZITZA GOGORRA DA

*Egilea: Jon Rementeria Larruzea
Batxilergo 2. maila*

-Zelan zoaz orduotan kalera, seme?

-Ama, utzi baketan mesedez. Gaur ez naiz egun ona izaten ari.

Klonk! Atearen ixte hotsa.

-... Ez al dabil arraro aspaldion?

-Utziozu, emakumea. Gaztea da, ez daki zer nahi duen ere. Argituko zaio burua egunen batean.

-Bai, badakit zer den hori. Neu ere nerabe izandakoa naiz. Horrexegatik hain zuzen...

Din-don! Txirrinaren hotsa.

-Lasai, ez nator bueltan oraindik, giltzak ahaztu zaizkit.

“Bizitza gogorra da” esaten zuen bere ikastolako maisu batek. Berak ez zuen sekula pentsatuko zakur berde bat baino bitxiagoa zen irakasle hark esandakoa hainbesteko egia zenik. Orduan filosofo eszentriko baten hitzak iruditzen zatzazkionak, eguneroko bizitzan pairatuko zituela jakin izan balu, ez zituzkeen txiste batzuk egiteko gai moduan hartuko. Baina bizitza gogorra da zinez, eta inoiz ahaztuko ez dituen aldaketak jasaten ikusi zuen bere burua.

15 urte besterik ez zituen orduan –16 egitear-, eta umea zen oraindik. Betikoak ziren adiskideak, irakasleak, futbol-lagunak, senitartekoak... kezkak ere betikoak ziren: ea matematikako azterketan 5 bat, 6 bat edo 8 bat aterako zuen; ea futbol ligan azken, azken aurren, 11. edo azpi-txapeldun geratuko ziren; ea oportretarako gurasoak berak joan gura zuen tokira joateko konbentzitzen zituen... Baina iritsi zitzaion garaia, inork zehaztua ez duen garaia, hazten hastekoa alegia.

Adiskide berri bat egin zuen; laguna, hobeto esanda. Bizitza guztian bere ikastola berean, auzo berean eta herri berean ibilitakoa; baina sekula honen adiskidetasunari garrantzirik eman ez ziona. Hura hazten hasia zen jada. Pentsakera konplexuagoa zuen bere betiko adiskideekin alderatuta.

Arraroa zen bere betiko bizitzaren zati izatea lagun hori, eta sekula harreman berezirik eduki ez izana. Baina horrelako gauzak ditu patuak. Berak nahi duenean elkartzen eta banatzen ditu gauzak, egoerak eta pertsonak. Eta patuak berak nahi izan zuen adiskide *ezagun ezezagun* hau bere lagunmin egitea. Ustekabean bere konfidantza bereganatu zuen. Bere txikikeriak kontatzen zizkion lagunari eta honek bere barneko hausnarketarik sakonenak ateratzen zizkion.

Mundu berri batean barneratu zen orduan. Dena zen aurkikuntza, dena zen berria, ordurarte imajinatu gabekoa. Buruak, matematikako problemak ebazteko baino askoz gehiagotarako balio zuela ohartu zen. Atzean geratu zitzaizkion lehenagokoak. Zer zerikusi zuen azterketetan nota bat edo bestea ateratzeak? Zer zerikusi zuen ligan azken zein lehenengo amaitzeak? Zer zerikusi zuen oporretan leku batera joateak, bestera joateak edo ez joateak? Une jakin batean sentsazio txarra edo hobe sentitzeko baino ez zuen balio. Baina, azken finean, horrek ez zuen bere pertsonalitatea eraikiko. Lagunak, ordea, bazekien zerk egiten zuen pertsona berezi: buruak eta bihotzak. Sentimen horiek jarraitzen bukatu zuen berak ere azkenik. Ez ziren galderak bakarrik etortzen bere burura, ohartzeak eta kritikak ere bazetozen. Bere ustetan zuzena eta okerra zena baloratzen hasi zen, zer egingo lukeen berak ikusten zituen egoeren aurrean. Balore berriak aurkitu zituen bizitzan. Bere heziketak ez zion inolaz ere balore horiei buruzko informaziorik txertatu. Ez ikastolan, ez etxean, ez inon, ez zaio inoiz ere garrantzirik eman... heriotzari, esaterako. Beti ikusi izan zuen mundua urdin kolorez, zeruaren urdin kolorez. Orain, zerua urdin ikusi arren beste urdin batez ikusten zuen. Itsasoaren urdinez, misterioz eta minez betetako heriotzaren kolorez. Ez zuen egundo pentsatuko hain hurbileko gauza zenik, egunero irits zitekeenik eta batzuetan bizitzea baino desiragarriagoa ere izan zitekeenik. Baina esan bezala, mutil berria zen, hobe edo okerragoa ezin zehaz zitekeen, baina ez zen jada sekula lehengoa izango.

Futbolak, ikasketek eta guraso eta lagunek bazirauten bere bizitzan. Nahitaez bizi beharreko egoerak ziren. Hala ere, bere pentsakera berri hartan ez zirenez funtsezko ardatz, nahiko baztertuta zituen. Bere "bizitza soziala" -nolabait esatearren- gainbehera zihoan. Nahiz eta bera ohartu ez, igartzen zuen inguruak ez zuela berarekin ohi zuen bezala jokutzen. Hasiera batean ez zion aparteko garrantzirik ere eman, eta berak berean jarraitu zuen. Bost axola zion denak. Berdin zion jendearen ahotsa argi ibil zedin ozen esaten entzuteak. Tarteak zuen uneoro egiten zuen ihes bizitza errealetik, agian gogorregia zelako. Institutuan, etxean...-futbola utzia du jada- jasaten ari zen gainbeherak, depresiora eraman ez zezan. Orain kalea zuen babestoki. Elementu bat gehiago bizitzako instituzioen zerrendan. Kalea, hainbeste argi, hainbeste zarata, hainbeste jendekin; eta hala eta guztiz ere hainbesteko bakardadearen igorle. Etxea, ikasketak, lagunak, kalea...gizarteko instituzioak... Egia esan, ez ziren eta ez dira arrazoi aski sendoak pertsona baten hainbesteko sufrimendua edo egonezina justifikatzeko; izan litezke agian pertsona horrengan izaera aldaketa suposatzeke. Direnak direla eta ez direnak ez direla ordea, iparra galduta zebilen bera nahiz eta norabide finkoan joan. Baina denbora pasa ala, gero eta nabarmenagoa egiten ari zen hainbat aldiz aipatu ditudan instituzioetan isladatzen zen jokabide aldaketa.

Din-don! Txirrinaren hotsa.

-Lasai, ez nator bueltan oraindik, giltzak ahaztu zaizkit.

-Aizu, ez al dizut galdera bat egin irten baino lehen? Ez al dut bada erantzunik merezi?

-Ama, ez gaitezen has, mesedez!!.

-Has ez buka. Arraro zabilta aspaldi honetan, arraroegi gauza onerako. Ez dizut ateratzen utziko zer jazotzen zaizun jakin arte.

-Ez nauzu katoliko egin, ez sekula elizara eraman, eta orain sermoiak eta aitortzak. Falta zitzaiguna!

-Errespetu apur bat! Lotsagabe hori! Lehen ez zinen horrelakoa ba!

-.....

-Ikasiko duzu zeuk ere zer den bizitzaren gogortasuna, eta orduan ahaztuko dituzu orain darabilzkizun harro haize eta misterio inuzenteak.

Bere buruan gogoeta sortu zen orduan ere. Bakarrik zegoen munduaren aurrean. Benetako maisu eta lagun zuena baino ez zuen alboan. Ez al zen inor ohartzen era batera edo bestera, gehiago edo gutxiago, pairatzen ari zela? Ez al zuen munduan beste inork pairatu berea bezalako oinazea? -Momentuz- Erantzunik bariko galderak. Bien bitartean ingurua martxan zebilen, etengabeko mugimenduan. Sistema bere ereduak inposatzen eta biztanleriaren % 99,99a -bera izan ezik- aramu sarean erortzen.

“Bizitza gogorra da” esaten zuen hark. Ez zitzaion arrazoirik falta. Adoleszentzian “arrazoi” batzuegatik eta aurrerantzean beste “arrazoi” batzuegatik, mundu honek beti erakutsiko digu konplikazioren bat. Geure izatea eraikitza behartuko gaitu, gizarte honetan egokitzen jakitera; eta inoiz, heriotzan pentsatzera ere bai.

Zer egin? Nora jo? Ibilbidea ez da sekula amaitzen. Heriotza da galduentzako azken baliabidea. Patuak nahasten die bidea. Patuak nahastu dio bidea. Baina ezin zehatz daiteke bide zuzena edo okerra den, zeru urdin kolorekoa edo itsaso urdin kolorekoa, bihotz- buruetakoa edo ingurukoa. Azkenerako ez da ez maisu ez lagunik ere geratzen. Mundu berria zahar noiz egingo itxarotea baino ez da geratzen. “Gogorra” da zer egin ezin jakitea.

-Ikasiko duzu zeuk ere zer den bizitzaren gogortasuna, eta orduan ahaztuko dituzu orain darabilzkizun harro haize eta misterio horiek.

-(Ze ote dakizu zuk nik zer dakidan bizitzaz)...

-Ba al zoaz? Itzuliko al zara?

-Bai... Gero arte.

ESKUAK BEGIRA

*Egilea: Galder Urzaa
Batxilergo 1. maila*

Zure aurpegi itzalia, nire malkoen besteko argazki gero eta tristeagoak isladatzen du. Logela behartuko gau mahaitxoko larrosa zimel ezinak dira bion eremuko bizidun bakarrak. Zure kemen-ondarea nire bizi-indar eta “indar” hori gure bizi-lapur.

Udaberriak bihotz gaixoa pasio-odolez gainezka jarri eta zugana aireratzen nau (Kupido benetako maitaleen epaile zintzoa dela erakutsiz) paradisu loretsuetan, hauek musuz ere apainduz; laku zabaletan, kolore guztietako arrainak kili-kilika dabilzkigun bitartean igerian...

Gure amodioa paper bihurtuz (papera amodioaren ispilu), zure ondoan eseri eta eztizko ahotsez ozen irakurtzen dizut:

- “Zuretzat, nire odolaren aztoramenduaren eragile zaren printzesa...”-hasiera emanez.

Jarraipenak “Galtzen den azkena”-ren indarra argitzen du. Banatzen gaituen harrizko estalkia (sentsibilitate isolatzailearen funtzioa duena, denbora bezala) eta egur ustelkaitzeko atea, gure oheko izara leunak izatera pasa gura nituzke olerkiarekin, gure bideei norabide desberdina inposatuta ere, norantza berdina izaten jarraitzen dutela oguziz:

*Aurrean ikusi nahi zaitut
niri begira
nire bizi beharra erakusteko,
ateratzeko
aiseago argira
eskutik helduta igoko gara
maitaleen zaldi txurira
geure paradisura
eraman gaitzan
iluntasunean
ilargi azpian
dantzan...*

Udan, aro ederra aprobetxatuz, gau bat baino gehiago izan dira batera lokartu gaituztenak, desioz beteriko izar iheskorren argi itsugarriekin; baina goiz guztiak dira, aldiz, bizitza laburtzen diguten iratzargailu gaiztoak. Tarte horiek ditugu guretzat, ametsak dira gure errealitatea eta bertako betiko irudi ahula (biok dantzan) marrazten saiatzen naiz egunero, ilunabarreko aitopeneekin batera, zugandik hurbilago sentiarazteko.

Isun asko ditut jada irabaziak, burla gehiegiz gurea ulertzen ez dutenen eskutik. “Lur berdinarengatik berezia garela gertaera komikoa iruditzen zaie.” Zure berotan iragandako arratsalde ahaztu ezinak ulergaitz zaien ignoranteen hitz iraintzaileek, gu gehiago parke ilun eta hotz honetan ez ikusteko ahalegin hutsaletan dabilta.

Erraztasunez kontraesaten dira. Ez dute gorai patzen bada bihotzez, maitasuna ez dela inoiz itzaltzen? Batzutan ez naiz zure (eta beste inorena gutxiago) arima janzteko gai, zure xurumurruei erantzuteko, zeure eskuak neureaz estutzeko, zeure ezpainak neureekin bustitzeko, lotzeko (lur desberdinen ongarri garelako nahitaez?)... Hori da nire amesgaiztorik latzena... baina arima erratuak zurrumbilo zarratu batean garamatza denboran zehar.

Pentsatzen hasiz gero, gauza gutxi dira egiten utzi ditugunak. Bizitzaren lege monotonoak hausten eta zapaltzen diharduen bikote ausarta gara. Gehienek uko egiten die sinesmenen munduari, gure munduari, herabetasunak itsutuz. “Inoiz ez zaio muzin egin behar benetakoa denari”, grabatu genuen gure kateetan; oraindik lepoan zintzilik, fideltasunaren sinbolo gisa.

Zehatz eta zuzen azaltzen du azken hamarkadako balada ospetsuenaren zati labur batek:

Inoiz ez dut sinestu amodioan

*sexuaren indarrak
estali dizkit begiak...*

Hori da egungo bikoteen arazoa, maitasuna gabonetan Olentzerori eska daitekeen eta zahartzen duen botika misteriotsua (ezezaguna) dela uste dutela. Askok ikatzarekin aldera dezake; gosetiak, otsoa uluka irudi, gorputz lerdinen egarri dira (bat gutxi antza eta denena) eta euren ustez, izerdiz blaitzea da maitasuna ematea edo, aitzitik, beraientzat maitasuna gezurra da. Hori, barne-sua (pasioa) piztea da, indartzeko modu bat soilik.

Oraindik zuri lotuta banengo bezala irakiten dit odolak gure zurrumbiloan lurrinduz.

Udazkenetan ezkutaketara jolastea atsegin duzu eta orrien atzean aise mugitzen zara, haizeak biluztu arte. Urteko denboraldi honetan lotsatiago agertzen zara nire aurrean eta zeharka begiratzea baino ez duzu lortzen, neskato kokor baten moduan. Orduan, begiak itxi eta gure lakuaren ertzean plisti-plasta elkarri ziprirtintzen gabiltzala igarri arte, pentsamenduekin (kolore guztietako arrainekin) igeri egitea eskatzen dizut. Gomendioa betez, “Galtzen den azkena” paradisura bidaiatu eta bizitzen jarraitzen dugu.

Pixkanaka lasaitasuna eta adorea irabazten dituzula konturatzen naiz, udazkeneko lelotasuna baztertuz...

Haizeak zure ile luze liraina orrazten du aurpegia argituz eta, zure begirada sarkorak, denbora gelditzen du bat-batean. Inguratzen gaituen oro uzkuratzen doa eta gu, bitartean, begiak zabal-zabalik amesten hasiak.

Eremu huts batean (irudimenezko basamortu batean, alegia), elkarrekin bizi izandako une guztiak isladatzen ditu oroimenean argazki amaigabedun filmina azkarrak.

“Pub batean sartuta lau ordutik gora generamatzan. Guk, gainean geneukan tajadarekin (euroa zenbat den ere ahazteko bestekoa) eta ondokoak, (zentimoak bereizteko ezinaz) itsu zeudelako, dantza erritmoa jarraitzea beste beharrik (ahalmenik) ez genuen; zelan edo halan, ordainduko genituen leporaino genituen tragoak. Bestalde, ezin uka, ahalmen boteretsuena beharrezko neskari beharrezko momentuan eskua inuzenteki sartzea dela, laudoriozko hitzak eskainiz. Hain zuzen ere, horixe izen zen nonbaitera batera joatearren nire eskua estutzera bultzatu zintuena. Lehenengo solasean saiatu ginen, sentitzen genuena argitu eta elkarrekin hasi nahi genuen hura seriotasun baten barruan bedeinkatzeko. Jarraian, hitzez azal ezinezkoa modu goxoagoz adierazi genuen hondartzarainoko bide bukaeran, olatuen astinduen ikara barik. Etxera blai eginda iritsi ginen (nik galtzak ere bai!), gaixotzeke, baina hala ere, presa gabe eta aurpegira josita genuen irribarrea ezin disimulatuz”.

Hurrengo zitan, dosi bakoa azken hau, lotsaren atzaparrek itotzen gintuzten berbak eztarrian. Egindako erdia oroimenean herdoilduta eta beste erdia sinesgaitz zitzaigun elkarri kontatzean. Inpulsuek eta nahiek ausardia puztu ziguten eta udaberri aldean bezalako pasio-zirrarak ileak ere urduri, bakarrik orrazten jarritz. Nola ahaztu paseo hartako eukaliptu usaina...

“Hamabietako kanpai hotsarekin batera aldegin genuen, Zenizientak legez; eta hark zapata utzi zuen bezala, guk ere utzi genuen gure arrastoa:

- Josu, etorri hadi hona hori ikusteko! -deitu zidan amak zerbait arraroa antzeman zidanean. Ni oraindik lelotuta nentorren eta ama builaka hasi bezain azkar konturatu nintzen erakutsi nionaz-. Niri ez ibili tontakerietan, entzun! -ohitu zidan.
- Ubeldura bat da ama, lasai -ahalik eta sinesgarrien esaten ahaleginduz. Baina aurpegiak lepokoaren kolore antzekoa bereganatu zuenean, ohera joateko agindu zidan erabakiko zuena atsegina izango ez zitzaidala mehatxatuz.
- Oraingoan hau bada, hurrengo batean zer, drakulinaren haginkada? - semea larritzeko amesagaz.”

Baina tarte horretan aparteko aski gauza gertatu ziren.

“Masaileko musu labur bat emanda, gure esku finak segidan egokitu ziren. Zapatuetan egiten genuena, kiroletan nola genbiltzan, zer musika taldeak ziren gure gustukoena eta abarreko elkarrizketa tipikoak jorratu genituen hasteko. Iparra galduta, hankei jarraitu genien zintzo, umeen kolunpio bakarti batzuetara heldu eta bertan kulunkatzen jarri ginen arte. Zuk, leku harekin ea hunkitu nintzen esanez barre egiten zenidan eta nik duzun sudur ñimiñoarekin zeozer usaintzeko gai ote zinen zirikatzen zintudan.

Lurretik eskukada eukaliptu jaso eta erdiak eman nizekin (“Galtzen den azkena”-ren usaina). Zuk sudurzuloetara hurbildu, begiak itxi eta, amets labur baten ostean, begirik ireki barik, eskuetatik gogoz obatu, irri lotsagaldur bat agertu eta musu luze bezain urtsua eskaini zenidan, nire mihia bera zorabiatuz eta besoen indarrez zure ipurdi biribila eutsi nuen, hanken dardara aski lasaituz.

Dantzan bukatu genuen, itsasoak harri murrak laztantzen dituen bezala.”

Negua hotza eta hitsa da. Lau ideia baino ez dituzten automatak bezala jokatzeko dugu orduan, bakoitza bere munduan! Gero niri esaten didate...

Isiltasuna gure nortasunaz jabetzen da eta iluntasuna gure itxuraz. Begirada da neguan, inoiz baino gehiago, gure dohai bakarra. Begirada eta

keinuk askotan hitz dotoreak baino esanguratsuagoak izaten dira. Horrela maitemindu ninduzun laztana, zeharkako begirada ausart, bizi, distiratsu baina harrapa ezin horrekin. Orain ere hasierako keinuekin aztoratzen, umetzen nauzu. Uste dut hori, oraindik guztiz dastatu ez dudan laranja garratza zarelako dela, erakargarritasunaren pizgarria bera. Aldi berean, neguan, inoiz baino zehatzagoak bihurtzen gara, misterioa galdu eta soberan dauden berbak baztertzen ditugu. Hitz gehienak isilean gordetzen dira nagitasunez, jauzteke.

Ez duzu orain ere igartzen?

Elkartzeko ordu laurden falta da eta zure belarriak goxotzeko ezer bururatzen ez zaidala nabari dut. Oraingoan ere, gerritik ondo heldu eta zein miresle fidelen “harriztatuko” gara lantzean behin zure ezpain mardulak bustiz, lehortzeko astirik eman gabe.

Eseri eta eskuak begira jarritz, hankak gurutzatu eta musuka lotzen gara gogoz, zeozer behintzat behar den moduan egiteko-edo, haiek isladatutakoaz harro gaudela argituz.

Papera amodioaren ispilu barik, gure ispilu izatera pasa da iada, uso txuri bikote askeak gure arima isladatzen duen bezala.

*Zein ederra maitasuna
benetakoa denean,
pentsamenduen hegalaldian
zuga lurreratzean,
nire besoetan
bihotza puzten, bularra astintzen
amestea, sentitzea*

*Begiak zabal-zabalik
utziko dizkit
bere argitasun bortitzak
hurrengo goizerarte
amets goxo batean itsuturik*

HERIOTZAK ERAMAN ARTE

*Egilea: Iban Auzokoa
Batxilergo 1. maila*

Leihatila hesitutik sartutako argitasun gori batek, deabruaren burduntzia irudi, esnatu nau gaur ere, goizero legez. Begiak, apurka-apurka ireki ditut gauetik goizera mirariren bat gertatu ote denaren itxaropenez, baina zoritxarrez, ingurura begiratzearekin batera zapuztu dira nire ilusio eta ametsak. Herdoildutako burdinazko barroteak ikusterako nire bihotza bukaerarik gabeko zulo ilun batean behera amildu da, eta une labur baterako bada ere, tristura alde batera uzteko asmoz, errotulagailu beltza hartu, eta joandako egunaren zenbakia ezabatu dut horman eginda daukadan egutegitik. “Egun bat gutxiago falta zaik Iñaki!” esan diot neure buruari goizero egin ohi dudan moduan. Baina hala ere, askatasuna arnastuko ez dudanaren errezeloak ditut, hau da, nire zeldako paretan idatzitako zenbaki guztiak ezabatuko ez ditudanaren errezeloak, ez bainago ziur zer utziko dudan lehenago, gartzela ala mundua. Beharbada, egunen baten, zalantza ilun hau argituko zait, eta berriz ere familiakoekin eta lagunekin elkartuko naiz. Baina agian, ohartu ere egin gabe hilko naiz eta zalantza hau ez zait inoiz argituko. Beraz, itxarotea beste irtenbiderik ez daukat jainkoak bakarrik baitu nire patuaren berri.

Azkenaldian, iraganean bizi izandako oinazeak bakarrik datozkit burura, ez dakit zergatik baina beti oroitzen naiz zorigaitzean, eta sekula ez aldiz, zorionean. Esaterako, askotan etortzen zait burura antzina lagunekin abesten nuen abesti bat, baina burutik ahotserako bidean, pentsamendu galduen eta urrunen barne muinean ezkutatzen da, eta azkenean ahaztu egiten zait. Ez da bat ere xamurra nik bizi dudan trantzea, azaldu ezinak dira nire barruan nabaritzen ditudan erpekada zakarrak, negar egin nahiak eta ezinak eztarrian sortutako korapilo askaezinak, eta guztietan txarrenak diren gauetako jipoiak; izugarria da hemengo bizitza, imajinatu ere ezin daiteke egin. Askotan ez gara ohartzen dugunaz falta dugun arte, eta horixe da niri gertatu zaidana, lehen nuenaz kexa nintzen, eta orain, iraganean nuena berreskuratzearren, dudan guztia emateko prest nago. Harrigarria da zenbat buelta ematen dituen bizitzak; zerbait zarelakoan zaude, eta egun gutxiren buruan, gauetan jendeak kalera ateratzen duen zabor poltsaren pare ikusten duzu zure burua.

Nire bihotza prest dago ilusio apur batez bizitzeko, etorkizunean sinesteko, baina buruan, tristuraz elkar kolpatzen diren oroitzapen beltzek ez diote horretarako betarik ematen. Bihotzari soilik kasu egitea zilegi balitz ez nuke izango orain dudan bezalako jarrera herabea, baina hori ezinezkoa denez, adorerik barik aurre egin beharko diot datorkidanari. Beti legez, gaur ere, egunak argitu orduko iluntzeko gogo itzela daukat, baina hemen minutuak, kanpoan egunak bezala pasatzen direnez, oraindik aspertzeko beste denbora daukat gaurko egunak biharkoari bere tokia utzi bitartean.

Bat-batean, nire gogoetatik baztertu nauen izugarrizko txiza gurea sentitu dut, baina ez dut batere gogorik eserita nagoen ohetik altxatzeko. Zer erremedio ordea, altxatu egin beharko naiz, ez baitaukat txiza aldean egiteko batere asmorik.

Txiza egin ostean, berriz ere lehenxeago etzanda nengoen ohe gainera bota dut neure burua. Beste behin ere pentsakor jarri naiz, eta berehala, nire iragana ikusi dut pareta zurian isladatuta.

Atentatu bat egiteagatik pare bat urtean preso egon ostean ihes egitea lortu nuen; makina bat egun ibili nintzen noraezean, norbaitek harrapatuko ninduen beldurrez. Ez zitzaidan aldegin herriko arotz, baserritar, tabernari, botikari eta abarren bizitza arrunta izatearen bizi-poza. Sarritan, berriz ere burdin artean preso geratzea nuen buruan, arazo guztien irtenbide; jarrera herabea. Alde batetik ez nuke nire burua ezkutatu beharrik izango, eta bestetik, lasai asko ikusiko ninduten benetan maite nautenek. Baina beste alde batetik begiratuta, askatasun itsu batean igeri egiteko aukera nuen, bizitzatik tantaz tanta edaten, baina neurritz eta ur basatietatik ihesi, ez itozeko bakoitzak bere txalupa xumea etengabe berreraikiz, neure itzala ere ziegako giltza zaindaria izan baitzitekeen. Nortasun sendoa behar da horrelakoetan, bai aurrera jarraitzeko, eta baita motibazioa ematen dizun konfidantza izateko. Sarrionaindiak bere poemetako batean esaten duenez, preso egon denaren gogo gartzelara itzultzen da beti; baina nire kasuan ez zen izan gogo bakarrik, semea eta emaztea ikusteko beharrez etxerako bidea hartu nuen ezinbestean, baina bertarantz nindoala harrapatu eta bigarren aldiz atxilotu ninduten.

Iraganeko kontuak alde batera utziz, berriro ere ohetik jaiki, eta hesitutako leihatilara hurbildu naiz. Bertako bi barroteak eskuekin heldu ditut amorrubiziz, eta nire indar guztiaz apurtzen saiatu naiz, baina normala denez nire ahalegina guztiz antzua izan da, haizeak baino eragin gutxiago egin baitiet. Benetan gorroto ditut barroteak, bai leihatilakoak, eta

baita besteak ere, beraiek baitira nire ezintasunaren euskarri, eta beraiek bihurtzen binaute ni, herri gabeko gudari. Hala ere, nahiz eta barroteak eduki, leihatilatxo asko maite dut, bertatik begira ematen baititut eguneko unerik gehienak. Orain ere bertara hurreratu naiz, eta nire burua, leihatila hesitzen duten bi barroteen artean kokatu dut, aurpegi zurbil eta bizartsua kanpoalderantz aterez.

Kanpoaldera begira ihardun dut, eta asko harritu nau goizetik arratsera eman den eguraldi aldaketak. Goizean, ni iratzarri naizenean, hodei grisak iparraldean agertzen joan diren bitartean, eguzkiaren lehenengo berotasun epelak lainoa laztantzen zuen. Orain aldiz, eguraldi zatarra dago, haizetsua eta euritsua. Haizeak garraiatzen duen hotzaren ziztada sarkorrak, makal bihurtzen du jantzia daukadan jertseak ematen didan berotasuna. Bestalde euriak, bere izarra bustiaz dena leuntzen du, leku batzuetan abarrots ugariak sortuz.

Inork ez daki zenbat gauza ditudan esateko, eta are gutxiago, zenbat denbora itxaron behar dudan horretarako. Uneoro entzuten dut nire emazte laztanaren hitzen oihartzun urruna, nire semearen aurpegi alaia leku guztietan ikusten dudan moduan. Askotan entzun dut bakoitzak duenari eustea dela onena, niri berriz, bizitzak kontrakoa erakusteko aukera eman dit. Hotzak eragindako ahoaren lurrin zuriak ezpain ertzetaraino irristatzen zaizkidan ilusioaren malkoak estaltzen dizkidan bitartean euria gelditu egin da, baina oraindik bere mardultasuna eta finkotasuna putzuen ur baretan kontserbatzen da.

Gaua mantso, badiaren lo hitsean abailduz doala sentitzen dut, nahiz eta, gatibu nagoen zulo ilun honetatik ezin dezakedan ikusi. Esperantza galtzen doakit, ezinbestean, nire malko gazietan. Ero modura nabil askatasun itsu baten atzetik, baina ametsak ozeanoaren urdin zabalean itotzen zaizkit. Marea beherantz doala nabari dudan bitartean, Kantauritik haizea dator niganantz maitasun zati batekin, eta nigana heltzean olatu bat apurtzen du nire bihotzaren murruetan.

Askatasun adreiluz nire barnean itxaropena nahi nuke eraiki, baina egunetik egunera zailagoa dela iruditzen zait. Izan ere, ni bezala, gauetan bakarrik denarentzat egunak ere gau bihurtzen dira, segundo bakar batean mina handituz, eta (gauak segundo asko ditu). Denbora, pixkanaka arimaren ezpalak higituz doa, eta tristura, ezkortasuna eta nire familiaren banaketaren errudun naizenaren sentimendu gaiztoa nitaz jabetzen ari dira. Hala ere badakit sentimenduok ez direla luzarorako, azken finean preso bat baino ez naiz eta edozein egunetan hil naiteke ziegan.

Nire barne munduan galdurik nabilela isilune luzea apurtzen duten oinotsak entzun ditut. Ez dut bi aldiz pentsatu behar izan datorkidanaz ohartzeko. Bi gizon dira, biek aurpegia estalita daukate. Zeldako atea ireki dute, niri besoetatik gogor heldu, ateari saka egin eta pauso batzuk eman ostean eskailera lohi batzuk jaisten hasi gara, zeintzuek zapaltzerakoan egun askotako hautsa astintzen dutelarik. Berehala kez betetako gela handi eta zikin batera heldu gara, eta aulki zahartxo batean esertzeko agindu didate. Badakit hitzik egin ezean zer datorkidan; ziurrenik heriotza, gorputza ez baitaukat beste jipoi bat jasotzeko, baina nire duintasunak baino gehiago balio duen ezer ez dagoenez isilik geratuko naiz. Itaunak egiten hasi zaizkit, baina nik ez dut neure hitza jan eta ez dut hitz erdirik ere esan. Bi poliziek nire jarrera ikusirik, gomazko porra beltzak hartu dituzte eta inolako gupida barik gorputz osoa jipoitzen hasi zaizkit. Ezin izan dituzte ene oihuek urratu lo dirautenen bihotzak; etxetik hain hurbil egonda hain urrun?

Bortxatu eta kolpatu naute lekukorik gabeko ziega honetan, oraindik poltsan eutsi ezinik nabil arnasa. Inoiz ez dut heriotza hain hurbil sentitu. Ez naiz gauza lurretik altxatzeko, ezta pixka bat mugitzeko ere; goragale etsia sentitzen dut nire barnean. Jipoitu nauten bi poliziek oraindik ere nire ondoan dihardute, beraien gerizpe zurruna nigandik hurbil nabaritzen baitut. Pairatutako jipoia gutxi izango balitz legez, begiak irekitzerako berriz ere porra beltza hartu eta ahalbait gogorren jo naute, erein dudan haziaren uzta orain hasiko naizela jasotzen esanez.

“Heriotza duina bederen” esan dizkiot azken hitzak neure buruari. Hasperen kolpez bustirik iraganean kiskali da nire desira, ke artean itzali baita azkenik nire begien dizdira.

ITXASNESKA

*Egilea: Eider Laina
Batxilergo 2. Maila*

Istorio hau, orain dela urte asko gertatu zen, XIX. mendearen erdialdean hain zuzen. Amodiozko istorio bat, Mundaka eta Izaro uhartearen inguruan gertatutakoa.

Bazen behin mutil gazte bat, egoerak behartuta fraide izatera abiatu zena eta ondorioz, Izaro uhartean beste batzuekin batera bertako monastegian urteetan zehar otoitz egitera aurkitu zena. Oraindik gaztea zen ordea, eta bere betebeharrak, berorren desioen menpe zeuden. Izaroko monastegi preziatuan lehen urtea igarotzeko izan zelarik, hilean behin Mundakara joan behar izaten zuen, fraideek behar zituzten janari edota tresnak erosteko helburuarekin.

Behin, Mundakan zegoela, hileroko eginbearra burutzen, ezagutu zuen. Ezagutu zuen behin ikusita ere bere bihotza lapurtu zion neska, dendari baten alaba, bere ametsetakoa. Neska ere gaztearen presentziaz jabetu zen, eta berehala haien arteko begiradek topo egin zuten, mutu biak, elkarri begira bakarrik. Haien barnean bestearenganako maitasuna zen nagusi, ikusi bezain laster, begiratzearekin bakarrik ohartu ziren beraien sentimenduetaz. Baina ez zen gehiago gertatu, lehen elkarketa hori besterik, nahikoa izan zena hori bai. Hots, gaztea joan behar izan zuen, bere bizitokira bueltatu, hurrengo hilea lehenbailehen heltzea bere desiorik gogokoena eta bakarra zelarik.

Hurrengo egunak zailak izan ziren fraide gaztearentzat. Buruan neska bakarrik zuen, ezin zuen beste ezertan pentsatu, hori dela eta errudun sentitzen zen. Aukeratutako bideak ez zuen eta onartzen neska batekin bere bizitza igarotzea eta berorrekin harremanak mantentzea. Errudun sentitzen zen alde batetik, baina inoiz baino pozago bestetik, maitasuna aurkitu baitzuen. Berrito ikusi behar zuen.

Neska ere berdin sentitzen zen, errudun baita, kristaua zelako, eta onartezina baitzen. Maite eta ezin berarekin egon, horrela ikusten zuen, eta horrela izan behar zela.

Heldu zen bai, azkenean, hurrengo hilea, eta fraide gaztea bere txalupa harturik, Mundakara abiatu zen. Eta iritsi zen, hainbeste desiratutako unea, berriz ikustearen unea. Bazekiten egokiena egiten ez zeudela baina sentimenduek agintzen zuten. Elkartu ziren orduan, eta lehen aldiz hitz egin zuten, bai beraien biziaz, bai beraien sentimenduetaz, bai beraien egoeraz, guztiaz. Denbora ez zen nahikoa, fraidea bueltatu behar zuten, eta hurrengo hileraren arte ez ziren berriz elkartuko.

Igaro ziren hileak, eta bikotea hilero ordu batzuetan zehar besterik ez zeuden batera. Ez ikusteak, aldiz, are gehiago indartzen zuten haien artekoa.

Baina heldu zen, heldu zen hainbesteko beldurra ematen ziena, jendeen esamesak zabaldu ziren, monastegiko fraideenganaino ere heldu ziren, herri guztian horretaz besterik ez zen hitz egiten. Neskari zuzentzen zizkioten begirada maltzurak, hainbeste mintzen zizkioten hitz errudunak. Garai latzak izan ziren biontzat, fraideak ezin baitzuen monastegitik irten, debekatua zuten, zigortuta aurkitzen zen. Baina lortu zuten berriz elkartzea, fraideak ihes egin eta bere maitalearekin elkartu zen:

- Maitea, ezin dut jasan, ezin dut gehiago, errudun sentitzen naiz, baina ezin zaitut ahaztu eta zu gabe bizi.

- Alde egin dezagun, guztia utzi eta alde egin dezagun. Nik ezin dut hemen bizi, mundu guztiak gorroto nau, etxean ere ez didate aurpegira begiratzen –aitortu zion neskak, malkoak erortzen zitzaizkiolarik-.

- Baina ezin dugu hori egin, ezin dugu dena utzi, zer egingo dugu? Gure bizia hemen dago, ni fraidea naiz, eta horrela izan behar du.

Bazekiten bai, alde egin ez gero ez zutela ezer lortuko, ezin zuten alde egin. Baina berriz ikusten ziren bakoitzean ere, arriskuan jartzen zuten beraien burua, norbaitek ikustearen arriskuan. Eta hori gertatu zen, ikusi zituztela, monastegiko fraide batek hain zuzen, gaztearen atzetik zihoala, esamesek esandakoa egia edo gezurra zen ziurtatzeko. Eta egia izan zen bai.

Orduan bai nagusitu zela zorigaitza haiengan. Ezin ziren inoiz berriro ikusi, fraideak debekatua izango zuten uhartetik irtetea, beste fraide batzuekin batera ez bazen. Neska ordea gorrotatua izango zen herri guztian, gurasoek ez zuten alaba bezala onartuko, ondorioak heldu ziren.

Hileak eta hileak igaro ziren, eta ez batak ez besteak ez zuten bestearekiko berririk izan. Biak ezin egonean, biak bizitzaren amaiera zelakoan.

Denborarekin ordea, gauzak bere tokira itzultzen hasi ziren, herria jadanik ahaztua zeukan gertaera, neska, berriz, betidanik izango zen horrela ikusia. Bai fraide gaztea eta dendariaren alaba, bata bestea gabe ezin zutela bizi sentitzen zuten ostera, bizitza zigor bat izan zen garai horietan biontzat.

Neska aldatu zen. Betiko neska alai, ederra eta berritsua, neska triste bihurtu zen. Etxean igarotzen zituen egun guztiak, kalera irten gabe, guztiaren beldurrez, gizartearen beldurrez. Neska aldatuz zihoan bai. Egunero, egunsentian, itsasora hurbiltzen zen eta uhartea ikusten zuen, Izaroko uhartea, bere maitea hor zegoen eta ezin zuen ikusi. Uhartean, berriz, hor zegoen mutikoa, egunsentia zela ere herriari begira, bere maitalearengandik baztertzen zuen ura behatuz.

Aldaketak somatu zituen bai neskak, bere gorputzean ere. Ezberdin sentitzen zen, gero eta bitxiago. Jarraitzen zuen egunsenti oro uhartea begiratzen, eta itsasoaren oztopoa gorrotatzen.

Hainbesteko mina berarengan, hainbesteko maitasuna sentitzen zuena fraide gaztearengan, orduan bai somatu zituela bere aldaketen hasiera. Beste pertsona bat bihurtzen hasi zen, beste bat, gorputzari begiratu eta ez zen bera, hankak ezberdinak bihurtzen ari zitzaizkion, ilea erortzen eta azala aldatzen. Ezin zuen ulertu gertatzen zitzaiona, zer dela eta zegoen horrela, zer dela eta?

Itsasoa, beti maite eta orain gorroto, bion arteko oztopoa zelako. Ihes egiteak ez zuen ezertarako balio, baina aldaketa bat beharrezkoa zen, inoiz hainbeste maitatu diren bi gazte horiek berriz batera egoteko.

Gertatu zen bai, beraien bizitzei bira osoa emango zien gertaera, ulertezina eta era berean zoragarria.

Goiz batean jaiki zen neskatoa, jaiki nahi baina ezin zutik jarri. Orduan bere hankak behatu zituen, baina ez zeukan hankarik, ezta oinik ere. Ezin sinistu eta begiak igurtzi zituen bere eskuekin. Baina ez zuen berriz hankarik ikusi, arrainen itxura zeukan. Arrainen itxura gerritik behera, emakume itxura gerritik gora. Berak ere ez zekiela nola, itsasneska eder bat bihurtu zen. Bere maitearekiko maitasunak, ezin ikusteak, itsasoa oztopo bat zelarik, indar horrek, bere hankak eraldatu zituen, bere nahiak egia bihurtzeko.

Berehala sentitu zuen itsasoaren beharra, bertako uretan murgiltzeko, hortik aurrera itsasoan biziko baitzen, itsasneska bihurtu zen. Hondartzan zegoen, eta Izaroko uhartea behatu zuen behin eta berriz. Fraide gaztea

ikusiko zuen, hainbeste espero zuen eguna heldu zen, hainbeste denbora igaro ondoren bere maitearekin elkartuko zen.

Uretan sartu eta murgiltzen hasi zen. Bere herri Mundaka behatu eta abiatu zen Izarorantz, itsasnesken kantua ahotik kanporatzen zitzaionlarik.

Egunsentia zen bai, eta hor zegoen egunero bezala fraide gaztea itsasoari begira eta triste, bere maitalean pentsatzen. Orduan ikusi zuen, neskaren aurpegia uretatik irteten, berarengana hurbiltzen eta bere izena behin eta berriz abesten. Korrika abiatu zen mutila uretara, bertan sartu eta neskarengana hurbilduz zera esan zion:

- Baina zer egiten duzu hemen? Maitea, nola heldu zara hona? Benetan berdin zait. Ez dakizu nola bota dizudan faltan, prest nago zuregatik edozer egiteko. Hile hauetan bizitza zigor bat iruditu zait, nire biziarekin amaitzekotan izan naiz ere. Maite zaitut.

- Ez dakit zer gertatu zaidan, baina zurekin ez egoteak hainbeste mina sortu dit, eta hainbeste maite zaitut, nolatan aldatu egin naiz. Itsasneska bihurtu naiz maitea, eta orain ez gaitu inork banatuko.

Biok hurbildu ziren, begietan malkoak zituztela, eta bere ezpainak elkartu zituzten. Maite ziren eta inork ez zuen lortu hori aldatzea.

PIZTITXO

*Egilea: Ekaitz Ibarguengoitia
DBH 2. maila*

Piztitxo nire izekoren kuia da. Hiru kolorekoa, zuria, marroia eta pixkatxo bat beltza. Sagua izanda ere, nahiko bihurria da, edozein lekutan egiten baitu pisa edo kaka, batzuetan nire altzoan dudala utzi dit oparixoren bat. Hau egin zuen egun batean, komunera joan nintzen arropak garbitzera eta itzultzerakoan ez nuen aurkitu. Ihes egin zidan.

- Izeko konturatzen bada!!!
- Edo txarrago, aittittek ikusiko balu etxetik libre korrikan!!! A ze nolako bronka !!.

Ziztu bizian hasi nintzen handik eta hemendik sagua topetan, mahai azpian, eskoben atzean, ohe azpian, leku guztietan eta ez zen agertzen.

Orduan izekok galdetu zidan non zegoen Piztitxo, eta nik berarekin jolasten nengoela erantzun nion, gezurra esanik.

- Bale! Baina behingoan bere kaiolara bueltatu beharko duzu, entrenamendura joateko ordua laster da eta.
- Bai, bai, izeko, laster gordeko dut, utzi minutu pare bat gehiago, bale? Erantzun nion nire arrebaren trikimailuak imitatuz, eta izekok barreka utzi zidan minutu pare hori.

Minutu pare bat baino ez neukan Piztitxo topatzeko eta kaiolan sartzeko, baina nola lortu? Belaunikatu eta bazter guztiak miatzen hasi nintzen eta arrastaka mahai, ohe eta edozeren azpian sartu, baina ezertarako ez zuen balio izan, ez zen inondik agertzen, saguak nik baino azkarrago pentsatzen zuen. Azkenean egia esan beharko nien etxekoei eta bronka aguantatu behar.

Espero nuen baino lasaiago entzun zidaten izeko eta aitona-amonak, ez zen saguaren lehenengo eskapada izan, eta orduan azaldu zidaten Piztitxo aurkitu eta harrapatzeko teknikarik hoberena: Letxuga!!

Beste edozer baino gehiago gustatzen zaio. Letxuga orritxo bat hartu eta gelaren erdian utzi, eta hara non agertu ziren iheslariaren biboteak amamaren zapata batetik irteten !! Letxuga orri berdearen bila zoro baten moduan salto egin zuen. Orduantxe zen nire aukera eta aprobeixatu nuen

bera harrapatzeko, noski. Ezin nion berriro ihes egiten utzi. Kaiolan sartu eta entrenamendura joan nintzen.

Gau hartan lokartu eta segituan Piztitxorekin egin nuen amets. Berarekin komunikatzen nintzen eta orduan kontatu zizkidan bere ihesaldietako abentura guztiak. Bere lehenengo eskapadaren kontakizunarekin hasi zen. Behin aittitteren poltsikoan zegoen erdi lokartua, bere moduan. Aittitte total lokartu zenean poltsikotik irten eta butakatik lurrera jaitsi zen. Butakaren ondoan irrati txikitxo bat zegoen, bi kable luze zituen, eta beti egiten zuen bezala gauza guztiak probatu nahian ibili zen eta bere hagin zorrotzekin koska egin zien kableei, aittitteren Walkmana guztiz hondatu zuen. Orduantxe salatik irten eta komunerantz abiatu zen, eta han ere beste kable pilo bat topatu zuen Klabeekin haginka hasi zen, baina halako kable batek kalambretxo bat eman zion eta horrela ikasi zuen kableekin ez dela jolastu behar. Orduan komunetik *txispa* txikitxoak ateratzen irten zen. Pasilo ilun-ilunean aurkitu zen, nora joan jakin gabe. Baina momentu hartan zaratatxo bat entzun zuen, ahots moduko bat. Ate baten alboan izaki txikitxo eta berdetxo bat ikusi zuen.

- Ei Piztitxo! etorri hona !! esan zion.

Jakinmin handiko sagua da eta horrexegatik hurbildu zen izakiarengana. Orduan izakitxoak esan zion mahai gainean zegoen ogia hartu ahal bazuen. Piztitxok gora begiratu eta erraza izango zela ziurtatu zion. Lehenengo mahai alboan zegoen aukitik hasi zen. Bost minutu igaro ondoren jezarlekura iritsi zen. Handik alboan zegoen leihoko kortinatik igo eta mahaira igo zen. Orduan han zegoen ogi puska mahaitik behera jaurti zuen eta hortik aurrera oso lagunak egin zirela esan zidan.

Esnatu nintzenean nire izeko eta aitite-amamari dena kontatu nien, denek barreka hasi ziren.

“Piztitxo”



TXARRIBODA

*Egilea: Ibai Lejarreta
DBH 1. maila*

San Martin egunetik aurrera izaten da txarribodak egiteko sasoirik onena. Nire familiakoek, azaroko edo abenduko zapatuetan hiltzen dituzte txerriak. Baina txerriak hil aurretik lan asko egin behar da.

Guk txerriak txikiak direnean erosten ditugu eta etxean izaten dira zortzi hamar hilabetez loditzeko. Honetarako etxeko barazki eta fruta hondakinez gain pentsu ezberdin ugari ematen zaizkie: txikiak direnean pentsu altzitua ematen zaie, gero, urtean zehar garagar irina, arto irina eta pulpa pentsuak. Kalabaza, naboia eta erremolatxa ahaztu gabe.

Txerria etxekoentzat nahikoa hasitakoan berau hiltzeko eguna jarri behar izaten da, jendeak normalean, ilargia ilbeheran dagoenean nahi izaten du. Tradizio hau, txerriak ilbeheran bere gorputzean ur gutxiago duelako omen da.

Txerria hiltzeko eguna pentsatutakoan ea nork hilko duen erabakitzen da, gurean harakinak edo harakinak hiltzen du. Ondoren familiakoei eta lagunei abisatzen zaie egun horretan laguntzera etortzeko.

Txarriboda egun bezperan porruak eta tipulak txikitzen dira gero odolostak egin ahal izateko eta txerriari besteetan baino janari gutxiago ematen zaio.

Eguna heltzen denean goizeko bederatziak inguruan hiltzen da txerria. Hiltzeko harakin txarri kortara sartzen da edo txerria bertatik ateratzen da. Harakinak gantxoa sartzen dio samatik eta tiraka ateratzen du kortatik aska aurrera, bertan, dauden gizonen txerriari oratu eta mahai baxu batera altxatzen dute, hauek txerriari hanketatik oratzen dioten bitartean harakinak labana sartzen dio txerriari samatik. Hau irrintzika egoten da nahiko denbora, bien bitartean, irteten zaion odola ontzi batean hartzen da eta odola hartzen dagoen gizonak edo emakumeak honi eskuarekin eragiten dio nahiko denboraz odol baturik ez egiteko.

Odol guztia hartu ostean labanarekin egin zaion zuloan trapu bat sartzen zaio eta batzuek txerriaren begian atzamarra sartzen dute hilda dagoela ziurtatzeko. Ondoren txerria kanpora atera eta tripaz behera jartzen da hanka ondoetan berau ez mugitzeko egur zati batzuekin. Ida txerri gainera eta alboetara bota eta su ematen zaio. Goialdea erretzen denean txerriari buelta ematen zaio azpialdea erretzeko.

Hildako txerria erre ondoren, eskoba batekin ida hondakinak kentzen zaizkio eta ea ondo erreta dagoen ikusten da, horrela izan ezean soplete batekin bukatzen da erretzeko prozesua. Hau egindakoa txerria urarekin, zepiloarekin, labana eta eskularru berezi batzuekin igurtziz larrua garbitzen zaio.

Txerria garbitutakoan tripaz gora jartzen da mahai batean eta labanarekin samatik ipurtzulora arteko ebaki bat egiten zaio barruko tripak ateratzeko. Ateratzen zaion gibela sukaldera eramaten da bazkalordurako prestatzeko, birikiak eta trakea ere kendu eta leku batean eskegitzen dira, mihia ere arinagokoak bezala kendu eta eskegi egiten da. Bihotza ere kendu eta erditik ebakitzen zaio. Gelditzen diren gainerakoak, urdaila, puxika eta hesteak karretila batetara botatzen dira.

Tripak kendu eta bertan gelditzen den odola urarekin garbitu ondoren txerriari bizkarrezurrean goitik behera ebaki bat egiten zaio eta eskegi egiten da bazkaldu osterara arte.

Egun honetan bazkaltzeko gure familiako menua hau izaten da: berakatz sopa, arroz zuria, hildako txerriaren gibela, makailaua piperrekin, pil-pil edo Bizkaiko erara izaten da normalean. Postre moduan fruta, gazta menbriloarekin, intxaurrak, konpota, sagar erreak eta kipurrazko pastela egoten dira aukeratzeko.

Bazkaldu ostean nahi duenak kinielan hartzen du parte, honetarako 100 pezeta uzten dira kaxa batean eta txerriak zenbat pisatuko duen apuntatzen da paper batean. Ondoren txerria eskegita dagoen lekutik jaisten dute gizonak eta pisatu egiten da. Kinielako dirua ere asmatu duenari edo hurbilen ibili denari ematen zaio, izan ere ez baita erreza pisua justu-justuan asmatzea jakinda txerriaren pisua arroatan neurtzen dela.

Gizonezkoak txerria pisatutakoan ebakitzen hasten dira. Emakumezkoak bien bitartean odolosteak egiteko gauzak prestatzen dituzte: arroza egozten jarri eta txerriari goizean kendutako hesteak garbitzen dituzte.

Hesteak garbitzea ez da oso atsegina izaten zeren neurrira ebaki ondoren barruan daukaten kaka guztia kendu behar izaten zaie eta kanpoko eta barruko aldeak goilare batekin igurtzi behar izaten dira ondo garbitzeko, ur gazitik ere pasatu behar izaten dira azkeneko zikinak kentzeko.

Hesteak garbitutakoan, egosita dagoen arroza, txarriboda bezperan egindako porru eta kipula egosiekin nahastatzen da. Masa honi gatz pixka bat eta goizean hartutako odola nahasten zaizkio, horrela odolostak egiteko osagaiak prest ditugularik.

Odolostak egiteko lehenengo eta behin hesteen punta bat oratzen da eta beste puntatik onilarekin edo makina batekin lehen aipaturiko masa sartzen zaio betetzeko eta gero hesteari buelta batzuk ematen zaizkio, normalean bi, hiru edo lau buelta izaten dira, hesteak duen luzeraren arabera. Hauek eta hestearen beste punta elkarrekin lotzen dira ondoren orratzarekin zulo txo batzuk egin eta porruarekin irakiten dagoen uretan egosten dira. Hauek egositakoan lapikotik atera eta sikatzeko eskegita uzten dira.

Emakumezkoak odolostak egiten dauden bitartean, gizonezkoak edo harakinak txerria txikitzen du. Txerriari, alde batetik hankak eta belarriak kentzen dizkio beste aldetik burua kendu, aizkorarekin erditik ebaki eta buruko garauak apartatzen zaizkio. Gero saiheskiak, solomoa, edo txuletak, urdaiazpikoa, pernilak eta zerrak ateratzen zaizkio. Beste okela soberakinak txorizoetarako uzten dira.

Aipaturiko okela hauek batzuk izozgailuan sartzen dira beste batzuk, adibidez solomoa, urdail azpikoa, eta pernila gatzetan sartzen dira baina izozgailuan sartu edo gatzetan eduki orduko trapu edo izara zahar batzuen gainean utzi behar dira hurrengo egunera arte okelek daukaten ura kentzen joateko.

Guzti hau egiten da txarriboda egunean, baina oraindik egoten da biharamunerako lana. Urdaiazpikoa, solomoa eta pernila gatzetan jartzen dira. Lehenengoko biak egun batetan edo, pernila ordea, egun gehiagoz.

Biharamunean ere izaten da nahikoa lan, txorizoak egiteko okelak eta koipeak txikitzen dira, piper txorizeduak egosi eta makina batekin zukua ateratzen zaie eta gero dena nahasten da gatz pixka bat botata. Handik hiru egun ingurura txorizoak egiten dira.

Txorizoak egiteko, odolostak egiteko moduan, hesteak garbitu, punta bat lotu, nahastea hesteetan sartu eta gero txorizoen tamainara hesteak lotzen

joaten da. Ondoren orratzarekin zulo txo batzuk egin eta eskegi egiten dira lehortu arte. Lehortzeko aire korronea dagoen lekua izaten da aproposa.

Txorizoak sikatu ondoren prest egoten dira jateko. Hauek ondo kontzerbatzeko koipetan, izozgailuan, oliotan edo beste modu batzuk ere badaude. Eta hau da txarri hiltze edo txarriboda inguruko guztia.

P: D.: Ezer ez delako inoiz paradisuari egon eta bat-batean hiltzen.

INOIZ ESANGO EZ NEUTSUZAN SENTIMENTUAK

*Egilea: Emma Albizu
HHI-EPA*

Gure amaren sabeletik heltzen gara mundu honetara.

Zure gurasoek heziketa eta gizarteko baloreen bitartez, zuri irakasten ahalegintzen dira.

Txiki txikia zarenean sentitzen duzuna egiten duzu, txarto edo ondo dagoenik pentsatu barik. Jarraitzen dira urteak pasatzen eta orduan gizartearen influentzia somatzen duzu.

Pertsona batzuk haurtzarotik konturatzen gara ezberdinak garela. Baina ez zara konsziente zer suposatu leiken zure bizian. Heziketa kulturalagaitik kanonetatik irtenez gero mamorrua zara.

Orokorrean, jendeak ez du ulertzen besteok ezberdinak izatea. Beste era baten esateko: “ Artaldetik irtetea”.

Ni neu konsziente naizenetik beti sentitu naiz juzgatuta nire ezberdintasunagaitik.

Zoriontasuna topatzen ari naiz, eta ez dot sentitzen imitatzeko beharrik. Norberak bere bizitza dauka eta, ez dauka soberan horregaz ala?.

Nire gurasoek eurek pentsatu duten heziketarik onena eman didate. Eurek ez dute euki gida bat gurasoak izateko: Nola izan aita edo ama zure seme-alaben nortasuna hil barik?.

Niri ere ez didate azaldu zelakoa izan behar naizen.

Hirurok, gurasoak eta nik, ahaleginak egiten ditugu elkarri irakasteko eta batak besteengandik ikasteko.

Nire iritziz, norbaitek dana dakiela edo eta, inorengandik zer ikastekorik ez daukala uste duenean, erdi hilda dagoela ematen du. Ikasteko prest bazaude, momentuz-momentu, egunez-egun, aberasten joaten zara.

Orain galdetuko duzue: Zer esan nahi diguzu kontatzen ari zarenarekin? Egia esanda, ez daukat oso argi : Niretzako bizitza zer den esan nahi dizuet soilik.

Interesgarria izatea espero dut eta batez ere zeuentzat aberasgarria. Aurrera ba!

Nere haurtzaroa azalean daramat, inoiz ezin izan dut ulertu, eta agian inoiz ezin izango dut, zergaitik ezberdina izateak, ezberdin pentsatzeak, halako sufrimendua dakarren.

Besteen bizimoduak, pentsamenduak, Zergaitik izan behar du hobeagoa?

Zure jarrerak ez badie besteei kalterik egiten, Zergaitik traumatizatu behar zaituzte?

Eta gainera nerabezaroa moduko momentu garrantzitsu baten. Zergaitik?

Zelan ahal izango duzu zure autoestima gehitu behatzean puntan baldin badaukazu?

Adibidez: Zelan zagoz? “Ondo nagoela esaten dut besteek barrerik ez egiteko”.Ez zaizue triste iruditzen? Neuri bai. Azken finean zu zeu izateko nahiko gatxa daukazu. Ez dozue hori pentsatzen?

Zuk besteak errespetatzen badituzu, Zergaitik ezin dozu egin sentitzen dozuna?

Besteei ez zaielako ondo iruditzen, zeu erreprimetuta biziko zara? Ba EZ , besteek erreprimetuta bizi badira, eta ez badira ausartzen bizi nahi duten modura bizitzera, haien arazoa da eta ez nirea!

Baina azkenean, neurearekin irteten naiz.

Erabakia hartu dot: Nire bizia nahi dot bizi, ez zait inporta besteen interpretazioak.

Orain sexualitateari buruz egingo dot berba:

Egun baten, konturatzen zara zure sexuzko pertsonakin fijatzen zarela, gustokoak dituzula eta galdetzen diozu zure buruari: Orain zer egin behar dut? Homosexuala izango ote naiz?.

Hau ezinezkoa da, erratuta nago! Zer esango du jendeak nitaz? Lehenengotan kostatzen zaizku, baina gero gutxi-gutxika joaten zara zeure burua onartzen.

Eta azkenean heltzen da zure gustoko neska bat agertzen den eguna. Baina klaro, gizarte honetan ez dago ondo ikusita zeure sexuko pertsona batez harremanak edukitzea.

Ez dizute errespetatzen zure orientazio sexuala. Oraindik okerrago: Zuk ez baduzu zure burua onartzen upielako trauma probokatu al dizute.

Eta oraindik aldrebesagoa, ez bazara sentitzen identifikatuta talde baten edo beste baten: Homosexualak, lesbianak edo heterosexualak. Zergaitik ezin zaizku pertsona bat gustatu sexuan fijatu barik?. Agian zu ez zara fijatzen genitaletan, garrantzizkoagoa da zuretzat pertsonalitatea. Zergaitik ez?

Konklusioa: zoriontsu izan nahi baduzu, besteei ezin diezu kasurik egin. Zure bihotzeko izarrei eta ilargiari egin behar diezu kasu, bestela galduta zaude.

Bizia norberena da, zure burua maite baduzu, zeure eskuan dago zoriontsu izan eta bakean bizitzea. Libre jaio zinen eta libre biziko zara zure barruko sentimentuei kasu egiten badiezu.

Askatasuna eta maitasuna gure barnean daude.

Bihotz-Bihotzetik.

PAULAREN IZARRA

*Egilea: Oiane Zendagortagarza
HHI-EPA*

Disdiratsua zen zeruko izarra, milaka urte arinago sortu zena Paulak orain ikusten zuen leiho hartatik. Pentsamenduetan zegoen barneraturik eta hura ikusi zuenean poztasuna nabaritu zuen. Bazekien bere bizitzan desagerturiko pertsona guztiek nonbaitetik, bera ikusten zutela.

Oheratu zenean lo egiteko arazoak izan zituen: hurrengo eguna garrantziskoa zen eta herri berri batera bizitzera zihoan.

Esnatu bezain pronto atera zen ohetik ikastetxe hura agurtzeko gogoaz. Domeketako arropak jarri zituen familia berriak dotore ikus diezaioten.

-“Ez egin negarrik Miren! Badakizu zutaz gogoratuko naizela, oso ona izan zara nirekin baina heldu da joateko garaia.”

-“Bai Paula, ez ahaztu hemen duzula zure betiko laguna. Idatziezaidazu laster, badakizu gutuna denbora asko iraun behar duela nire eskuetara heltzeko, Ameriketa oso urrun bait dago. Agur Paula!”

-“Agur Miren! ... eta lasai egon, argazkiak ere bidaliko ditut!”

Bere maleta hartu eta Felixek portura eramanean zuen. Heltzear zuekenean ikaragarritzko itsasuntziak ikusi eta Paulak lehenengo aldiz gorputzean zehar bildurra nabaritu zuen arren aurrera jarraitzeko asmorik ez zuen galdu. Untziaren nagusiak ongi etorria eman zion eta bidaia hasi zen.

Itsasuntzia oso handia eta dotorea izanik ere, ez zuen sendoa ematen itsaso handi-handi horretan. Bidaia ez zen berak uste zuena, denak zebiltzan batera eta bestera lanean gelditu barik. Orduak igarotzen zituen kapitainaren gukamaioarekin hizketan, baina honek beti errepikatzen zituen gauza berdinak eta azkenean asperturik bukatzen zuen.

Gauak lasaiagoak izaten ziren eta bere familia berriaren itxurak pasatzen zituen. Ana Marik esan zioenez, Euskaldunak ziren jatorriz, Ameriketako Californian zeukaten etxea, aspaldi urrea aurkitu eta

aberastuta han geratu ziren bizitzen. Semeen zain zeuden baina ez zirenez heltzen neskato bat adoptatzea erabaki zuten.

Euskal Herritik Ameriketara joateko Paulak bidai oso luzea zuen baina lur berriak ezagutzeko gogoz beterik zegoen. Gau batetan lo zegoela zarata gogor bat entzun eta untzi gainera abiatu zenean hankak bustita zituela ikusi zuen. Konturatu zenerako bere gauza guztiak galduta zituen eta uretan murgildurik zegoen.

Esnatzean ez zekien non zegoen, itsasbarraskilo bat besterik ez zuen ikusten, hareak gorputza estaltzen zion eta hotz sentitzen zuen. Orduak bota zituen han etzanda konortea galduta, andere bat agertu arte.

-“Nola duzu izena polita?”

-“Pauu.....”

-“Trankil nere bihotza, nik lagunduko dizut une latz honetan. Nire etxera eramango zaitut baina bihar goizetik alde egin beharko dozu.”

Andereak etxera eraman zuen, esan zuen bezela, baina lekua benetan bihurria zen Paularentzat. Bere bizi guztian ez zuen halakorik ikusi; etxe zahar hartan animaliak ziren gehien, saguzarrak, beletzarrak, katuak... Ohea bazen bere gustokoa eta andereak itxi zizkion erropak zerbait berezia zuten. Edan zuen edabea ez zen goxoa baina ona zen ur gatzituaren zaporea ahazteko. Hobetu zenean, anderea hizketan hasi zen baina

Paula ordurako oso harriturik zegoen. Sorgin baten etxean zegoen!

Ez zuen ulertzen bizitza hain aldakorra zenik. Goizean altxatzerakoan bazekien joan behar zuela baina hasierako beldurra ahaztuta, emakume haren ontasuna ikusi zuen.

Paulak bere familia berria aurkitu behar zuen eta zein herritan zegoen galdetu zion andere sorgintxoari. Honek Salem-en zegoela argitu zion eta lokomotora hartu beharko zuela Californiara heltzeko. Baina ospa egin aurretik ordaindu egin behar ziola adierazi zionean ontasuna galtzen ari zela iruditu zitzaion. Paulak ez zuen zerekin ordaindu anderearen zorra ezta bidaia. Akaso familia berriak galdu egin zela ikustean bera hastuko zuen eta guzti hau pentsatzen zuen bitartean negarrari eman zion.

Hainbeste ur edan zuenez negarrak uholdeak eragin zuten itsasoan eta sorgintxoak bere botereak erabili behar izan zituen guzti hura gelditzeko:

-“Uraren emana geldi dezala, sorginek horrela nahi bezala!”

Honek gelditu zituen uholdeak baina ez Paularen tristura. Horretarako sorgintxoak bere eskuetan zaldi dotore eta magikoa jarri zion.

- Zure laguna izango da eta hegaz eramango zaitu zure etxera baina jakin behar duzu bizitzako zorionak merezi behar direla eta egun honetan zerbait egin behar duzula zaldi magiko hau erabili nahi baduzu.

Paulak ez zekien zer egin eta berriro negarrez hasi zen. Oraingo hontan uholdeak gogorragoak izan ziren eta sorgintxoak magia erabili behar izan zuen.

-“Uraren emana geldi dezala, berriro bueltan itsasora, sorginek horrela nahi bezala!”

Paulak orain ez zekien zer egin. Californiara heltzeko irrikitan zegoen, baina lotsatuta lurrean jazarri zen pentsatzera. Konturatu zenerako loak hartu zuen berriro. Leku hartan egunez gauzak politagoak ikusten ziren, tximeletak hegaz, txoriak abesten, loreen usain goxoak eta belarraren biguntasunak “kao” utzi zuten Paula.

Orduan ametsetan hasi zen; bere zaldi magikoarekin zegoen hegaz: zuria, handia eta dotorea. Bazuen honek buruaren erdian adartxo bat eta hau ere magikoa zen. Gustora zegoenean zarata batek esnatu egin zuen . Itsasontziko guakamaioa zen! Ez zuen gustokoa baina ezaguna zen edozerk alaituko zukeen Paula.

- “Harea!, Madarikatua!”-errepikatzen zuen guakamaioak behin eta berriro.

Ikutzerakoan luma asko galdu zituela nabaritu zuen eta bere kolore argiak ilunagoak ziren ur gatzituaren ondorioz. Papparrean boltsatxo bat zeukala ikusi zuenean, arrantzale batek kontatu zion historia gogoratu zuen. Boltsaren barruan pirata bateri ostu zion altxor bat zeukan, baina inork ez zuen zekula ikusi ere egin. Guakamaioa jakintsua zen eta bere bizitzarekin defendatzen zuen altxorra. Denek uste zuten ez zela benetako altxorra, baina Paularentzat azkenengo aukera heldu zen sorgintxoari ordaintzeko.

Loritoa korrika hasi zen eta Paula bere atzetik; Bost kilometro egin zituen, zuhaitz batera igon, harri baten inguruan hamabost buelta , lokatzaren gainera erori zen eta dena ezertarako ere ez.

Azkenean guakamaioari boltsa erori zitzaion, biak joan ziren bertara korrika eta bata bestearen buruarekin txoke egin zuten. Azkenean lortu zuen boltsa eta sorginarengana abiatu zen. Heldu zenerako, ez zuen boltsaren barruan zegoena oraindik ikusi. Ireki zutenean, ahoa irekita gelditu ziren. Benetako altxorra zen, tigre famatu baten urrezko hagina. Sorginak, barretsu txistua jo zuen eta zaldia agertu zen. Paula, gainera igo eta hegaz hasi ziren; ezin zuen sinetsi gertatzen zitzaiona, bidearen hasieran zaldiak lekuetako izenak eta gertaerak azaltzen zizkion, paradisuan zegoen eta bere ametsak errealitate bihurturik zeuden., Oakland, Phoenix, Tucson... denak ikusi zituen, Californiara heldu zen arte. Ez zekien nola aurkituko zituen bere gurasoak baina jeitsi zirenean lurrera, zaldiak alde egin zuen eta bere atzetik koloretako disdirak utzi zituen, benetan politak Paularentzat.

Disdiratsua zen zeruko izarra, milaka urte arinago sortu zena, Paulak orain ikusten zuen lur berri hartatik.

Pentsamenduetan zegoen barrenaturik eta hura ikusi zuenean, poztasuna nabaritu zuen.

Bazekien bere bizitzan desagerturiko pertsona guztiak nonbaitetik bera ikusten zutela.

ADIMENAREN ALDE ILUNA

Naiara Ordorika Guenetxea
DBH 4. maila

Odolez estalitako buru bat, gorputzik gabea. Bere ardatzarekiko bira ematen. Gero eta bizkorrago eta bira bakoitzean itxuraldatuago. Ahotik odola dario. Hurbiltzen ari da gelditzeko asmorik gabe eta irribarre larderiatsu batekin. Azkar doa bere bidetik. Hurbiltzen. Jadanik hemen dago..

Supituki Alexandrak ohetik salto egin zuen. Izerditan blai zegoen eta arnas estuka zebilen. Taupada arinak zituen eta bihotza bere tokitik irten beharrean zeukan. Hotz handia nabari zuen gorputz osoan zehar eta dardarka zegoen. Negar egiten hasi zen eta bere malko gaziak masailetik irristatzen ziren, azkenik, burkoaren aurka talka eginez. Gau hartan ez zuen begirik itxi.

Dena hasi zen 1997ko ekainaren 15ean. Arratsaldero bezala Alex Salzburgoko ilunabarrari begira zegoen leihotik. Zeru gorrixkak eta betiereko elurraz estaliriko mendiek bat egiten zuten hodeiertzean ikuskizun ezin ederrago bat osatuz. Begirada aurreko eraikinera jaitsi eta Andrea Mancini ikusi zuen. Mancini gizon jator eta langilea zen, arropa denda baten jabea. Ez zeukan emazterik eta egun guztia bere etxeko tailerrean ematen zuen lanean. Diru aldetik ongi zebilen eta ez zituen familiarteko arazoak. Bapatean emakume bat Manciniren atzean jarri zen, eta igurtziak ematen hasi zitzaion. Segituan Mancinik, bira emanez, lasai asko besoa altxatu zuen eskuan aizkora handi bat zeukalarik eta...zast! Emakumearen burua moztu zuen errukirik gabe. Odol tantak leihoa apaintzen zuten gortina urdinean ziprirtindu ziren, hilketaren tokia agerian utziz. Hiltzaileak ez zuen denbora asko behar izan dena lehen bezala uzteko, ezer gertatu izan ez balitz bezala.

Alexandra paralizatuta gelditu zen. Ezin zuen sinetsi ikusitakoa. Ez zekien zer egin, oihuka hasi, kalera irten, poliziarri deitu edo, besterik gabe, bertan gelditu. Bere ahotik ez zen hitzik ateratzen. Beldurraren beldurrez mutututa gelditu zen. Gorputz osoa teinkatuta zeukan eta indar ezezagun batek orkatilatik helduko balio bezala, ezin zen mugitu. Bururatu zitzaion

gauza bakarra ezkutatzea izan zen, zer gertatuko litzateke hiltzaileak ikusiko balu? Ohe azpian sartu eta isiltasun osoan geratu zen.

Gaueko bederatziak ziren eta Alex ohe azpian zegoen oraindik. Norbait hurbiltzen zitzaiola entzuten zuen, astiro zihoan pasabidetik eta horrek are urduriago jartzen zuen. Gela iluntasun osoan zegoen eta pertsona ezezagunak atea pixka bat irekitzean argia zirrikitutik pasatu zen Alexandraren aurpegia argituz. Bere heriotza gertu ikusten zuela eta, begiak ixtea erabaki zuen. Segundu batzuk pasatu ondoren atea guztiz ireki zen pertsona baten itxura aurrean zuelarik. Nerabea, ezezaguna nor zen ikusten saiatu zen, baina, argiak itsututa, ezin izan zuen lortu. Heldu zen bere bukaera. Bapatean gelako argia piztu zen. Jane Swaiz zen, Alexen ama. Enpresako lana bukatzetik zetorren, Salzburgoko enpresa garrantzitsu bateko idazkaria zen eta berandu iristen zen etxera. Alaba ohe azpian aurkitu zuen. Aurpegia hilotz batena baino zuriago zeukan haurrak eta begiradarengatik ez zegoela bere onean ohartu zen Jane. Neska erabat izututa zegoen eta ahots mehe eta etenaz gertatutako guztia kontatu zion bere amari. Jane zur eta lur gelditu zen gertakizuna entzutean eta ezinezkoa egiten zitzaion hura sinestea. Bururatu zitzaion lehenengo gauza Crisek, Alexen ahizpa nagusiak, umeari beldurrezko pelikula bat jarri ziola izan zen, edo txantxa bat, baina Cris lagun baten etxera joana zen lo egitera.

Hurrengo goizean Swaiz andereak alaba pediatrarengana eramatea pentsatu zuen, baina Alexek ez zuen etxetik irten nahi. Oihuka hasten zen kalera irtetzera behartzen zuenean amak, eta bortizki jokutzen zuen. Azkenean sendagilea joan zen beraien etxera. Azterketa sakon bat egin ostean eta gauean izandako amets gaiztoa xehetasun osoz entzun ondoren, medikuak, Alexandrak gurasoen dibortzioaren ondorioz sortutako trauma bat zeukala azpimarratu zuen. Neskatzaren gurasoak aste bat lehenago banandu ziren, baina familia giroa atsegina zen. Alex, bere ahizpa Cris eta amarekin bizi zen eta Mario, aita, astean behin ikusten zuen. Janek medikuak agindutako pastilak erosi zituen eta ez zion aparteko garrantzirik eman alabaren egoerari.

Poliziek Andrea Manciniren etxea arakatu zuten, baina ez zuten hilketari buruzko inongo frogarik aurkitu eta gizona aske gelditu zen. Denek errugabetzat jo zutenean Mancini jaunak Salzburgotik alde egin zuen hiltzailea zela agerian utziz. Ikertzaileek emakumearen gorpua etxeko zenbait hormetan laurdenkatuta aurkitu zuten eta Alexek esan bezala burua moztuta. Biktimaren zatiak usteltzen hasiak ziren. Beraietatik jasanezina zen kirats bat irtetzen zen eta burua ebaki zion tokitik odol tantak erortzen ziren, banaka, geldiro, marmolezko baldosa gainean putzu gorri bat sortuz. Ikertzaileen aurpegiak hildutu egin ziren, zuritu, eta aho zabalik zeuden

ikuskitzen naskagarri hura ikustean. Edozeinek pentsatuko luke Freddy Kruegerren hilketariko bat zela. Egun batzuk geroago Andrea Mancini Italiako iparraldean aurkitu zuten hilik, bere buruaz beste egin zuen arbola batean urkatuta.

Ondorengo egunak infernuan eman zituen Alexek. Ez zuen lorik egiten eta etxetik mugitu gabe egoteko ideiarekin tinko jarraitzen zuen. Gainera begitazio ugari edukitzen zituen, bere gelako leihotik begiratzen zuenean norbait horman zehar igotzen zihoala pentsatzen zuen, logelara sartzeko ahaleginak eginez. Baina kanpoan ez zegoen inor, etxe aurreko zuhaitza zen kalean zebilen haize ahularen ondorioz bere hostoak harro mugitzen zituen. Alexandrak bere besoak ubeldura eta urraduraz beteak zituen eta Janek ez zekien zerek eraginda ziren. Umea jasaten ari zen trauma eraman ezina zen eta psikologo batek begiratzea erabaki zuen Janek. Psikologoak ubeldurak ikustean amak tratu txarrak ematen zizkiola pentsatu zuen, baina ez zegoen frogarik. Frogak aurkitzeko asmotan, sendagileak esanda, poliziek etxe guztian zehar kamara ezkutuak jarri zituzten.

Aste baten buruan ubeldura eta urraduren zergatia aurkitu zuten. Alexek gauean edukitzen zituen amets gaiztoen ondorioz ohean zegoelarik astinaldi gogorak ematen zizkion bere gorputzari, zoratuta balego bezala, eta horren ondorioz besoekin oheko ertzaren aurka jotzen zen edota gaumahiaren aurka. Arazo horren aurrean Alexek oheari lotuta ematen zituen gauak ez baitzuen psikiatrikoan lorik egin nahi eta Janek ere hala nahi zuen.

Lehengo ametsa ez ezik, beste bat ere edukitzen zuen. “Baso ainubetsu eta ilun batetik zihoan korrika. Atzetik norbait zuen segika, baina ez zekien nor zen, oinak baino ez zitzaizkion ikusten. Gero eta bizkorrago korritzen zuen ez harrapatzeko. Baso bakartia zen eta lurra hezetasunarengatik apotz zegoen. Zuhaitzek eskailera amaigabeak ziruditen, bata bestearen ostean pasatzen, eta bertan ileak puntaz jartzen zituen ixiltasun urduri bat nabaritzen zen. Atzera begiratu gabe aurrera jarraitzen zuen korrika, baina supituki lurrean zegoen ihartutako enbor batekin estropezu egin eta lurrera erortzen zen konortea galduz. Konortea berreskuratzean kobazulo ilun eta heze batean aurkitzen zen. Harroka baten gainean zegoen etzanda, loturik. Paretak irudi satanikoz beterik zeuden, pertsonak beso eta hankarik gabe, aurpegiak begiak aterata, antikristoak... Aurpegi beldurgarria zeukan gizon bat zegoen aurrean. Ebatondo ugari zeukan eta zoro baten begiak, zabal-zabalik, zain gorriak ikusten zitzaizkiolarik. Eskuan zeukan labaina zorroztua altxatu, irribarre maltzur

bat eskaini eta...” Amesgaizto hau behin eta berriro ikusten zuen, bai lo zegoenean eta bai iratzarrita ere, bere paranoiatariko bat bezala.

Aspaldian Alexandrak Salzburgo inguratzen zuten mendietatik eguzki gorria, egunsentiko ganduak lausotuta, astiro jaikitzen ikusten zuen. Paisaia zoragarri horrek ez zion eguna alaitzen eta beti bezain isilik eta goibel zegoen. Janek ez zekien zer egin 11 urteko alabarekin, ezta nola jokatu ere pasatzen ari ziren egoera zailaren aurrean. Jadanik Austriako psikiatra, psikologo eta psikoanalista ospetsuenak pasatuta zeuden Alexen trauma aztertzetik. Denek gauza bera esaten zuten, desoreka emozional bat zela eta Alexandrak bere burua beldurrari aurre egiteko ezgauza ikusten zuela. Horregatik bere autoestima oso baju zeukan. Ama lur jota zegoen, ez zekien zer egin haurrarekin eta ez zitzaion komenigarria iruditzen Alex psikiatriko batean sartzea zoroago jartzeko arriskua antzematen baitzuen. Arazo guzti honen aurrean Jane pertsonalitatezko krisi batean sartu zen eta Alexekin batera erietxean ingresatu behar izan zuten. Bere buruaz beste egin nahi zuen alabarentzat ama txar bat izan zela pentsatzen baitzuen, baina erizain batek galarazi zion izugarrikeria hori aurrera eramaten. Aste bat eman zuten bertan. Bitarte horretan Crisek aiton-amonen etxean ostatu hartu zuen, eta familiaren konpainian arazoa eramangarriagoa egin zitzaion.

Alexandra piztia arraro bat bezala hartzen zuten eskolako “lagunek” eta gurasoek beraien seme-alabei bisitan joatea galarazten zieten. Alex eta bere familia isolatuta sentitzen ziren, munduaren lekurik ezkutuenean aurkitzen zen uharte bakarti batean biziko balira bezala. Egunak amaigabeak egiten zitzaizkien. Minutuak orduak ziren beraiantzat eta orduak, berriz, egunak. Janenentzat erremediorik onena denbora pasatzen uztea zen. Bitartean Alex bere mundu galduan zebilen, ez zuen hitzik egiten, janaria jaurti egiten zuen, eta gauzarik txarrena, ez zen bere buruaren jabe. Adimena utzik zeukan, eta batzuetan gauza izugarriak egiteko jokaera hartzen zuen. Behin, sukaldeko plater eta edalontzi guztiak apurtu zituen eta bere gorputzean ebakidura txikiak egin. Egoera tamalgarri hura ikusita Janek, nahiz eta konbentziturik ez egon, Alex psikiatriko batean sartzea erabaki zuen eta, psikologo espezializatu baten gomendioari jarraituz, Polonian aurkitzen zen munduko psikiatrikorik onenetariko batera eramatea pentsatu zuen.

Alex kotxean eramatea arriskutsua zen bere zoroaldiren batek jota istripu bat eragin zezakeelako, eta polizi furgoneta batean eraman zuten zaintzaile batzuen ondoan. Egun oso bateko bidaia astuna izan zen, nahiz eta paisaia zoragarri batekin inguraturik egon. Salzбургoko gazteluak, kale estuak, Danubio ibaia... atzean uzten zituen Alexek eta horren orde

lautada zabal eta berdeak ageri ziren. Baina ikusmena alaitzen zuen bista hori laister bukatu zen eta psikiatrikoko horma zuriak nagusitu. Bertako hezetan nabariak eta etengabeko ixiltasunak bakardade itxura ematen zion eraikinari.

Bitartean, Jane eta Crisek Vartsoviako alde zaharrean kokaturiko pisu batean ostatu eman zuten. Berehala hurbildu zitzaizkien auzokideak eta era guztietako galderak egiten zizkieten. Azkenean denen ahoetara heldu zen Alexen familia jasaten ari zen arazoaren berri. Jane eta Cris kaletik paseatzen zebiltzatela pertsonen begirada zorrotzak nabaritzen zituzten eta labainak balira bezala sartzen ziren bihotzean. Laister ikasi zuten pertsona zital haiei kasurik ez egiten.

Medikuek Alexek sei hilabeteko egonaldia egin behar zuela psikiatrikoan baieztatu zuten eta Janek Alexandra Feuerbach Institutuan matrikulatzea erabaki zuen ikasturteko azken hiruhilabeterako. Institutuan jakin-min handia sortu zen ikasleen artean, baina bereziki Floriant izeneko mutiko batengan. Bera oso mutil azkar eta galanta zen, baina ez zeukan lagunik. Vartsoviako kaleetatik bakarrik ibiltzen zen, inoren konpainiarik gabe, eta egun batean Alexen familia bisitatzera joatea bururatu zitzaion. Jane eta bera lagun handiak egin ziren eta Floriantek arratsalde guztiak Alexi buruzko gauzak entzuten ematen zituen. Janek lasaitasun osoz kontatzen zizkion mutikoari interesatzen zitzaizkion gauzak eta gaztea adi-adi edukitzen zuen entzuten, ipuin bat kontatzen arituko balitzaio bezala. Sei hilabete pasa ondoren Floriant irrikatzen zegoen Alex ikusteko.

Psikiatrikotik irten zenerako Alexandrak 13 urte zeuzkan. Aurpegia alaitasunez beterik zuen eta jadanik bere trauma guztiz menperatua. Etxera heldu zenean bertan aurkitu zituen Jane eta Cris pozez negarrez eta besarkada gogor bat eman ondoren Floriant aurkeztu zuten. Mutikoa lotsatuta zegoen. Ez zuen imaginatzen Alex horren neska liraina izango zenik eta gorri-gorri zeukan aurpegia. Eskuak dardarka zeuzkan eta hitzak totelka esaten zituen. Alex harrিতa geratu zen, zoroetxetik irten ostean lagun bat edukitzea ezinezkoa iruditzen zitzaion, eta Floriant neba bat bezala hartzen zuen. Ordutik aurrera lagun handiak egin ziren.

Psikologo eta zoro inguratuta egon zen denbora guztian galdutako ikasketak berreskuratu beharra zituen eta Floriantek ahalegin guztiak egin zituen Alexek aurrera jarraitzeko. Traumarekin ere lagundu zion, bere nahigabe guztiak entzuten zituen eta hori gutxi balitz beldurrari aurre egiten ere lagundu zion. Beldurrezko egoera imaginario batzuk planteatzen zizkion Alexi eta honek nola jokatuko lukeen erantzuten zion. Laguntza haren bitartez Alexandrak bizitza normal bati aurre egiteko kemena lortzea

ez ezik, beldurrari aurre egiten ere ikasi zuen eta hilabete batzuen buruan Floriant neskatxaren mutil-lagun bihurtu zen. Gertakizun honen aurrean Alexek eta bere familiak Vartsovian bizitzen gelditzea erabaki zuten eta beraiei aita, Mario, elkartu zitzairen. Urte berean gurasoak berriz ezkondu ziren Alexi zorion pixkat emateko helburuarekin eta familia giro polit bat eskaintzeko asmotan.

Feuerbach Institutua toki atsegina zen, eraikinaren aurrean zuhaitz mota ezberdinetako belardi bat hedatzen zen eta kirolak praktikatzeko zelai ugari zituen. Gelak handiak ziren eta irakasleak ezin atseginagoak. Baina ikasturtea hasi bezain laister arazoak hasi ziren. Gelakideek ezin zuten ulertu Alexen egoera eta beldurti bat zela aurpegiratzen zioten. Irakasleek neskatilari zuzendutako irain hauen aurrean neurriak hartu zituzten eta Florianten laguntzarekin denboraldi txarrari amaiera jarri zioten. Ikasle batzuek hartutako zigorren ostean Alex klasean erabat onartua izan zen eta berak izandako gaitzari buruzko txantxak pazientziaz hartzen zituen bazekielako ez zutela asmo txarrez egiten.

“Fox” zineman nago eserita, nire aldamenean mutil-laguna dudalarik. “Fausto 5.0” pelikula ari gara ikusten, Goethe artista alemaniarrek XVIII.mendean sortutako “Fausto” obra ezinhobean oinarritutako filmea. Dagoeneko 15 urte dauzkat eta ipuin bat iruditzen zait azken lau urteetan gertatutako guztia. Psikiatrikotik irten nintzenetik bizitza berri bati hasiera eman nion eta orain amets eder baten barruan murgilduta banengo bezala sentitzen naiz. Floriant izan da nire euskarri nagusia eta berari esker nago horren ondo. Egoerak izugarrizko bira eman du nire baitan. Beldurrezko filmak dira gustokoen ditudanak, batez ere *gore* asko daukatenak. Gero eta makabroagoa izan, hobeto. Morbo asko sortzen didate! Pantailan hilketa bat aurkitzen denean gorputz osoa tentsioan jartzen zait eta egoera horretan nik zer egingo nukeen imaginatu ostean indar guztia askatzen dut beste ikusleekin batera oihu eginez. Berdin zait besteek ez badute oihu egiten eta gero barre algaraka hasten badira, nire esperientziarekin hori da ikasi dudan beste gauza bat, besteek nitaz esaten dutenari kasurik ez egitea. Badauzkat etorkizunerako eginkizun batzuk pentsatuta ere, psikologia ikasiko dut, gertatu zaidanaren ondoren nik pasatutako egoeran dauden pertsonen laguntzeko gogoia baitaukat. Orain bizitza ahalik eta ondoen aprobeztatzen saiatuko naiz eta orainean baino ez dut pentsatuko, atzera begiratu gabe. *C'est la vie*.

AMODIOA USTEKABEAN GALTZEN BAITA

*Egilea: Miriam Llona Moreno .
DBH 3. maila*

*Amodioa edonon aurki dezakezu,
baina, hala ere, ustekabeen gal dezakezu.*

Bira alde batera, bira bestera... Horrela eman nituen ordu batzuk, ohean etzanda, ezin lorik egin. Momentu horietan, denori gertatu zaizkigun momentu horietan, ez nekien zer egin, beraz, argia piztu nuen nire logelatik irtetzeko esperantzarekin.

-Ah! Amatatu argi hori, begietako mina ematen dit eta –esan zuen Estherrek lokaturik.

Esther nire ahizpa da. Hamalau urteko neska erdi-zoro horietako bat da; beti maitemindurik dauden horietakoa. Egun osoa ematen du bere lagunekin, mutilei buruz hitzegiten eta beraien artean erropak aldatzen. Ezin ditut bere jokaera horiek jasan eta horren ondorioz egun osoa ematen dugu gure artean zirikatzen, iraganbidetik korrika.

Lehengoari bueltatuz, argia itzali nuen eta ahal izan nuen bezala logelatik irten nintzen. Egongelara joan nintzen. Bertan nire gurasoak zeuden, sofa gainean lokaturik, telebista pizturik zeukatela. Zarata handirik egin gabe beraingana hurbildu eta amaren eskuetatik telebistako mandoa hartu nuen. Kanale guztiak aztertu nituen, baina ez zegoen ezer interesgarriarik, beraz, amatatu egin nuen.

Egongelatik atera nintzen, nire logelara itzuliz. Atea ireki eta argia piztu nuen.

-Berriro ez, Ana! Amatatu argi hori!

-Orain amatatuko dut, minutu pare bat baino ez ditut behar –esan nion pijama erantzi eta gona bat janzen nuen bitartean.

-Nora zoaz?

-Ez zaizu ardura, Esther. Lokartu zaitez!

-Bai, lokartuko naiz, baina zuk hobe duzu arazoetan ez sartzea, bestela amak...

-Ez naiz arazoetan sartuko, baina utz nazazu bakean. Agur! -esan nion haserraturik.

Ordurako guztiz jantzita nengoen, beraz, argia itzali eta logelatik atera nintzen. Egongela ondotik igaro nintzen eta, gurasoak esnatu gabe, kalera irtetzea lortu nuen.

P P P

Oso berandu zen; gauerdia igarota zegoen ordurako, baina ni han nengoen, kale erdian gau euritsu hartan, hurrengo egunean, klasera joateko, zazpietan esna beharra neukan gau hartan.

Ez nekien zer egin, aspertuta nengoen. Eskua poltsikoan sartu nuen eta bertan dirua zegoela konturatu nintzen. Dirua atera eta kontatu egin nuen: 345pta zeuden; 2euro baino pixka bat gehiago. Orduan, dirua ikusterakoan, ideia bat bururatu zitzaidan: metro batzuk aurrerago kafetegi bat ireki berria zen, zergatik ez joan?

Euria zenez, korrika hasi nintzen eta segundu batzutan kafetegi aurrean nengoen. Sartu egin nintzen. Kafetegia gaur egungo gehienentzuekoa zen, baina sartzetakoan, beste kafetegi batzuetan inoiz sentidu ez dudana sentimendu arraro bat somatu nuen; sentimendu hura bertan zegoen musikaren eraginez sentitzen nuen. Musika atsegina zen: atzerrikoa, lasaia, ia ulertzen ez ziren amodiozko esaldiz osatua..., eta nik gustoko nuen.

Barrararte hurbildu nintzen. Bertan ez zegoen inor, beraz, zutunik geratu nintzen, isilpean. Bapatean mutil gazte bat agertu zen tabernaren beste aldetik.

Mutil ederra zen: hamazazpi urte inguru edukiko zituen, azal beltzarana zuen eta itsaso urdinaren bezalako begiak. Bezero bat zela uste nuen, baina bapatean, barra barrura sartu eta niregana hurbildu zen.

-Zerbait nahi al duzu? –galdetu zidan ahots goxo batekin.

-Koka-kola bat, mesedez -Isilik geratu ginen koka.kola jarri zidan arte-.

-Eskerrik asko –esan nion.

-Zuri –erantzun zidan. –Gaua alaitu didazu eta.

-Nik? –galdetu nion lotsaturik.

-Bai, zuk. Asperturik nengoen taberna huts hontan eta bapatean zu agertu zara. Zu bezalako neska politak eta atseginak ez dira askotan agertzen eta gutxiago goizaldeko ordu hauetan. Nola duzu izena?

-Ana. Eta zuk?

-Ni Koldo naiz. Badakit izen arraroa irudituko zaizula, baina Euskal Herritik etorria nago eta bertako izenak, badakizu –azaldu zidan.

-Bai, badakit. Nik ere senideak ditut Euskal Herrian.

Momentu horretan kafetegiko telefonoak jo zuen. Koldok itxaroteko esan zidan telefonoa hartu behar zuela eta. Barraren beste aldera joan zen, bertan baitzegoen telefonoa. Bitartean nire burua pentsamendu arraroz bete zen; zerbait berezia sentitzen nuen Koldorengan, maitemindu egin nintzela uste dut. Nire begiek bere gorputzean finkaturik zeuden eta egiten zituen mugimendu guztiak jarraitzen zituzten.

Ez zen denbora askorik igaro Koldo bueltatu zen arte. Niregana hurbildu zen eta, berriz ere, hizketan hasi ginen.

-Barkatu, nire nagusia zen.

-Bakatuta zaude.

-Barkatuta banago ez zaizu arduratuko galdera bat egitea, ezta?

-Bota, ba.

-Ba al duzu nobixorik? –galdetu zidan poltsikotik zigarro paketea ateratzen zuen bitartean.

Ezetz erantzun nion. Guztiz lotsaturik nengoen, baina , hala ere, emozioz bete nintzen, ez bainuen sekula ere galdera hura espero. Koldorekin irten ahal izatean pentsaturik, nire bihotza inoiz baino indar gehiagorekin taupatzen hasi zen.

Zigarro bat eskaini zidan. Hartu egin nuen eta berarekin batera hasi nintzen erretzen. Momentu horretan behar nuen gauzarik aproposena zen. Tabakoak lasaitu egiten nau eta une hartan lasaitzea behar nuen ezer baino gehiago.

Isilpean geratu ginen eta zigarroa erdixka neukanean, eskua hartu eta zera esan zidan.

-Inoiz ikusi dudan neskarik ederrena zarela uste dut.

-Zu ere ez zaude batere gaizki –esan nion bera ere lotsatu nahian.

-Nahi baduzu...

Ez nion esaldi hura bukatzen utzi. Zigarroa bota eta nire aurpegia berarenarekin elkartu nuen eta segundu gutxitan gure ezpanak elkartu eta jolasean hasi ziren.

Ordurarte eman nuen musurik goxoena zela uste izan dut beti. Ez dakit zenbat denboraz eduki genituen gure mihiak jolasean, baina azkenean banatu egin ginen, isilean geratuz.

-Gustatu zaizu? –galdetu zidan segundu batzutara, erdi lotsaturik.

Ni ere lotsaturik nengoen, baina baietz esan nion.

Koka-kola amaitu nuen eta joan beharra neukala esan nion. Ordaintzeko esan nion, baina ez zidan dirua onartu. “Piko”bat eman ez agurtu ginen eta hurrengo egunean bertan elkartuko ginela esanez, kafetegitik atera nintzen.

Kalean oraindik euria zen, baina nik ez nuen sentitzen, nahikoa nuen Koldorengan pentsatzearekin, ez neukala batere gogorik nire gainean erortzen ari zenaz arduratzeko.

Uste baino askoz lehenago etxeko atarian nengoen. Sartu egin nintzen eta aurrez-aurre aurkitu nuen erlojua: goizaldeko hirurak ziren! Egongelan ez zegoen inor; nire gurasoak oheratuta zueden ordurako. Nire logelara iritsi nintzen. Oraingoan argi piztu gabe sartu nintzen. Ohea deseginda zegoen eta gainean nire pijama. Ez nuen batere gogorik arropak erantzeko, baina bustirik zeudenez, ez nuen beste erremediorik izan. Pijama jarri nuen eta ohe gainera bota nintzen, nire pentsamenduetan murgildurik.

PPP

-Esther, mesdez! -Estherrek argi piztu zuen, eta oraingoan ni nintzen kexuka zebilena.

-Ez, Ana. Ez dut amatatuko. Ez da nire errua zuk lorik ez egitea.

-Mesedez, Esther. Bost minutu besterik ez.

-Ez, altza hortik. Bart ez zenuen batere gogorik lo egiteko, eta orain, zer? Logurea dago, ezta? Gainera, nora joan zinen?

-Ez dizut esango eta hobe duzu amari ezer ez esatea.

Estherrek zerbait esan zidan, baina nik ez nion entzun. Ohetik altza nintzen, hurbilen nituen arropak jantzi eta gosaltzera joan nintzen. Inork ez

zidan nire irteerari buruzko ezer galdetu, beraz, Estherrek baino ez zekien gertatutakoa.

Gosaldu ondoren, Estherrekin batera, institutorako bidea hartu nuen. Goizeroko ibilbide bera egin genuen, baina niri ezberdina iruditu zitzaidan: nire burua beste mundu batean zegoela ematen zuen, oraindik ez nuen sinesten aurreko gauen gertatutakoa eta gainera ahaztuta neukan ahizpa ondoan nuela.

Institutura iritsi ginenean bakoitzak bere gelarako bidea hartu genuen. Nire gelara sartu eta aurrez-aurre aurkitu nituen nire lagunak. Ez nuen batere gogorik haiekin egoteko, beraz, agurtu eta nire lekuan eseri nintzen, gauean gertatutakoa aztertu nahian.

Nire lagun gehienak ez zuten nire falta somatu, batek baino ez: Sarak. Niregana hurbildu zen eta aurpegian nabarmentzen zitzaion arduratuta zegoela.

-Zuri zerbait gertatzen zaizu, -esan zidan -niri ez didazu ondo zaudenik esango.

-Ondo nago, baina norbait ezagutu dut eta sinetsi ezinean nabil.

-Nola? -arraroa iruditu zitzaion, arinagoko eguna berarekin pasa bainuen. -Konta egidazu dena orain bertan.

-Bart ezin nuen lorik egin, beraz, nire etxetik hurbil egin duten kafetegi berrira jaitsi nintzen... -guztia kontau nion eta amaitu nuen unean maisua sartu eta ezin izan genuen jarraitu.

Nik banekien Sara harriturik zegoela, baina ezin izan zidan ezer esan. Lehen hamar minutuak bata besteari begira pasa genituen, irribarreka, eta azkenean maisuak kalera bota zigun. Gure lagunek ez zekiten zer ari zer gertatzen Sara eta nire artean, beraz, gurekin erdi-haserratu egin ziren.

Kalean egotea ondo iruditu zitzaigun, behintzat bertan hitzegin ahal genuen. Klaseak bukatu ondoren Koldorengana joango nintzela esan nion eta Sarak suerte handia neukala erantzun zidan, berari ere gustatuko zitzaiola hain egoera arraro batetan Koldoren moduko mutil bat aurkitzea.

PPP

Arratsaldeko hiruretan bukatu nituen klaseak eta, Esther lagunekin utzita, Koldorengana abiatu nintzen. Ibilbidea ez zen oso luzea, baina ni oso urduri nengoen eta horrek luzeagoa egiten zuen.

Azkenean iritsi nintzen. Kafetegi aurrean nengoen, beldurturik. Ez nintzen ausartzen sartzera, baina buruari buelta batzuk eman ondoren sartu egin nintzen. Oraingoan bazeuden bezeroak eta horrek lotsatu egiten ninduen. Ez zegoen inor barran, baina ni hurbildu egin nintzen, Koldo edonondik ager zitekeela pentsatuz.

Bapatean berrogei urte inguruko gizon bat hurbildu zen nigana, Koldoren nagusia zen. Zerbait nahi al nuen galdetu zidan.

-Ba al dago Koldo? –galdetu nion. –Berarekin geratua nago.

-Ana zara, ezta?

Baietz erantzun nion. Urduri nengoen; ez zen batere normala Ana al nintzen galdetzea.

-Koldo ez dago, ustekabean bueltatu behar izan da Euskal Herrira. Hau eman dit zuretzat –esan zidan poltsikotik gutun bat ateratzen zuen bitartean.

Gutuna hartu, gutunazala kendu eta nire barnerako irakurtzen hasi nintzen:

“Ana maitea:

Sentitzen dut alde egin behar izatea zu hobeto ezagutu gabe. Hala ere, badakit neska azkarra zarela eta nire egoera ulertuko duzula.

Famili arazoak direla eta, nire herrira bueltatu behar izan dut gaur goizean. Ez dut nahi izan zutaz agurtu biontzako egoera larria izango zela jakin dudalako.

Nahiz eta urruti egon, oso urruti, beti edukiko zaitut bihotzean eta espero dut zuk ere ni ez ahaztea.

Beti zurea,

Koldo”.

Malkoak masailean behera erortzen hasi zitzaizkidan eta tabernako nagusiak mukuzapi bat luzatu zidan.

-Sentitzen dut, badakit mutil jatorra zela.

-Bai, oso jatora –erantzun nion.

Bertan, ez nuen ezer egitekorik, beraz, nagusia agurtu eta etxera joan nintzen, negar zotinka.

PPP

Hurrengo egunak oso gaizki igaro nituen, batez ere Sarari gertatutakoa azaltzerakoan, gezur bat baino ez zela uste baitzuen.

Hala ere, denborekin Koldo nire bizitzaren pasarte baten moduan gordetzea lortu nuen. Orain, kafetegi aurretik pasatzen naizen bakoitzean bere arnasa sentitzen dut, gure arteko musua berbizitzen dut eta koka-kola eta zigarro zaporea etortzen zait ahora. Gauza bera gertatzen zait kafetegian zegoen musika entzuten dudanean.

Gaur, kafetegitik igarotzerakoan, nagusia hurbildu zait. Bere etxera iritsi den gutun bat eman dit. Koldorena da eta nire izena darama gutunazalean. Datorren astean datorrela, ni ikusteko irrikitan dagoela...

Pozez zoraturik nago. Koldo ikusiko dut eta ziurrenik eman geratuko da betirako. Hala ere, oraingoan, ez ditut hainbeste ilusio egingo, amodioa ustekabea galtzen baita.

AHAZTU EZIN

*Egilea: Amaia Jauregizar
Batxilergo 1. maila*

1.Negu gorriko egun batean
zugana egin ez salto,
lotsa gainezka ta zenbat keka...
baina bihotza edarto.
Kanpoaldean graduak gitxi
Nire barrenean asko,
Urtarrileko zeu zarelako...
Ez ete gara berebiziko
Lagunak alkarrentzako?

2.Maitasun kontu danak ataraz
zure aurrean argira,
garai batean gau ilun zana
zugaz argitzen ari da.
Hurrengo hauxe bilakatu jat
Etengabeko desira:
Kale itsusi honetan bere
bion fereken segida...
toki arruntak beti zurekin
berezi bihurtzen dira.

3.Jaungoikorik ez zegoela nik
uste izan neban tinko,
halan da bere irudipenak
inoz ez dira betiko.
Erlijinoa aintzat hartzea
bihurtu jat orain ohiko...
argi dagona gaurkoan ez dot
hemen zalantzan jarriko:
MAITASUNA dan jaun goren hortan
Zelan ez dot sinetsiko?

4.Bananduta be zugaz batera
azkenaldian burua,
maiteminduta nagoela da
oso gauza segurua.
Zure barruan alaiki nabil
Zure barruan galdua
sentimenduak adieraztea
goxo nire helburua:
emoziozko negar malkoak
dira zure ispilua.

5. Aintzat hartuko dozulakoan
nik zuri argi esana,
jada egin dot zapaturako
Bilbo alde hortan plana:
Kafe Antzoki barrura sartu
hartuaz Cola-Cao bana
eta kakaoz busti alaiki
gure barreneko dana...
ea iraunkor bihurtzen dogun
gure arteko harremana.

6.Morrosko, lerdin, gazte, garaia,
ule baltz eta argala,
jada niregan sartu deustazun
argia eta itzala,
nire bihotza berotasunez
samurtuaz berehala,
zure muskulu sentikor hortan
babestuz nire makala...
iruditzen jat maitatu ahala
handiagotzen doala.

7. Sentimenduen mapa dabilkit
zutaz pentsatuz behargin
era hontara jarraitu daian
darabilt hainbat ahalegin
zu zara nire bizi poza ta
zu nire maite atsegin,
egun guztian buruan zaitut
nahita bere ahaztu ezin...
ezer be ez jat gogoko orain
ez baldin bada zurekin.

8. Ondino bere gogoan dot nik
gure lehen besarkada,
ahaztezina egin nahi baina
itzala zan abiada.
Zeozar gehiago egingo gendun
Pentsatuz: "a ze ikara!"
Momentu hartan esandakoa
Barriz esan nahian hara:
"mundu hontako arantza bako
larrosa bakarra zara".

ERANTZUNEN BILA

*Egilea: Izarne meabebasterretxea
Batxilergo 1. maila*

Gaua zen, ilargi betearen eragin nabarmenean guztiok murgildurik. Nire ile luzeak begitartea gozoki laztantzen zidan haize hotzaren indarpean higituz. Larunbat hartan tabernak guttiz beterik zeuden, jendea hara eta hona, baina hala ere, gure begiek zarata eta musikaren artean topo egiten zuten.

Berak neskalguna zeukan eta nik ezin izan nion nire bihotzari uko egin. Begiradak areagotzen zihoazen heinean, nire barneko sugarra handitzen joan zen. Denbora gutxidantik ezagutzen nuen, baina hala ere, zerbait berezia sentitzen nuela ohartaraziz, beldur eta odolestuaren nahasketa batean dardarka nengoen. Ezin nituen bere laztanak baztertu. Barre, txantxa eta hitz tartean gure eskuak bat egiten zuten, masailak gorristatzen ziren artean.

Nire lagun minak bazekien zer gertatuko zen eta milaka aldiz ohartarazi zidan nolako iskanbilan sartuko nintzatekeen sentitzen nuena egin ezkerro. Orduak aurrerantza zihoazela, zerua, puzkatutako ispilu bat balitz, miloika izar disdiratsuz josi zen.

Biok talde berberean geunden, zurrutean eta naturak galerazitako haragizko dantzan barneratuta. Bakarrik geunden jende artean, inor ikusi, ukitu, entzun eta sentitu gabe. Lagunek zerbait arraroa susmatzen zuten, baina gure nahia beraien begien aurrean gertatzen zena baino sakonagoa zen; batera egon nahi genuen.

Aitortzen dut; nik eman nuen lehenengo urratsa. Zuhurtasuna jada galdurik, nirekin etorri nahi zuen galdetu nion eta berak baiezkoa eman zidan. Jendetza, lagunak, musika, dantza, zarata, festa eta dena bertan behera utzita, inori ezer esan gabe, batera eta isilean aldendu ginen. Diskategiko atea atzean utzita, azkenengo aldiz, nitaz arduraturik, nire lagun minak mutil horrekin joateko ziurtasunean banengoen galdetu eta horrek ekarriko zizkidan arazoez ziurtatu zidan.

Baina nik ez nuen ezer aditzeko gogorik. Bihotzaren indarrak oinak mugiarazten zizkidan, ezagutzen ez nuenaren bilakaeran. Ez nekien nora nindoan, baina berengan konfidantza osoa nuen. Etxebizitza bateko

porlanezko atari batean eseri ginen, haize bolada izoztuen ondorioz, erasogarri ginen ukimenean, gorputza dardarka jarritz.

Hizketan orduak aurrerantza zihoazen gure arazoak, pentsamenduak, sentimenduak batak besteari azalduz. Bera ni baino egoera txarragoan zegoen, neskalgun hura burutik pasatzen zitzaion bakoitzean traidore sentituz. Begirada orlegi hura, itsasoko olatuek atxen kontra astintzen zuten bezela, behelaino urtsu bat betseinetan uzten zioten, bihotzean minberatasun negargarri bat sortuz. Baina gure gogoia indartsuagoa zen eta esku jolasean barneraturik musukatzen hasi ginen, bihotza haragiaren gosean zabalduz.

Sentimenduak sendotzen zihoazen heinean, goizaldeko eguzki izpiak agertzen hasi ziren. Zeruak arrosa tonuera hartu zuen eta lainoek, gugandik ihes egiten zuten; bitartean gure begiak itsuturik, konponbide baten zain.

Goizeko ihintzak, begien aurrean negar anpuluak ziruditen, lore eta landareetatik noiz erortzeko zain. Porlanezko atari hartan bi geunden, baina gure pentsamenduetan hiru ginen. Sentimenduen desoreka hartan, etsipen eta zorigaitzaz ihesi nahian elkar besarkatu genuen, bere bihotza inoiz baino gertuago edukiz. Musu eman genion elkarri, gehiago inoiz ikusiko ez bagintza bezela beldurturik eta gozotasun hura handituz, besarkadak, musuak, ukipenak grin bihurtu ziren.

Kontzientziak ez zituen gure ekintzak mugatzen. Nire barnean nuen, bat egirik, elkar maitatzen. Lehenengo txorien doinu paregabeaz, gorputzak igurtziz beraien erritmora. Barnekaldean hotzikara zorrotzak bero sentitzen nituen; abeslari haien bezela hegan, baina nik ordea, hegorik gabe. Bere izerditan igeri, barne suak itotzen ninduen. Biok geunden eremu txiki horretan, bapatean, izugarritzko sutea sortu zen, gure gorputzak hezetasunez bustirik beratuz.

Irabazita sentiarazten nintzen, amildegi ertzetik, paradisuatik, estizko amets hartatik esnatzeko beldurrez. Gozamen hura sinestezina zitzaidan. Nik nuen guztia eman nion arrazoi bakar bategaitik, bihotzez, arimaz eta gorputzez maite nuelako. Biluzik geunden, larru hutsean, baina laztanek azala berotzen ziguten. Hitzik esan gabe, begietara begiratuz ulertzen genuen elkar, hauts ezinezko komunikazio mota ezezagunean. Minutu bakoitzean milaka taupada sentitzen nituen, arnasestuka bere ezpain gorrietako gosea baketu nahian ahogozatuz. Momentu horretan ez nengoen ez lurrerako, ezta zerurako ere. Nire zentzuek ematen zidaten gehiengoan nengoen; mendirik garaienaren gailurrean, ene barnean leherketa miresgarri eta desirotsu bat gozatuz.

Agur esatean, bere begirada errukarriak bihotza urratu zidan, bi laban zorroztu balizkira. Noraezean, goibeltasun latz batek uholdatuta, nire begietatik udazkeneko hostoak bezalaze, negar malkoak isurtzen zitzaizkidan. Tristuraren itzalak harrapatu ninduen, nahitaezinaren mina sufrirituz.

“Maite zaitut eta ezin izango zaitut inoiz ahaztu” izan ziren bere azkenengo hitzak trenen geltoki hartako ate beltza zeharkatzen ari zelarik. Baina maitasuna, askoren ahotan hitz hutsa besterik ez zen, esanahirik gabekoa. Barnean, bihotzean, erpe gaiztoak somatuz, odol-hustuka, suminaren pozoia nire zainetan zabaltzen apurka-apurka, gorputz guztia bereganatuz sentiaranzten nuen. Ziuraski, arratsaldean bere neskalagunari deituko zion, gauez gertatutakoari, bere desagerpenari xuribide trakets eta faltsu bat jarritz. Une horietan zerurik baketsuena, infernurik gorrotagarrienean bihurtuko nukeen.

Egunak aurrerantza zihoazen heinean, nire barne sua baretuz joan zen, su epelean txingar bero batzuk bertan ahaztuz. Neguaren ilargiaren aldi guztiak igaro ziren nire begien aurretik, gau hartan gertatutakoaren lekuko bera bakarrik edukiz, isilekoa gordez. Egunak luze egiten zitzaizkidan, baina gauak oraindik luzeagoak ziren. Gaueko iluntasunean, lo egin ezinik, besteen arazoak entzuten hasi nintzen irratitik. Asko ziren ni baino egoera txarragoan zeudenak eta horrek, errukiaren lainoak estaltzen ninduenean, nire mina baretzen zuen.

Bere telefono zenbakia lortu nuen, baina ez zidan ezertarako balio izan. Ehundaka aldiz saiatu nintzen, telefonoa eskuan hartuz, beste eskua dardarka nuelarik atzamarrekin zenbakiak markatzen; baina bere ahotza urrutian entzunez gero, bihotza taupadaka hasten zitzaidan lehertzeko zorian jarritz eta orduan, eskegi egiten nuen. Legezkoa ez zen zerbait egingo banuen bezela, izerdi hotz batek gorputza zeharkatzen zidan.

Elurra ari zuen. Umeak izugarritzko panpin zuriak egiten zituzten abesti alaiak kantatzen zituzten artean. Zuhaitzetako, basoko eta zelaietako animalia guztiak desagertuak ziren; bakoitzak ahal zuen bezela berotuz eta bizia ateraz. Bai, halaxe zen; gabonak heldu ziren. Ni ez nengoen gogaldiko baina herri, enparantza eta etxe guztietan alaitasuna zen nagusi. Denak besarkadaka, denak musuka, denak zoriontsu eta ni denen artean isilik. Puxikak, txirikordak, zuhaitzetako argi disdiratsuak dena ederto baten zihoan. Gabon zahar gauean, bihotzak inoiz baino zabalago, jendea irrifartsu arazo guztiak ahaztuz, bizitzako azken eguna izango balitz bezela.

Kaleak hotzik ez zeukaten pertsonaz josirik zeuden. Tabernak guztiz beterik eta ni hauetako baten barnekaldean lagunekin dantzan. Baina bapatean, ikusmena galdu nuen itsu gelditu ote nintzen? Ez, ez nengoen itsu. Gau hartako mutila zen, bere esku hotzekin nire begiak estaltzen zituelarik. Begietara begiratu nionean nolana hikoia ez zen taupakada eman zidan bihotzak. Tripako heste guztiak bueltaka hasi zitzaizkidan, nire buruaren antzera.

Borondatezko gaua zen hura, zoriontasunez beterikoa. Nire begiek ilusioz beterik, bihotzeko sentimendu guztiak isladatzen zituen. Txingar epel haiek, berriz ere sute arriskutsu handi bat sortu zuten. Susperu nintzenean, bi musu eman nizkion eguna zorionduz. Ustekabean, gaua arruntez hitz egiten ari gineralik, ile kixkurreko neska gazte bat heldu zen guregana. Nik ez nekien nor zen, baina bere aurpegia ezaguna egiten zitzaidan; zerbaitegaitik ez zitzaidan eder egin. Bi musu eman zizkidan urte berria zorionduz eta mutilari aurpegitik gozoki hartu, laztandu, gauza ederrak esan eta ahoan musu eman zion.

Ez zegoen doinurik, isiltasuna zen nagusi, izozturik nengoen. Mina besterik ez nuen sentitzen, gorputzeko gihar guztiak gogorturik nituelarik. Bapateko zirimola bat azaldu zen nire barnean. Momentu hartan ez nuen hotzik, baina ezta berorik ere. Garaituta nengoen, bihotza guztiz hautsita. Begietan mina eta amorrua isladatzen zitzaizkidan, haur txiki eta errugabe bat izango banintz bezela negar egin. Sumendi bat izango banintz, nire odola borborka jarri zen. Onera bueltatzean, eskuaz aurpegiko isurki garden hura lehortu, neska eskutik heldu eta tiraka kalera atera nuen. Bi sastadaz bere biziak beste egin nuen. Geldirik zegoen lurrean, hilda. Amaiera sufrimenduari, amaiera gorrotoari, amaiera minari. Burua inoiz baino argiago neukan, ez nintzen zoratu. Zer dela eta ez dakit. Egin nuena jada eginda zegoen. Berak ez zeukan inolako errurik, baina orain ezingo zuen taberna barruan egin zuena berriz egin.

Gorrotoaren esklabu nintzen. Eskuak oraindik odolez beterik nituen ertzainak heldu zirenean. Isurki gorri hura zen amorru biziak egun hartararte laga egin zidan argia. Baina nahiz eta eskuak behin da berriz garbitu, zikinik geldituko ziren betirako.

Momentu horretan galdera asko nituen nire buruan. Gehiago lo ez egiteko arazoa zen hura. Baina zergaitiak ez zeukan erantzunik, ezta barkamenik ere.

Orain kartzelako ziega zikin, hotz eta amarauntu batetik bukatu gabeko liburu baten orrialdeak idazten hasi naiz. Gertatutakoa epaitegian aitortu behar eta horretarako lehenik idatziz jarri behar dut, gero nire

abokatuak aldaketa txiki batzuk egin ditzazen hemendik arinago irtetzeko. Neska nik hil nuen. Amorrua, sumintasuna, sua zen nire arimaren jaun. Pozoiturik nengoen. Nik mutila maite nuen eta orain ere, kate herdoildu hauen mirabe naizela, maite dut. Eta berak maite beharko nau.

ZERUKO AURPEGI BELTZARANA

*Egiea: Eunate Jauregui Baraiazarra
Batxilergo 1. maila*

1.- Gaua zuk daukazu azal laua
zeruko haran eder beltzaran
nola duzu kolore beltzexka
ekiarengandik hain banan?

2.- Ilunabarrean zure barrea
iluntzen doan ortze zabal ertzean
Iluntzearen ezpain gorriak ukituz,
musukatuz,
laztanduz,
gaua zure tinta iluna
gorrixkarekin batuz
maite duzula erakusten duzu
ezpainen kolore gorria
iluntasunean urtuz

3.- Azalean dituzun argi diztiratsuak,
guregana etorri nahiean
zure aurpegitik salto egin
eta distira galtzen dute
gureganako bidean.
zu bait zara distiraduna,
zu bakarrik
argi horien jabe
isla galdu egiten baita
zu gabe.

4.- Adi-adi naukazu hemendik behetik
Zeru eder, begira,
hitz egin nahi dizut,
gauetz ,
zurrumurruka belarrira

5.- Amandre zu zara izarra
gaueko begi bakarria
bestea, egunak kendu zizuna
zure bila dabil "Eki" bueltaka
baina ezin du menperatu eguna

6.- gauero,
bera aurkitzeko jaikita
ilgoran,
gora eta behera begiak irekita
urtero
aurkitzeari ezin utzita
ilbeheran
lo hartuz,
begia erdi itxita,
bere irudimenez
egin nahirik bisita

7.- Gaua zuk daukazu azal laua
zeruko haran eder, beltzaran
nola duzu kolore beltzexka
ekiarengandik hain banan?

8.- Adi-adi naukazu hemendik behetik
zeru eder begira,
hitz egin nahi dizut
gaez,
zurrumurruka belarrira

9.- Izaki gaiztoak esnatzen ei dituzu
baina egunak ez al zaitu zintzotu zu?
Ni behintzat zure babesean nago,
ziur sentitzen naiz,
eta zure esku leunen
esku jarri nahi nuke maiz.
Ez estali zure aurpegia
ez izan lotsorra,
zu zara eta inguruneko altxorra

10.- zure ile kizkur urdinduak
azal ederra tapatuta
zure ile luze harroak
zure begi bakarra ezkutatuta
bidali sobera duzun zure ile bakoitza
guregana zeru laztana
euri tanta bihurtuta

11.- Ile multzoak elkarrekin
korapilatuz,
ileei tiraka , orraztu ezinik,
minaren oihua botatzen duzu
eta tiraka askatu dituzun ileak
tximista bortitzez datoz guregana,
haserrea baretzean itzuliko naiz
zeru, berriz zuregana.

SUSTRAIAK MOZTEAN

*Egilea: Haizea Caminos Ikazuriaga
Batxilergo 1. maila*

Gogoko dut euriaren doinua. Nolakoak ote dira leku heze hau inguratzen duten mendiak? Aspaldi batean ahantzi nuen haien fereka, babesa. Nolakoa ote da lur bustiaren usaina? Dantzari arituko ote dira hodeien negar malkoak belar zirikatzaileetan? Ametsa al zen dena? Ez al da eguzkirik existitzen? Haren berotasuna irudimen hutsa al zen? Ez al da haizerik nabarmentzen? Haren gupidarik gabeko ziztadak pentsamendu soilak al ziren? Zer dago hor kanpoan? Zerbait al dago?

Gau hotza zen oso, leku hau nire egonleku bihurtu zuten hura. Euriak, gorputza ukabilkadez ziztatzen zidanak, bere ohiko doinua galdua zuen. Haize hotzak, nire ezpainak zulatu zituen, beraien irribarre eskubideak era batean ukatuz. Begiak lausoturik neuzkan, hitz ezezagunak entzuten nituen aldioro eta tutik ere ulertu ez arren ez ziruditen oso xamurrak zirenik. Arrotz egiten zitzaidan lekua, jendea eta hizkuntzaren parean. Gizon bizardun eta gihartsu haien ahoetatik ateratzen ziren hitzek etxetik urrun, itsasoaz bestaldean nengoela adierazten zidaten.

Goizaldean izerditan esnatu nintzen "eskerrak amesgaiztoa izan den! "esan nuen neurekiko. Bart gauean alaba gazteenak oparitutako hormirudia ikustekotan jaso nuen begirada. Larriki aritu nintzen hura aurkitu nahian, ezin ordea, ez baitzidan begirada ezerk mugatzen. Pareta pitzatu eta horituen artean aurkitu nuen neronen burua. Aurpegiaren tamainukoa ere ez zen leiho ñimiñoa, urruneko mendi tontorrek apenas ikustera mugatzen zidana, parez-pare nuelarik.

"Esnatu da eta loti ederra!" Hitz lehor haien uhinak jarraitu eta aldamenean nuen eta nire alaba izan zitekeen batengan erreparatu nuen irmoki. Betondoetan biltzen zen bere gorputzeko pisu gehiena. Haren zurbiltasuna bizitza atzean utzi zuenaren seinale zen, noiz galdu ote zuen bizitasunaren adierazgarri den kolorea? Noizbait hartu ote zuen begirada lasaigarriak bere begirada izoztuaren lekua?

Emakume beldurgarri batek atera ninduen nire psikologo ihardueretatik. Zeharbidean barrena eraman ninduten. Atzean utzi nituen deiar dar ozenak, negar hotsak, laguntza eskabideak. Gizonezkoen zeldetatik pasatzean ordea, gonbidapenak ugariak izan ziren, beraien sexu beharrezana nork asetuko zain zeuden denak. Goseak akabatu beharrean, harreman faltak eramango ziela heriotzera bidean zirudien. Aztoratuta zeuden denak, urteetan emakumezkorik ikusi ez balute bezala. Askok, beste irtenbiderik aurkitu ezean, mutilaguna aurkitu zuten gartzelan bertan, beharrezanak asetzeko. Gizonezkoen artean, asko ziren heterosexual bezala sartu eta homosexual izanik irtetzen zirenak.

Igarobideak bat-batean lortu zuen bere osotasuna. Emakume sendoak berehala heldu zidan nire eskutur meharretatik eta ia lekutik ateratzeko besteko tirakadaz, beira zurrunezko gelatxo batetara bideratu ninduen. Irudimena bide nuelarik eta zalantzaz beteriko une haietan, filmeetako gas toxikodun egonlekuak zirela pentsatu nuen bertan giltzapetu nindutenean.

Momentu horietan bizimodua hain iruditu zitzaidan laburra, ezen zerbaitetan pentsatu nahian hastean, bizitza guztia hiru- lau oroitzetan bil nezakeela konturatu bainintzen. Ez al nuen bizitza behar bezala aprobe txatzen eta bizitzen jakin? Tajuzko zerbait egin al nuen? Pena merezi al zuen?

Negar zotin batek atera ninduen supituki gogoeta mingots haietatik. Senarra zegoen han bestaldean, oraingo honetan elkar ukitzea galazotzen ziguna beira zelarik. Hamar urte gehiagoren zama astuna gainean zeramala zirudien. Begiak gorriturik zeuzkan, lo falta edo amorruren sua ote? Baliteke biak batera izatea.

“Minutu batzuk etxetik kanpo eta jada ganora barik!” Errieta egin nion, beti ere esana bainion, panazko praka beltz haiek marradun alkandora harekin ez jazteko. Negarrari eman zion eta etorri zen gisara desagertu zen hitzerdirik ere esan gabe.

Hura izan zen Jon ikusi nuen azken aldia. Hurrengo egunean gutun baten bitartez erran zidan aurpegiratzeko adorerik ere izan ez zuena. Bizimodua denontzat aldatu ei zen. Berak ezin omen zuen era horretara segi eta herritik alde egitekoa zela, ez saiatzeko bera bilatzen, nirekin pasatutako urteak izan zirela bere bizitzako zoriontsuenak, arriskutsuenak ere izan ziren heinean. Haurrak amonarenean egongo zirela....

Negarrari ekin nion, baina ez penaz gorrotoaren minaz baizik. Hainbeste denbora elkarrekin pasatu ostean denbora galtzen aritu ginela ohartu nintzen. Denbora: hain preziatua hain mugatua. Gure harremanak ez zuen baliorik izan, antzerki hutsa izan zen, dena gezurra. Zoriontsu ginela simulatzen genuen, elkar maite genuela, baina inoiz ez nituen nerabazaroko urte horietan sentitu ohi diren zirrarak dastatu. Gazteen kontua ote da kilika sentitzea akaso?

Izara artean nago, urteak daramatzat hauen ukitu pean. Nire malkoen aterpe izan dira, elkarrizketetan solaskide, neguko elurte gogorretan estalki, ezkutaleku beste askotan... Egia esan elkarren antz handia dugu. Aspaldi utzi genuen atzean biok ere sendotasun eta edertasuna.

Gaur nire oheko izaren lekuan sendoago batzuk, lixiba arrastorik gabeak aurkitu ditut. Zein izango ote zen nire lagunaren helmuga? Nirearen antzekoa, berbera agian. Beldur naiz gartzelatik irten eta zelda handiago batean giltzapetuta ez ote naizen aurkituko. Hamaikatxo epaile eta poliziaren aurrean epaitua izango naizen... Txutxumutxuak, gaizkiesanak kaleko edozein hegaletan, nire seme-alabek nire berri jakin nahiko duten... Ez nago ziur hemendik alde egin nahi dudana, bizitza gogor eta krudelari indarririk gabe aurre egiteko.

Barregarria dirudi, hau nire egonleku bihurtu zutenetik egunak, orduak, minutuak... kontatzen aritu izan naiz, helburu bakarra hemendik ahalik eta lasterren alde egitea nuelarik. Bidaia honetan ordea, isolamenduak odola zurrupatzean, aurrera egiteko indarririk gabe gelditzean, atzera jotzeko nahia piztu zait.

Tania ari da nire zorroa prestatzen. Berak hain gogoko duen Sarrionaindiaren poema ere idatzi dit nire egunerokoaren azalean, galduta sentituz gero izkribu hori baino gida argiagorik ez dagoela aitatzuz. Duda-mudatan aurkitzen naizen aldioro, hizki horiei estu oratzeko gomendatzuz.

Trenaren triki- traka hots lasaigarrian babestu nahian, berdeguneetara iristen ari naiz, herri eta baserri zaharrak noiz ikusiko zain. Mendien handitasunean babestuz, iragana oroitz delarik, baserritar bizimodu lasaia eramanez gura nuke. Mendiak ez dira ikusten ordea. Berehalakoan ireki dut makutoa, aldean daramatzadan hizkietan sendo eusteko.

*“Nekez uzten du bere sorterrria
sustraiak han dituenak.
nekez uzten du bere lurra zuhaitzak
ez bada abaildu eta oholetan.
Ez du niniak begia uzten
ez bada erroi eta arrubioen mokoetan.
Nekez uzten du gezalak itsasoa
ez hare harriak basamortua.
Ez du liliak udaberria uzten
ez elurak zuritasuna.
Bere sorterrria nekez uzten du
sustraiak han dituenak.”*

Heldu naiz nire sorterrria denera, ez nago ziur. Hau ez da orain dela urte pare bat nik hemen utzitakoa, edo baliteke ni ere lehengo bera ez izatea. Emakumeak harat eta honat dabilta kalean barrena inorekin hitzik zuzendu gabe, neguko elurra bezain hotz eta gabon giroko berotasuna galtzen utziz. Bakarrik nago, noraezean, etxean baina etxekorik gabe.

Kale kantoiko gasolindegira zuzendu naiz. Ogibitarteko hotz bat erosi dut beroago baten lekuan. Gartzelan, arratsaldero tertulian jaten genituenak bezain onak daude. Baina ez dut ohiko Harry petralaren kexurik entzuten bere seme axolagabeen gutunik jaso ez duelako, ezta garbitzailearen aldarriak gizonaekoak ikusi ezin dituelako, gogoan ditut funtzionario abeslariaren doinu atseginak, ostiraletako zuri-beltzeko filma beretsuak...

Aurpegia eztali dut segituan, pelikuletako gaizkileen antzera, gasolindegira sartu eta futbol partidua ikusten dagoen gizon lodikotea izerdi pittin bat botatzera behartu dut. Azaletik ere lurruna botatzen izan du izu ikaraz blaituta gelditu den arte.

-Gizona lasaitu zaitez, badakit hau zure bizitzako momenturik zirrargarriena dela, baina zure ilobei zeinen ausarta izan zinen kontatu nahiko diezu ez ba?. Zuri esker munduan kriminal bat gutxiago dagoela, zure etxea arimarekin defenditu zenuela...Beno berriro hasiko gara beraz. Sartzen naizenerako amenazuzko hitzak entzun nahi ditut, aditu?

- Geldi hor edo poliziari hots egingo diot!

- Ederki lodikote, azkar ikasten duzu zuk gero! Baduzu labainarik? Ederki, aurrera jarraituko dugu. Zabaldu kaxa! Orain, hartu poltsa sakon bat eta jarri duzun diru guztia bertan.

- Ez eman minik, emaztea etxean dut zain nire hiru seme-alabekin, hauek dira gure irabazi guztiak

- Oso ondo lodikote, paregabe egon zara, ia benetan sinestu dut antzerkia, emaztea duzula esan duzunera arte. Hori horrela balitz andreak ez lizuke eta oinetako zikin horiekin lanera etortzera utziko. Beno, orain hots egin poliziarri eta esan lapurreta egin dizutela.

- Andereino, hain gazte eta liraina izanik zergatik jokutzen duzu gaizkile bezala?

- Baliteke nire sustraiak hemen ez egotea.

Laster aditu dut sirena hotsa, auto eroso eta beroenean sartu eta ondorengoa jada ez zait ezezaguna suertatu. Taniaren aldameneko zeldan nago berriz ere, nire izara horituak lagun ditudalarik eta Sarrionaindiaren izkribua pareta pitzatuen arteko zementu delarik.

ODOLOSTERIK EZ

*Egilea: Maria Aranburu Landa
Batxilergo 2. Maila*

Agian, txikitan etxean bizi izandako egoerak eramango ninduen nire bizitzan zehar horrela pentsatzera eta pentsaera horren erruz une hartararte monotonian murgilduta bizi nintzen.

Izan ere aita eta ama hain zoriontsu ikusteak poza eta enbidia ematen zidan, ondo bizi ginen, ez zegoen kexatzeko arrazoirik eta nik horrela bizi nahi nuen, nire printze urdina aurkitu eta familia bat osatu nahi nuen, baina dena eginda etorriko zitzaidala pentsatzen nuen eta gauzak ez dira horrela.

Oso lotsatia naizenez, zaila egiten zitzaidan mutil batekin elkarriketa bat izatea eta are zailago hurrengo baterako geratzea. Hasieran, horren sortzaile nire itxurarekiko nuen konplexua ote zen pentsatu nuen, baina ez da horrenbesterako, agian sentitzen nuen lotsak seria itxura ematen ninduen eta horregatik lehen begiradan ez nuen oso atsegina ematen.

Bakarrik sentitzen nintzen, lagun gehienak mutilagunekin, batzuk sexu harremanetan murgiltzen hasiak ziren eta osteria ni eta beste gutxi batzuk neskezaharren kluba osatzeko papelak diseinatzen hasiak ginen. Nik uste Walt Disney-ko hainbeste pelikula ikusteak egin nindutela hain sentibera eta ahul, hain ameslari eta utopia zale.

Kuadrilako gehienek oso erromantika naizela esaten didate eta arrazoia dute, egia da. Maitasuna munduan dagoen gauzarik onena da, bikote arteko diot nahiz eta familia eta lagunartekoa inoiz galtzen ez denetarikoa izan. Azken aipamen horretan dago gakoa eta bikote arteko maitasunaren funtsa, azken harreman hori egunero zaindu behar da eta galtzeko arrisku horrek ematen dio nolabaiteko atrakzioa sentimenduari. Bikotearekiko maitasuna experimentatu gabe neukan, platonikoak bai ugari eta pittin bat gaizki pasatzen den arren ikaragarria da nola atsegin duzun pertsonak ezer jakin barik, zu beragatik edozer egiteko prest azaltzen zaren, bera konturatzen ez den arren, lotsatu egiten zara, gorritu, hankek dardar egiten dizute...Sentimendu hauetan murgilduta, txarrena eta aldi berean

onena une horretan bera ikustean bihotzaren taupadak azeleratuz doazela nabarmentzea da, bihotza tokiz irtetera doala pentsa araziz.

Azken sentimendu platoniko hauek nire monotoniaren parte bat ziren, gainontzekoa astero gauza bera egiteak osatzen zuen. Astelehenetik ostiralera institutura joaten nintzen, horretarako goiz altxatu beharra neukan, egunaren arabera sei edo zazpi klase izaten genituen eta bukatzean etxera. Ondoren bazkaldu eta arratsaldetan lanak egin eta telebista ikusten nuen. Larunbatetan kalera ateratzen nintzen lagunekin eta astea bukatzeko igandeetan baserrira joaten ginen amona eta aitona bizitatzera.

Eskerrak uda iritsi zela eta honi esker kurtsuan zehar jasandako monotoniari agur esan genion eta udakoari ongietorri, niri eta beste batzuei denboraren pasoaz piska bat jasangaitza egiten zitzaigun, hori bai, mila bider nahiago genuen udako rutina kurtsokoa baino.

Ez dakit nola etorri zen aldaketa, baina egun batetik bestera gauzak aldatu behar zirela pentsatu nuen, nazkatuta nengoen beti berdina egiteaz. Hasteko nuen lotsa hori desagertuko zela zin egin nuen, gerora bete ez nuen arren. Baina gauzak aldatu ziren eta dena odoloste otarteko bati esker.

Herriko jaiak ziren eta goizaldeko lauak, normalean ordu horretan gosea izaten dut jaietan eta festetan, tripek zarata egiten didate, beraz txorizo, solomo, urdaiazpiko, etabarreko otartekoak prestatzen dituzten postuetako batera joan nintzen. Harek jariatzen zuen usaina ez zen *eau de toilette* batena baina gosez dagoen urdailaren funtzionamendua izartu eta lehen horzkada sartu orduko liseriketa prozesua ziztu bizian hasteko modukoa bai.

Lotsa apur bat ematen zidan eskatzera joateak, ez bertan zegoen lodikoteak egiten zuen zaratagatik, hark lau haizetara zer jango zenuen zabaltzea oso atsegina ez zen arren, baizik eta odolostea eskatzera nindoalako. Negozioa ondo zihoakion otarteko saltzaileari, hurreratu nintzaion eta odoloste otartekoa eskatzearekin batera beste mutil batek berea eskatu zuen, kasu honetan hau ere odolostekoa. Kasualitatea izango zen goizaldeko lauretan mutil hark nirekin batera otartekoa nahi izatea eta honen nahia nirearen berdina izatea, odolostea hain zuzen ere, baina oraindik handiagoa izango zen odoloste bat baino ez zegoela konturatzean. Elkarri begira geratu ginen, ez dakit zer gertatuko zen odolostearekin, begiratu ginen unetik aurrera eszenatokia erabat aldatu zen.

Bat-batean tunel bat igaro nuen eta itsaso urdin batean murgildu nintzen, gaua zen arren itsaso haren kolore urdinak indarrez irabazten zion

bataila iluntasunari eta bertan erdi galduta aurkitzen nintzen zer egin ez nekiela. Arrotza egiten zitzaidan leku hura, ez zen herritik hurbil zegoen hondartzetako bat. Atsegina zen uretan egotea, harrigarria dirudien arren ez zinelako bustitzen eta gainera uda zenez inguruko tenperatura egokia zen.

Tunela aurkitzea irtenbiderik egokiena zela pentsatu nuen, baina ezin nintzen urgune hartatik irten, nire barnean zerbaitek nire tokia han zegoela esaten zidan, ziurgabetasun hark logikari partida irabazi zion. Han nengoela aprobetxatuz eta tunelera ezin pasatuz, inguruko iluntasun isilera joatea pentsatu nuen, baina zerbaitek hanka azpitik heldu eta uretan atxekitu ninduen. Bera zen, otarteko postuan nirekin batera eskatu zuen mutil hura. Oraingoan ongi begiratu nuen, ni baino piska bat altuagoa zen, bere ile kiribilduak gauaren eta itsaso urdin haren baretasunarekiko errebeldia ikutu bat azaltzen zuen, bere azal beltzarana nire zuriarekin kontrajartzen zen eta bere irrifarrak ilargiaren argitasuna itzaltzen zuen. Gure begiradetan lotsa eta urduritasuna nagusitzen ziren, baina aldi berean bata bestearekin egoteko desioa nabaria zen. Ez genuen berbarik egin eta bat-batean begiratzeari utzi genionean elkar helduta geunden, hain atxikituta geunden ezta Bin Ladenek ere bere hegazkinetako batekin ez gintuen banatuko.

Nire barnean era guztietako sentimentuak nahasten ziren: negargurea eta barregurea, urduritasuna eta berarekin nengoelako lasaitasuna, zarata egiteko nahia eta isilik egotekoa... bihotzaren taupadak oso azeleratuta zihoazen eta bere bularralde sendoa nirearekin kontaktuan egotean, haiek bere ziurtasunaz lasaituko zituela uste nuen eta hala izan zen.

Egoera erabat berria zen niretzako, gau hartan ostera beste zerbaitek dominatzen ninduen eta bat-batean elkarri musuka hasi ginen. Lehenengoz masailean eman zizkidan musuak eta txikitan aitak bere bizarrarekin musu ematean negar egiten nuen arren, bere okotseko ile haiek kili-kili egiten zidaten eta nolabaiteko plazerra sentiarazten ninduten. Gerora bere ezpainak nireekin elkartzean begiak itxi genituen eta egoera berezi hartaz eramaten utzi ginen. Itsaso misteriotsu hartako urak biluztu gintuen eta jaietako gaurik onena pasa arazi zigun. Lehendabizi berak gorputz osoa laztandu ninduen eta ostean neuk gauza bera egin nuen, gure gorputzak ordurarte busti barik zeuden, baina gau sutsu hartan izerdi guruinek ere bereari ekin zioten eta erremediaezineko izerdi atsegin ura jariatu genuen, bere usaina gogoko egin zitzaidan, usain trukaketa hark xarma ematen zion egoerari.

Ez nekien ezer berataz baina betidanik ezagutuko banu bezala sentitzen nuen, primeran pasatzen ari ginen eta berarekin ziur sentitzen nintzen, inolako arriskurik gabe.

Gauzak bere horretan jarraitzen zuen, besarkatuta geunden, bere beso sendoek nire lepoa igurtzitzean ezerk ez gintuela banatuko sinestarazi zidaten. Pasioa jariatzen genuen eta hain geunden berotuta non hurrengo pausoa ematera ausartu ginen nahiz eta esperientzia handirik ez izan, baina ordurartekoa oso ongi atera zenez, erraietatik gogor manifestatzen zitzaigunari kasu egitea erabaki genuen.

Barneratuta geunden itsaso hark etzantzeko aukera ematen zigun eta hori egin genuen, mutila, nire printze urdina, nire gainean etzan zen eta poliki-poliki gure organu sexuak elkar topo egitea bideratu eta bata bestearen osagarri bihurtu genituen. Min apur bat egin ninduen baina une hartararte munduko mutilik onena bera zela pentsatzen banuen, momentu hartatik aurrera argi neukan. Berak arnasten zuen airea izan nahi nuen, bere gaueroko ametsetan agertu nahi nuen, bere begiak zarratzean ni ikustea nahi nuen. Bateratuta geunden, bat ginen, itsasoa eta zerua bat eginak, gauak eguna behar duen bezala behar nuen, elurraren parte zurtasuna den bezala eta estiaren parte goxotasuna den bezala.

Gero, une atsegin eta ahaztezin hura bukatzean, banandu eta jantzi ostean berriro heldu eta izarrei begira geratu ginen, beti ere fantasiatzko itsaso haren gainean. Pasioa, desioa, maitasuna... arinago gozatu genuen guztia magiazko itsaso hartan zegoen murgilduta eta horien sentsazio atseginaz gustora geundela izarren eta ilargiaren konpainian, zarata batek magia hura hautsi eta solomo eta gainontzeko txerrikien usaina berrekarri zuen.

-Neska zer otarteko nahi duzu?

Berriro lehengo egoerara bueltatu nintzen, baina ez zegoen odolosterik, ezta mutilik ere. Dena nire imaginazioa izan zen, mutil hark zituen begietako betile luzeek tunela irudikatu zidaten eta haiek sakontasunean ezkututzen zuten urdintasunak itsaso hura imajinarazi zidaten. Gainera ni ilusio faltsuak eraikitzen ari nintzen bitartean hark odoloste otartekoa hartu eta ni ezer gabe utzi ninduen.

Oso larri jarri nintzen, arineketa batean asimilatzeke modukoa ez zela argi dago, apur bat lasaitu nintzen eta gizon lodikoteak bigarrenez zer nahi nuen galdetzean, “solomoa” erantzun nion. Kasualitatea ote zen? edo adarjotzea? beste mutil batek gauza berdina eskatu zuen aldi berean eta solomo bakarra zegoen, erabat haserretu eta handik joan nintzen. Zin egin nuen ez nintzela horrelako postu batera inoiz gehiago joango, gainera ordutik aurrera ez dut odolosterik jan eta ez dut inoiz gehiagorik jango.

Egia esateko gauzak ez dira larregi aldatu hasierako egoeratik amaierakora, baina orain , ez dakit zergatik, ezberdin ikusten ditut, lasaitasunez hartzen ditut eta baita umore onez ere.

BIZIA

*Egilea: Alazne Bustinza Chertudi
Batxilergo 2. Maila*

- 1).- Haizea,
hitz egiten didazu,
goxo-goxo,
ahopeka,
ixilean,
belarrira.
Noizbehinka
adarra ere jotzen didazu,
jostalaria zara.
Maitatua sentiarazten didazu
eta atsegin dut sentsazioa.
- 2).- Zuhaitza,
milaka beso dituzu
eta bakoitzean hainbat esku,
jostalariak.
Hoiekin laztantzen nauzu
eta baita besarkatzen.
Fereka eztsuak
sentitzen ditut
gorputz osoan zehar
eta horrek zoriontsu
egiten nau,
maitatua sentitzen naiz.
- 3).- Izarrak,
dir-dir egiten duzue
sabai eklipsatu horretan.
Begi disdiratsu,
boteretsu,
hoietara begiratzean
itsutzen naiz,
baina salbu sentitzen naiz zuen
begiradaren magalean,
babestuta.
Garrantzitsu sentiarazten
didazue,
maitatua,
ezinbestekoa
banintz bezalaxe.
Zuek bai ulertzen nauzuela
- 4).- Itsasoa,
gaur bare zaude, zure
olatu ñimiñoen zurrumurruekin
itxaropena dakarzu
nire hondartza baketsura.
Hitz atseginak
esaten dakizu.
Hemen gaude
biok,
bakardadean,
behin betiko leilaltasuna
dastatzen.
Atsegin dut
zugandik hurbil sentitzea.

5).- Sua,
bizkor eta beroa,
bihotzeko hotza
ezabatzen duena.
Zure aurrean
jarririk nago
goxo-goxo lotan
erori beharrean.
Zure sugarra da
ni besarkatzen nauena
eta baita
musu beroak
ematen dizkidana.

6).- Bizia,
amets zoragarrien
ondorengoa.
Egunero iratzarri
beharra.

7).- Orain,
haizea txistuka,
orroeka,
zure hitzik esan gabe.
Orain,
zuhaitza biluzik,
ihartuta,
ez dut zure ferekarik.
Orain,
hodei ilunak,
ez dago izarrik
ezta zure babesik.
Orain,
itsasoa haserre,
untziak portuan
eta ez dago itxaropenik.
Orain,
hautsa,
hotza besterik ez.
Non gelditu
dira zure
musu beroak?
Nork emango dit
behar dudan
maitasuna orain
bakarrik nagoela?

SARIA ESKURATU NUENEKOA

*Egilea: Alazne Bustinza Chertudi
Batxilergo 2. maila*

Atsegin dut uztaila. Benetan gustoko dut hilabete hori; oporrak, eguraldi goxoa, hondartza, ura, jolasa, jaiak, algarak... Sasoi honetan aske sentitzen naiz, inolako eginbehar eta lokailurik gabe.

Udaberri hartan ere irrikitan nengoen uztaila noiz iritsiko. Marrazki lehiaketa batetara aurkeztu bainintzen urte hartan eta nire ezusterako ni neu izan nintzen sarituatariko bat. Saria nire adineko beste bederatzi ikaslerekin penintsulan zehar bidaiatzea izan zen hilabete batez. Uztailaren erdialdean irtetzekoak ginen.

Azkenik ere iritsi zen hain gogoko nuen hilabetea. Bidaian joateko egun gutxi falta zirelarik urduritzen hasi nintzen. Hamazazpi urte nituen garai hartan eta ordurarte nire burua handi ikusi izan nuen, edozerri aurre egiteko indarrekin, baina eguna hurbiltzen zihoala kikiltzen hasia nintzen, ez bainekien uztailak 15ean autobusera igotzerakoan nortzuekin aurkituko nintzen; atseginak eta zabalak izango ote ziren ala alderantziz? Bestalde, ilusioz beteta nengoen bidaia hura egiteko eta esperientzia berriak bizitzeko. Izan ere, beti izan dut lagunak egiteko erraztasun handia. Egunak pasatzen ari zirela buruari buelta asko ematen ari nitzazkion, baina esan beharra daukat nire amak nik baino gehiago ematen zizkiola, badakizue amak nola jartzen diren beraien umetxoa etxetik at doanean. Aste bat lehenago aritu zitzaidan eramane beharreko guztia prestatzen. Harrigarria da beraiengandik urrundu behar garenean nolako ardurak hartzen dituzten beraien hurrei ezer falta ez dakien.

Hilaren hamabostean, arratsaldeko seirak inguruan, maletak hartu eta gurasoekin Donostiarantz abiatu nintzen, han hartu behar bainuen penintsulatik bidaiatzera eramango ninduen autobusa. Sari hark buruahuste ugari ekarri zizkidan, baina esan beharra daukat azkenean desiatzen nengoela bidaia hura egiteko. Donostiara heldu ginen. Ni gero eta urduriago nengoen, nerbioak aidean nituela eta azkenik, autobus geltokira heldu ginen. Ez nintzen iristen lehena izan, ordurako bazeuden zenbait pertsona geltokian eta beraien artean gure monitoreak izango ziren bi

neska-mutil gazte aurkitzen ziren. Hogeitabost urte inguru izango zituzten eta beranduago jakin ahal izan nuen bezala Arte Erderretako lizentziatura eskuratu berria zeukaten. Autotik ekipaia guztia atera genuen eta autobusaren alboan bilduta zegoen jende multzoarengana hurbildu ginen. Denek oso jatorrak ziruditen. Irria ahoan zutela agurtu gintuzten, baina nik oraindik hankak dardaka sentitzen nituen, ezin nuen nire gorputza kontrolatu eta irri inozo bat besterik ez zitzaidan irten. Nire gurasoek laster asko aurkitu zuten norbait hitzegiteko, beste sarituetariko baten aitarekin hizketan jardun zuten. Ni, bestalde, hauen atzean gelditu nintzen ixilik eta monitoreek hau ikustean segidan hasi zitzaizkidan hizketan eta galderak egiten, beraz berehalako batetan sartu nintzen taldeko elkarrizketan. Falta zirenak ailegatzen joan ziren eta guztiak bildu ginenean familia agurtzeko sasoia iritsi zen. Neska batzuen aurpegietan negar malkoak bereiz zitezkeen eta baita betaurrekoak zeramatzan mutiko ile argidun baten aurpegian ere, ahaleginak egin zituen arren inork ezer ez nabaritzeko. Niri aldiz ez zitzaidan egia iruditzen saria eman zidatela eta une hartan bertan abiatzen nintzela, beste hamaika ezezagunekin, inguru berriak ezagutzera. Ametsa zenaren sentzazioa nuen. Beraz, nik ez dakit, baina imaginatzen dut poker aurpegiarekin igoko nintzela autobusera, batek daki zer pentsamendu ari zitzaizkidan burutik pasatzen une hartan eta gainera uste dut ama ere ez nuela agurtu.

Jadanik, ordu bat generaman tramankulu hartan eta gure artean, taldeka hitzegiten hasiak ginen. Oso giro ona nabari zen eta laster ezabatu ziren melankolia aztarna guztiak gure aurpegietatik, denok nahi genuen suertatu zitzaigun aukera hura ahalik eta ondoen aprobeixatu. Autobusaren atzekaldean eseri zen neskak atentzioa deitu zidan ikusi nuen lehenengo alditik. Bitxia zen eta ixila. Gu baino nagusiagoa zirudien, helduagoa. Bizia gu baino gehiago bizi izan balu bezala jokatzeko zuen. Itxura gogorra zeukan, ezerk mindu ezin izango balu bezala. Baina nolabaiteko xarma zeukan, edo niri hori iruditzen zitzaidan.

Autobusean gindoazela elkar ezagutzen, gautu egin zuen eta hitzartuta egon zen bezala gaua pasatzen *Gijon*-era joan ginen. Han alberge antzerako batean geratu ginen. Normala zen bezala gau hartan inortxok ere ez zeukan lo egiteko asmorik eta monitoreak beraien gelara joan zirenean gu batu egin ginen pixka batean tertulian aritzeko. Egia esan monitoreek izugarritzeko gogoia zeukaten beraien logelara joateko (zergatik ote?), nekatuta omen zeuden. Lehen esan bezala guk gurean jarraitu genuen, elkar ezagutzen, bakoitzak nahi zuena esan eta galde zezakeen (nahi zuena...). Oso elkarrizketa atsegina izan zen gau hartakoa. Erdi ilunetan geunden, baina hala ere, hasieratik atentzioa deitu zidan neska bitxi haren, Nekaneren, begiak nire goputzean zehar senti nitzakeen. Apurka-apurka

nire gorputzeko bihurgune guztiak begiztatu zituen, lasai lasai, astiro. Ni aroro sentitzen hasia nintzen, baina gustatu egiten zitzaidan sentitzen nuena. Inoiz ez nuen sentzazio hura izan, kilimak bailiran bezala sentitzen nituen gorputz guztian zehar. Leihotik sartzen zen ilargiaren argi xumea bere begietan isladatzen zen eta bustita zituen ezpain haiek didir egiten zuten argi apal harekin. Nik ere ez nion begirik gaintetik kentzen. Aparteko mundu bat eraikia genuen gure inguruan eta ez genuen beste inork esandakoa entzuten. Bat batean erreakzionatzen hasi nintzen, bion mundu aldendu hartatik irtetzen. Kanpokaldetik hots arraroak entzuten hasi ginen, norbait ondo pasatzen ari zen. Leioa ireki eta bertatik begira aritu ginen. Bazirudien monitoreek lo egiteaz gain beste gauza batzuetarako gogo izugarria ere bazeukatela. Jolasean ari ziren. Iluntasun hartan ezin genezakeen gauza handiegirik ikusi baina imaginazio pixka batekin erraz irudika zenezakeen gertatzen ari zena. Biluzik zeuden, elkarren gorputzak ferekatzen, bata bestearen anatomia guztia aztertzen; behatzekin, eskuaz, ezpain busti eta haragitsuekin... Horrela goxo-goxo elkar maitatu zuten, gau simple bat gau ahaztezin bihurtuz.

Bat batean igaro ziren gainontzeko egunak. Herri, hiri, hondartza eta leku xeble ugari ezagutu genituen gure bidaiatxoan zehar. Ezagutu genituen leku ezberdin guztiek zerbait berezia zeukaten eta horrek miresgarriak egiten zituen guztiak.

Azken gaua hotel batetan igaro genuen. Logelak bikoitzak ziren eta niri hauetako bat Nekanerekin banatzea egokitu zitzaidan. Arraroa izan arren, hilabete guztian zehar ez nuen neska hura sakonki aztertzeko betarik izan, nahiz eta nahi izan. Ez zuen bere burua ezagutzera ematen. Oso neska berezia zen. Beti ere, hilabete osoan, begiradarekin besterik ez genuen jokatu. Beste kideak, aldiz, oso ondo ezagutzen nituen. Banekien bakoitzari zer gustatzen zitzaion, zer gorrotatzen zuen, zer pentsatzen ari zen..., hau normala da eguneko hogeitalau orduak pertsona berdinekin ematen baldin badituzu. Nekane, bestalde, beste era bateko neska zen, neska zaila zen, maskor sendo batez estaldua, errespetua inposatzen zuena, baina aldi berean bazenekien beragan konfiantza izan zenezakeela. Hitz gutxiko neska zen, misteriotsua, xeblea. Gutariko inork ere ez zekien gauza askorik bere bizitzaz. Guzti honengatik Nekane bere osotasunean, bere gorputza ere kontutan izanik, arreta handia pizten zuen nire barnean.

Gau hartan arin afaldu genuen guztiok eta arin joan ginen bakoitza bere logelara, hurrengo egunean bidaia luzea itxaroten baikeneukan. Ni logelara sartu eta pijama jansten hasi nintzen. Handik lasterretara Nekane sartu zen gelan eta ezer esan gabe balkoira irten zen zigarro bat erretzera. Berriz ere gelan sartu zenerako ni ohe barruan sartuta nengoen, pixka bat

nekatuta aurkitzen bainintzen, eta argia itzali zuen. Orduan apurka-apurka arropak nola eransten zituen entzun ahal izan nuen. Ohartu nintzen ez zuela pijamarik jantzi eta barruko arropetan ohean barrena sartu zela. Orduan ondorengo esan zidan:

- Oso nekatuta al zaude?.

- Ez, zer nahi duzu ba?- nahiz eta nekatuta egon horrela erantzun nion, oso urriak baitziren berarekin hitzegiteko aukerak. Gainera kuriositatea neukan ea zer zen esan behar zidana jakiteko.

Apur batean ixilik gelditu nintzen, harrituta gelditu bainintzen bere ahotsa entzutean eta honela jarraitu zuen:

- Beno, ez berdin dio, ahaztu eta egin lo.

- Ez nagoela nekatuta, benetan...- erantzi nion.

Orduan ni hasi nintzen hitz egiten, banenkielako berak ez zuela jarraituko eta denbora nahikoa eman genuen hitzegiten. Baina hala eta guztiz ere neska misteriosua izaten jarraitu zuen niretzat. Azkenerantza, nik bere ahotsa gero eta pausatuago eta goxoago nabaritzen nuen. Gero eta hurbilago sentitzen nuen nire ohetik, ni orduan larritzen hasi nintzen ez bainekien zer intentzio zeukan. Oso arraroa zen guztia niretzat. Bat batean bere eskua maingidre gainean sentitu nuen, izter gainean. Ondoren izara alde batera egin zuen. Gorputza astiro, leunkiro ukitzen hasi zitzaidan, lehenengo pijamaren gainetik eta ondoren barnealdetik. Ni geldi nengoen, ezin nuen gertatzen ari zena asimilatu. Beranduago ni ere jokoan sartu nintzen eta poliki-poliki pijama ere eransten lagundu nion. Nik berari igurtziak egiten nizekion eta berak niri. Ordurarte inork ez zuen Nekanek bezain ondo ulertu nire gorputzak behar zuena ondo pasatzeko. Momentu hartatik aurrera nik neuk ere banekien. Jolasa. Jolasa zen guztia, mugimendua. Oinetatik hasi eta izterrak, apurka hanka tartea, sabela suabe lastandu, ditiak, ezpainak... Dena astiro eta leunkiro. Bustia sentitzen nintzen baina gustora. Egoera hura bizitzan bakarra izango zela banekien eta ez zela berriz errepikatuko, ahal nuen guztia gozatu beharra neukan. Maitatzen ikasten ari nintzen. Nire gorputzak nahi zuena ematen ikasten.

Hurrengo egunean autobusa goiz hartu genuen. Nik bueltako bidaia osoa lo pasatu nuen. Hainbat ordu eman nituen amets goxoetan murgilduta. Bidaia hark gauza asko irakatsi zizkidan. Gauza positibo ugari atera nituen bertatik, baita lagun onak ere.

Donostiara heltzean, autobusa gelditzean, iratzarri egin nintzen. Leihotik begiratu eta han ikusi nituen nire gurasoak irria ezpainetan zutelarik eta han zegoen Jon ere, nire mutil laguna. Poztasuna sumatu nuen bere begiradan eta ni ere pozez gainezka sentitu nintzen hura ikustean.

Izugarri maite nuela ohartu nintzen. Autobusetik jaistearekin batera bere besoen beroa nabaritu nuen eta ahots leuna belarrian:

- Aupa Maite!

Atsegin dut uztaila. Benetan atsegin dut hilabete hori; oporrak, eguraldi goxoa, hondartza, ura, JOLASA, jaiak, algarak...

ZER ARI DA GERTATZEN EGOITZAN?

*Egilea: Amaia Korta
DBH 1. Maila*

1937. urtea-Yorkshire Dales, Ingalaterra

“*Eskualde zoragarria, benetan xarmagarria!*” - Hura zen Ingalaterrako York konterria deskribatzeko, Anna Burke-k, hogeituro urteko neskatxa galestarra, Green andrearen agindupean sukaldari gisa aritzeko zetorrena, aurkitu zuen modurik zehatzena. Ohituta zegoen, Gales-en paisaia ez da oso ezberdina, baina bera eremu menditsu batean bizi zen bertan, Lampeter hirian hain zuzen, beraz eskualde lau eta berde hura paradisua zen bere begientzako. Batez ere, Annarentzat behar zuen aldaketa suposatzen zuelako.

Anna Dales herrira zihoan, bertan Mrs.Green, itxaroten baitzuen. Hainbat urtez bere sukaldaria izan zena bat-batean desagertu baitzen, bi aste arinago. Annak aberats berri batzuen etxean ziharduen lanean. Osaba zahar eta aberats baten oinordekoak ziren eta senidearen heriotzaren ostean, enpresa txiki baten kontrola bereganatu zuten. Hiru seme-alaba txiki zituzten, Rose, Mary eta John. Kasualdidez, Annak erosketak egitera zihoanean Green House-n iragarkia ikusi zuen, eta Lampeter-en jasotzen zuen soldata txikia eta hiru haur zaratatsu haietatik ihes egin nahian, Mrs.Green-eri eskutitz bat idatzi zion, enplegua eskatuz. Korreoa nahiko motela zen garaia hartan baina azkenik Mrs. Martha Green-en erantzuna jaso zuen. “*Mrs.Green-ek ahalik eta arinen Dales-era bidaiatzea nahi du. Ezin dut sinetsi!!*” –aitortu zion bere lagun-minari, Sylvie Mousset sukaldari frantziarrari.

Handik bi egunetara, tren baten barruan zegoen, hatu eta guzti, etxe berrira heltzeko irrikitan. Bidaia luzea izan zen, eta gauez Dales-eko geraleku txiki eta zahartu hartara heldu zenean, abaildua sentitzen zen. Gainera, York konterriko negua oso gogorra zela bazekien, baina gau hartako ekaitza ikusgarria zen.

Geralekuan ez zegoen inor, eta oso berandu zen, hortaz, lo egiteko leku baten bila joan zen. Oinez, errepide zahar batetik ia kilometro bat egin

ondoren, herrira heldu zen. Ostatu zahar batera sartu zen. Emakume zahar bat ate batetik atera zen.

- *Berandu da. Zer nahi duzu? -galdetu zion ostalariak.*
- *Green House-ra joatea nahiko nuke, baina oso berandu da. Ez naiz telefono deia egitera ausartzen. -erantzun zion Anna-k.*
- *Hobe hala, ez dute telefonorik eta. Begira, zergaitik ez zara hemen geratzen gaua igarotzera? Bihar nire senarrak hurbilduko zaitu, furgonetaz, Green House-era.*

Biharamunean, goiz jeiki zen. Kanpoan eguraldi txarrak aurrera egiten zuen, goizeko 9ak ziren baina gaua zela ematen zuen, zerua guztiz ilunduta baitzegoen.

Gozaltzeko asmoarekin bajatu zen Anna jantoki txikira hain zuzen. Sukaldetik Mrs. Dalton ostalaria atera zen.

- *Nire senarrak esan dit ordu erdi barru furgoneta prest izango duela.*
- *Mila esker. Zuen laguntzagaitik izango ez balitz 6 kilometroak oinez egin beharko nituzke.*
- *Sukaldari gisa egingo duzu lan ezta? –Mrs.Dalton-ek elkarrizketari bira galanta eman zion.*
- *Bai. Lampeter-en lanean ari nintzela iragarkia ikusi nuen eta zorionez hartu didate.*
- *Beno... Green House-n lan egin zuen azkenengo sukaldaria askotan zetorren hona kafea hartzera. Ondo ezagutzen genuen. Baina bat-batean, egun baten inolako azalpenik eman gabe desagertu egin zen, bere arropa eta guzti, soldata eskatu barik, notatxo bat utzi eta alde egin zuen. Baina ez zitzaigun batere harritu, Mr.Green-en heriotzaren ostean Dales-en denok hunkituta gaude.*
- *Ez nekien Mrs.Green alarguna zenik.*
- *Bai neskatxa, alarguna da. Mr.Green martxoan hil zen ta inork ez daki zehazki nola gertatu zen!!!*
- *Zer gertatu zitzaion?- Annak ezin izan zuen bere jakingura kontrolatu.*
- *Beno... Orain dela bi hilabete, Mr.Green, arratsaldero egiten zuen bezala, paseatzera atera zen, bere txakurrarekin. Green House-tik gertu dagoen basoan barruratzeko ohitura zuen. Nahiko leku arriskutsua den arren berari, hogeitaz urtez itinerario berberari jarraituz ez zitzaion ezer gertatu. Martxoaren 6ra arte.*
- *Zer gertatu zitzaion? –Errepikatu zion Anna-k, gero eta interesatuago.*
- *Sinpleki ez zela etxera bueltatu. Egunak eta egunak igaro ziren poliziak gorpua aurkitu zuten arte, eta nolako egoeran aurkitu zuten!!! Ai ene!!*
- *Zein zen egoera hura? –Anna-k galdetu.*
- *Ba... Burua bostehun bat metrotara aurkitu zutela. – Edonork harrituko zuen hoztasunarekin bota zuen.*

Ordu erdi beranduago Anna furgoneta barruan zegoen Green House-rako bidaian. Hamar minututan egin daitekeen bidaia, ia ordu erdi iraun zuen, eguraldi kaxkarra zela-eta eta errepidearen egoera txarraren laguntzarekin. Azkenean, heldu ziren. Furgonetatik jeitsi eta egoitzaren atera abiatu zen, euri zaparradapean.

Atea ikutu eta berehala gizon batek ireki zuen: etxezaina. Beldurgarria zen tipo hura, pelikuletan aktore lanetan dabiltzaten modu-modukoa. Anna bere logelara eraman zuen, etxeko andrea ez baitzegoen momentuan Green House-n.

- *Ms. Burke, afaltzeko orduan ezagutuko duzu Mrs.Green. Baina lehenago sukaldea garbitu, zure gustora jarri eta bazkaria prestatu beharko duzu.*
- *Bai dena prestatuko dut. Mrs.Green ezagutzeko irrikitan nago.*

Besterik esan gabe etxazaina logelatik atera zen, atea zarratuz. Anna logela barruan geratu zen, hura kontenplaten. Ertaina zen. Ohe bat, armairu bat, kubel bat eta ispilu txiki eta zahar bat zuen barruan. Armairua gutxienez, ertaina zen eta bere arropa sartu ahal izan zuen arazo barik. Baina bere arreta gehien deitu zuen elementua aurrean zeukan leiho handia zen. Anna leihora gerturatu eta begiradatxo bat bota zuen.

Etxearen inguruetan, ostalariak esan bezala, baso bat zegoen. Basoa arretaz begiratu zuen. Disdira egiten zuen zerbait zegoen.... Baina zer zen? Leihora gehiago hurbildu zen Anna. Iluntasunean eta ekaitzak sortzen zuen argiarekin bakarrik baliatuz, zerbait ikusi zuen...

Berari begira zeuden bi begi!!!! Suaren kolore berberakoak, iluntasunaren erdian, basoan, etxetik oso gertu, bere leihotik gertu-gertu!!! Askok ikaratu zen Anna, eta begiak aurrera egiten zutela konturatu zenean gehiago... Begiak aurrera eta aurrerago egiten zuten.... Annak laguntza behar zuen baina geldirik zegoen, ezin baitzen mugitu!!!


Beldurrak geldiarazten zuen Annaren gorputza, eta begiak leiho aurrean zeuden jadanik...

- *Neska, neska! Zure geltokia ez al da hau? Dales-era heldu gara.*

Dales-en zegoen Anna, geralekuan. Amezgaizto bat baino ez zen izan. Oso ikaratuta zegoen baina dena pasatuta zegoen jadanik, beldur

guztiak atzean gelditu ziren eta baita begi haiek ere, Mr.Green-en arpegia zen Anna jazartzen zegoen hura. Baina ez zuen inporta, jadanik pasatuta zegoen. Ala ez?

Geltokira heldu eta berehala dena bere ametsan bezalako zela ohartu zen. Dena berdin-berdina, geralekua, ekaitza, errepidea.... Amezgaiztoa ala aurreikuspena?



HERIOTZAREN ITZALA

*Egilea: Sara Boyra
DBH 2.maila*

Herri bateko txoko batean gertatu zen. Oso urrutiko leku pobrea zenez, biztanle gutxi bizi ziren, baina bertakoak ez ziren batere ospetsuak, gaizto fama zutelako.

Bertan etxe zahar bat zegoen. Baserri baten itxura izateaz gain, toki lasaia eta misteriotsua zen. Gauetan basoan bizi ziren animalien hotsak entzuten ziren, batez ere, otsoen oihu beldurgarriak. Inor ez zen ausartzen gauetan basoa bakarrik zeharkatzen.

Ainhoa, hamasei urteko neskatila, bere aiton-amonekin bizi zen. Ez zirenez oso osasuntsuak, Ainhoak eskolako ekitaldia amaitu ondoren, hauek zaintzen geratu behar izaten zuen. Bere bizimodua ez zen hamasei urteko neskatila batena. Benetan heldua zen, bere adinerako, bizitzak emandako mailukaren ondorioz.

Aurpegi zurbileko neskato honek begi ilunak zituen. Bere aurpegian, barre egiterakoan hortz zuri-zuriak nabaritzen zitzaizkion. Ilea zuhaitzen enbor kolorekoa zuen eta kirikiloz betea, aspaldian orraztu ez balu bezala. Bere gorputza argal-argala, beso eta hankak oso iletsuak.

Izakeraz bihotz onekoa zen, amonaren antzekoa. Ainhoak ez zuen hori atsegin mundu guztia aurka baitzuen eta ez baitzen jendearen esaera txarrei aurre egiteko gai. Baina eskolako jende txar edo mesprexagarri guztiaren artean lau lagun on zituen. Hauek, Ainhoa bezalakoak ziren, hots, jende guztiarentzat arraroak eta gaizki ikusiak. Lagun hauen izenak Aitor, Ane, Miren eta Xabier ziren.

Aitor eta Xabier oso mutil lotsatiak ziren, baina, norbait ezagutzen zutenean lotsa poltsikoan gordetzen zuten. Bi gazte hauek ikatzaren koloreko ilea eta begi txikiak zituzten, potoloak ziren. Ane eta Miren, ordea, oso irekiak; ile horia zuten eta argalak ziren. Anek Aitorrengan

konfiantza handia zuen, txikitatik ezagutzen ziren eta. Miren eta Xabier, aldiz, lagun berriak izan arren, antzekoak ziren.

Bere ikaskideen eta irakaleen laguntza izan arren, Ainhoak ez zeukan inoiz denborarik bere lan guztiak amaitzeko.

Egun eder batean, eskolatik irten bezain laster Ainhoa etxerantz zihoala istripu bat gertatu zen. Errepidea gurutzatu zuenean, kotxe batek harrapatu zuen eta hilda geratu zen. Automobilean zeudenak, kotxetik irten eta neskatoarengana joan ziren. Hitz egiten zioten, baina berak ez zien erantzuten. Denbora luze bat igaro ondoren, Ainhoa lurperatzea hobe izango litzatekeela pentsatu zuten.

Hurrengo egunean, neskatilaren kideak ez ziren ohartu Ainhoaren faltaz; behin eguneroko errutinan sartuta, Ainhoa gogoratzeko gai ez zirela konturatu ziren.

Eskolatik irten bezain pronto etxerantz abiatu ziren. Bertan afaldu zuten eta beti bezala, gurasoekin solasteari ekin zioten. Baina oheratzeko ordua heldu zenean, miraria bailitzan, Ane, egunekoa birpasatzen ari zelarik, Ainhoaren faltaz ohartu zen. Ondoren, telefonoa hartu eta bere laguneri deitu zien. Bi aldiz pentsatu gabe, etxetik irten eta Ainhoa bilatzea erabaki zuten.

Lehenengo, kale ezagunetatik ibili ziren, baina ez zutenez ezer aurkitu, beste toki batera joan ziren. Leku hartan ez zuten ezer ikusi eta banatzea erabaki zuten. Batetik, Ane eta Aitor eta bestetik, Miren eta Xabier. Lehenengo bikotea Ainhoaren etxeko inguruak aztertzen hasi zen eta bigarrena, ordea, argazkiak zuhaitzetan itsatsen. Ekintza hori bete ondoren, jendearen barrea estimatu zuten. Orduantxe, Mirenek aholku bat ematea erabaki zuen. Bere lagunekin elkartu zenean, ideia azaldu zien eta praktikan jarri zuten. Burutapen hori jendearen argazkiak ipintzea zen. Egin ondoren, gazteak jendea larritu egiten zela konturatu ziren. Honen ostean, herriko biztanleek mutilei ea nolakoa zen desagertutako neskatila galdetu zieten. Hauek informazioa ematen hasi ziren eta jendeak arreta handia jarri zuen. Hitzaldia entzun ondoren, denetariko gauzak egiteko prest zeuden, oso neska adoretzua zelako, nahiz eta halako itxura kankailua izan.

Egunak pasa ziren eta Ainhoa ez zen agertzen. Lagunak itxaropena galdu eta neska ahaztu zuten.

Eskolan txango bat antolatu zuten eta ibilaldi hartan Ane, Miren, Xabier eta Aitorrek parte hartu zuten. Irteerak mendian egun bat pasatzean

zetzan. Eguna heldu zenean, gazteak motxilak prestatu eta ibiltzera joan ziren. Izugarritzko ibilaldia egin zuten eta helburua bete ondoren, gosaltzen hasi ziren. Han, lur pilo batzuk ikusi zituzten, baina horietako batek, besteak baino gehiago erakartzen zien. Bertara hurbilduz gero, harriak eta lokatza kentzen hasi ziren. Upelako ikara hartu zuten, Ainhoaren gorpua ikusi ondoren. Honen sabelean, eraztun txiki bat zegoen eta hauek, hartu, garbitu eta honakoa irakurri zuten: “Mikel”. Xabier, mutil oso azkarra zenez, ekintza horretan parte hartu zuena nor izan zen bazekiela esan zien bere lagunei. Xabierrek, zital hari halako astakeria egiten lagundu ziotenak nortzuk ziren ere bazekien.

Xabierren kideak, hau da, Ane, Aitor eta Miren harriturik geratu ziren eta geroago dena ulertu zuten. Mikelek (begi marroiak, ile horia eta gorputz potoloa zuen gazteak) Ainhoa hil zuela uste zuten. Lanean jarri ziren eta lekzio oso gogor bat ematea pentsatu zuten, baina ziur ez zeudenez, hobeto aztertzea erabaki zuten. Horregatik, segundurik galdu gabe, Mikel jarraitzen hasi ziren.

Egunsentia zen eta oraindik gazteak gaiztoaren atzean zebiltzan ezer jakin gabe. Momentu batez, pentsatzen gelditu ziren eta Anek esan zuen:

- Beharbada Mikelek ez dauka zerikusirik honekin eta atzo arratsaldean kuriositatez bakarrik begiratu gintuen.
- Beharbada arrazoa duzu eta Mikel ez da inolako hiltzailea.- esan zuen Xabierrek.
- Bai, izan daiteke baina nire ustez bera da.- erantzun zuen Mirenek.

Orduan gazteak mutila jarraitzen aspertu egin ziren eta azkenean Mikeli galdetzea erabaki zuten.

Kaleko bazter batera eraman zuten, erantzunak bilatzeko baina honek ez zien ezer azaldu nahi. Ane, Xabier, Miren eta Aitor haserretu egin ziren, Ainhoa euren lagun onena zelako eta beti denei laguntzeko prest zegoelako.

Ordu bat pasatu ondoren, Mikelek gazteek galdetzen ziotena ulertu zuen eta erantzun bat eman zuen.

- Nire lagunak! Nire kagunak! Haiak izan dira.
- Bai! Eta zergatik zegoen eraztuna Ainhoaren sabelean?- galdetu zuen Anek.
- Istoriotxo bat kontatuko dizuet. Joandako urtean, nik amodiozko istorioa bizi izan nuen berarekin eta urrezko eraztun bat oparitu nion. Nire “lagunak” nirekin haserretu egin ziren. Egun baten,

eskolako komunitan Ander izeneko mutil kankailu, argal eta ile berbedun batek Ainhoa hil zutela esan zidan, baina nik ez nion sinestu, halako janzkera eraman arren bihotz oneko mutila zelako.- kontatu zuen Mikelek ia negarrez eta oso ikaratuta.

Ane, Xabier, Aitor eta Miren harrিতuta geratu ziren eta euren artean hitz egiten hasi ziren:

- Nola liteke hori? Ander izan da?- galdetu zuen Aitorrek.
- Benetan diozu? Ez da izango gezur galant bat, ezta?- gehitu zuen Mirenek.
- Ez, egia da. Niri hori kontatu zidan.- esan zuen Mikelek.
- Baina, oso arraroa da Ander, hori egiteko gai izatea.- Anek.
- Ba niri ez zait hain arraroa iruditzen, pasadan urtetik hona asko aldatu delako.- esan zuen Mikelek.
- Bai, egia da. Gainera, orain dela bi hilabete, gutxi gora-behera, mehatxatu egin ninduen oso hitz arraroekin. Egun hartatik hona, ez dugu elkarrekin hitzik egin.- gehitu zuen Aitorrek.
- Benetan al diozu hori? Zergatik ez diguzu arinago kontatu?- galdetu zuen Anek.
- Bai, Anek arrazoa du. Hori pista handi bat da, guretzako bereziki.- esan zuen Mirenek.
- Anderrek adarra jo digu eta gu ez gara konturatu. – gehitu zuen Xabierrek.

Lagunak Anderren bizitzarekin amaitu nahi izan zuten, baina, noski, norbait hiltzea lege hausketa bat izango litzateke.

ZER OTE DA ITSU IZATEA

*Egilea: M.I. Berasaluce Real de Asua.
DBH 3. maila.*

Bazen behin alaien arteko neskatorik alaienetarikoa . Bere bizitzan dena ondo zihoan; arazo bakarra gurasoak lan gehiegi egiten zutela zen. Horregatik denbora gutxi pasatzen zuten elkarrekin.

Ikasketetan ezin hobea , kirolzalea, bere lagunen artean irribarretsuen ... ; ez zuen arazorik inorekin . Neska hori Maitane deitzen zen eta hamalau urte zituen. Bere bizitzako ametsa modelo izatea zen, baita bere lagunik onenarena ere. Berori Ane genuen.

Udaberria sartu berri, Anerekin modelo izateko hautaketa-froga batzuetara aurkeztu zen. Froga horiek Urdaibai moda- desfilerako ziren. Eta hor hasi ziren arazo guztiak. Ane hautatu zuten, baina Maitane ez.

- Baina zergatik?-esan zuen Maitanek.

Inork ez zion erantzun. Egun batzuk eman zituen etxetik irten barik, inoiz ikusi den depresiorik sakonenean murgilduta . Lodi-lodi zegoela besterik ez zuen pentsatzen.

Aste guxi batzuk pasatu ondoren, itzalik ez zuen gizakia ematen zuen, ia ikustezina bihurtu bait zen . Ane kezkatzen hasia zen.

-Maitane, ondo al zaude? Azken egunotan ez zara berdina, gure artean ez zaudela ematen du. Eta argalaren argalaz arropak ere dindilizka dituzu. Larregi argaldu zara denbora gutxian!

- Eskerrak! Horixe da behar nuena!-erantzun zion.

- Baina lelotuta zaude, ala ? Horregatik ari zara ezer jan gabe? Horrela segitzea besterik ez duzu beste munduko biztaleen erroldan sartu ahal izateko. Zure gurasoak jakinaren gainean jarri behar ditudala uste dut!!

-Esan zer? Zu ez zara inor ezer esateko.

-Zelan?

-Entzun duzuna.

- Hori pentsatzen baduzu!!!! Banoa, zuk zeuk jakin behar duzu zer egiten duzun zeure bizitzarekin.

Eta hori esatearekin batera beraien arteko harreman estua bigarren plano batera pasatu zen, konfidantza izoztu izan balitz bezala.

Asteak pasatu ahala Anek gero eta makalago ikusten zuen Maitane. Gero eta argalago, aurpegi zurbilagoa eta hezurak nabarmenago, txorimalo janzkerako mamua irudikatuz.

Egun batean jolastokian Maitane zorabiaturik lurrera erori zen. Orduan Ane hurbildu egin zitzaion eta esan zion:

-Zer, orain zer? Laguntzarik nahi duzu ala horrela segitzeko asmoa duzu?

-Bai arrazoia zeneukan, zure laguntza behar dudala uste dut baina mesedez ez esan ezer inori.

-Ados.

Handik aste batzuetara hobetzeko ahalegin guztiak egin zituzten. Biak batera jaten zuten, dieta berbera jarraitzen zuten. Dena ongi zihoala esan zitekeen. Baina egun batean Anek Maitane goraka egiten ari zela *in fraganti* harrapatu zuen.

-Maitane, baina zer ari zara? Zoratuta al zaude?

-Ez, ez zait janaria sartzen.

-Mosedez utzi zorakeriak egiteari!

Bi aste geroago Maitanek Aneren etxean lo egin zuen eta afaldu ondoren komunera joan zen; atea iztea ahaztu zitzaion eta Aneren ama botaka ari zela ikusi zuen. Momentu berean ez zion ezer esan baina oso arduraturik gelditu zen eta hurrengo egunean Aneri hau esan zion:

-Ane, ondo al dabil Maitane?

-Zergatik?-esan zion ikara aurpegan isladatzen zuelarik.

-Atzo komunean ikusi nuelako.

Anek ez zion erantzunik eman.

-Hilabeteotan asko argaldu da eta arazo larria da. Ez du anorexiarik edukiko, ez?

-Ez. -esan zion- Nirekin jaten du egunero, nire beste jaten du.

-Baina, Ane ez zara konturatu jan da gero beti komunera doana?

-Bai, baina inoiz ez dut pentsatu gure Maitaneren arazoa horren larria izan zitekeenik. Gainera estutasunen batean sartunda egon ezkerro badakin laguntza eskatzen. Eta, horrez gainera, inoiz horrelakorik komentatu izan dugunean, horrelakoak ahalik eta arinen argitu behar direla esan du.

-Orduan, bulimia sufritzen du! Ba al dakite bere gurasoek?

-Ez, ez dut uste konturatuko zirenik, lan eta lan besterik ez dute egiten eta mundu horretatik kanpo ez dute ezer ikusten, ezta beraien familian sartu edo sortu egiten diren gorabeherarik ere.

-Ondo dago maitea baina bere gurasoak ohartarazi beharko ditugu. Gaisotasun larriaz hitz egiten ari gara, konturatzen al zara?

-Baina ama!!!!
-Utzi neure eskuetan.
-Ez mesedez nik esango diet.
-Konforme; gaur oso berandu da honez gero. Ez da inori deitzen ibiltzeko ordua. Ikaratu ahal dira.

Hurrengo eguneko arratsaldean, Ane ez zen eskolatik agertu; Maitanerenera jo zuen eta bertan -“*Tok-tok*” atea jo zuen-:

-Arratsaldeon Ane! Zelan zu hemendik!-esan zuten Maitaneren gurasoek.

-Arratsaldeon, gauza larri bat esan behar dizuet.

-Bai sar zaitez.

-Bai, hemendik eta ez berri onen eramale; zuen alaba eta nire betidaniko laguna den Maitane gaisorik dugula uste dut, bulimiaz hitz egiten ari natzaizue.

- Bai zera!! Zu zoratuta zaude!!

- Nik neuk zer nahiago! Galdetu nire amari, bera ere egoera honen lekuko bait da.

- Diozunez egingo dugu .-esan zuten Maitaneren amak.

Aitak ordea erantzun zion:

- Egiozu kasu ,oso arraro dabil egunokin eta.

Hurrengo egunak eritetxean eman zituen.Oso larri zegoen. Ez zuen konpontzeko erarik. Aste bat eman zuen ezer jan gabe eta azkenean bihotzak ez zion erantzun. Hiru hilabete eman zituen koman eta ez zen gehiago esnatu. Anek beti esaten zuen ez zela esnatzen berak ez zuelako nahi.

Hiru hilabete makina bati lotuta iraun zituen eta azkenean bere gurasoak hori ikusirik, egoera igaro ezinik, makina horretatik askatzeko eskatu zuten. Ez zituen bi egun iraun.

Hau izan zen Maitaneren bizitza laburra. Zelan bizi daiteke egoera ezin hobean hamalau urtez eta gero, gauetik egunera, moda edo besteen esanei kasu egitearren norbere buruaren kalterako lelokeriak egiten hasi!.

Maitane hil zenetik Ane ez zen berdina izan. Maitaneren heriotzagatik errudun sentitzen zen eta psikologoaren laguntza behar izango du betirako.

Itsutasuna ez da bakarrik begien gaisotasuna, arimarena edo buruarena ere izan bait daiteke .

IRRATIKO ABESLARIA

*Egilea: Eli Urrutia
DBH 4. maila*

Igandea zen ; goizeko hamarrak ziren eta eskuineko hanka ohetik kanpo nuela izartu nintzen. Gau osoa ametsetan pasa nuen baina ez nintzen ezertaz gogoratzen. Gau-mahaira begiratu eta irratia ikusi nuen, orduan, zer esaten ari ziren entzuteko gogo a piztu zitzaidan. “ON” botoitxoari eman eta musika ezagun bat entzuten hasi nintzen. Nire abestirik gustokoena, “El cascabel”. Nor da hain ondo abesten duen gizona? Zergaitik ez nuen arinago inoiz gizon hori abesten entzun? Galdera hauek pentsatzen ari nintzen bitartean, amak dei egin zidan, gozaltzeko itxaroten zeudela, baina, nik nireari jarraituz, mahaian jesarrita nengoela inori ez nion txintik ere esan. Aitak bai esan zidan; -Zer, ez duzu egunonik ere esan behar ala?.

Orduantxe irten nintzen nire “egun argiko – ametsetatik”. Gozaltzea amaitu eta segidan, zaldiarekin buelta bat ematera irten nintzen, nire etxetik hurbil dagoen baso bateraino. – Banekien nik zeozer ahazten zitzaidala – pentsatu nuen; ez niolako Manueli nora nihoan esan.

Manuel, aitari animaliekin laguntzen dion mutil bat da. Lan bila etorri zen egun batean eta aitak denarekin ezin zuenez, kontratatzea erabaki zuen. Manuel bera Mexikarra da, baina orain dela bost urte etorri zen Euskal Herrira. Diru faltan zebilelako migratu zuen eta orain ere ez du diru askorik baina ez zaio ezer falta.

Orduan, etxera bueltatzea erabaki nuen eta han aurkitu nuen Manuel, kortan, beste zaldiei pentsua ematen.

- Iepa, Manuel !– esan nion. – Gaur ez daukazu jairik, ala? Hor lanean jo eta ke ikusten zaitut eta aspaldi honetan ez zara inora irteten.

- Ez – esan zidan. – Baina, gero nirekin zaldi gainean eramango zaitut hiriko Mexikar jatetxera. Nahi duzu?

- Noski. – esan nion eta horretan geratu ginen-.

Manuelek hogeita bederatzi urte betetzear zituen eta egia esan, gustokoa nuen. Bikote ona egiten genuen.

Arratsaldean, lagunekin solasteko asmoz irten nintzen eta haietako batek mutilen gaia atera zuen. Niri nor gustatzen zitzaidan galdetu

zidatenean Manuel etorri zitzaidan gogora eta Manuel gogoratu bezain laster irratiko abeslariaren abotsaz oroitu nintzen. Berrero galdera haiek etorri zitzaizkidan burura:

- Nor da hain ondo abesten duen gizona? Ezagutuko al du Manuelek?.

Konturatu nintzenerako, Manuelekin geratu nintzeneko ordua heldu zen. Arineketan dutxatu, soineko berria jarri eta ilea apaindu. Amaitu nuenerako han zegoen Manuel, txirrina joka.

Ama eta aita agurtu, arin bueltatuko ginela esan eta hirirantz abiatu ginen.

Jatetxean geundelarik, nik bueltaka nenbilen asuntu hori kontatzea erabaki nuen. Ez nekien nola hasi eta bizitzan kasualitatez gertatzen diren fenomenoak bezala orkestra abesti hura jotzen hasi zen. Orduan bai esan nion Manueli:

- Manuel, badakizu nor den abesti hau kantatzen duen Mexikarra?

- Uste dut gizon horretaz maitemintzen hasia naizela. Bai badakit tontakeri bat dela, baina abots eta abesti hura bihotzera sartu zaizkidala uste dut – jarraitu nuen.

- Ba, galdetuko diot lagun bati, ezagutzen duen, baina, ez pentsatu gauza horretaz, ez duzulako gizon hori ezagutzen eta ezin duzu maiteminduta zaudenik esan – hitz egin zuen ur pixka bat edaten zuen bitartean.

Ez nion ezer gehiago galdetu arraro ikusten nuelako. Dantza egitera irten ginen eta oso ondo pasa genuen Manuelek Mexikora bueltatu behar duela esan zidan arte.

- Ez, ez joan mesedez, Manuel, ez joan – esan nion erdi negarrez.

- Zergaitik ez duzu nahi ni Mexikora bueltatzea? – galdetu zidan.

- Nire ondoan behar zaitudalako, nire sentimentuak argitzeko – erantzun nion.

- Ba, nahi baduzu, etorri nirekin Mexikora eta bion artean gizon hori aurkituko dugu – esan zidan.

- Bai, zurekin noa, zutaz maiteminduta nagoen jakiteko ala gizon misteriotsu hori maite dudak jakiteko.

Hitz egitea amaitu nuenean Manuelek besoen artean hartu eta muxu bero bat eman zidan.

Hurrengo egunean, maletak egin eta Mexikora abiatu ginen. Gurasoei bidaiatzeko gogo heldu zitzaidala esan eta konturatu orduko

Mexikoko aireportuan ginen. Taxi bat hartu eta beren etxera joan ginen. Manuel “Jalapakoa” zen, “Veracruz” hirikoa. “Jalapako” eskina guztiak erakutsi zizkidan eta oso, oso polita zen leku hura.

Gauean, “Mariachiak” ikustera eramán ninduen eta “tequila” edaten genuen bitartean jende asko ezagutu nuen. Lagun horietako batekin hitz egiten nengoela Manuel joan egin zen, baina momentu hartan ez nintzen konturatu. Halako batean, “El cascabel” abestia kantatu zuten. Irratian abesten agertu zen gizon berbera zen. Bai, hura zen, ahots hori ez nuen inoiz ahaztuko. Hori, lepoz nengoela ezagutu nuen, buelta eman nuen bizkor eta nire bihotzeko Manuel zegoen han abesten.

Zer uste duzue gertatu zela gero? Ba, “Jalapa”-ko elizan ezkondu ginen eta urte batzuk geroago Euskal Herrira bueltatu ginen. Nire gurasoak ia hil egin ziren gure istorioa entzun zutenean, baina oso zoriontsuak ziren, Manuel haientzat, seme baten parekoa zelako. Harrez gero, egunak kantatzen ematen genituen.

Bikote guztiak izaten dute beraien abestia eta orain, ba al dakizue zein den gurea?

1993Ko uda

*Egilea: Leire Gandarias Ispizua
DBH 1. zikloa*

Bederatzi urte igaro arren, gaur izango balitz bezala gogoratzen dut. Bizi ditudan uda guztietatik, hura, aberasgarriena izan zen. Esperientzia eder bat baino ez bazidan utzi ere, oso ondo gogoratzen dudanetarikoa da, lehenengo amodioaren azala uda hartan aldatu eta maitasunaren usaina lehen aldiz somatu nuelako.

Istorio hura aurrera joan izanez gero, nire bizitzak zelako norabidea hartuko zukeen zalantzarekin bizitzen ikasi dut.

Urruntasunak ez gintuela banatuko esan nion baina...

Uda hartan hamasei urte eginak nituen eta oso ederra nintzela esaten zidaten. Ile horixka, begi urdinak eta adimen handia nuen.

Ikastola bukatzeko zegoen, aste bete baino ez zen gelditzen. Azken aste hura oso urduri igaro nuen, ikastola bukatu eta hiru egunetara Irlandara bainindoan oportretan, ingeles pixka bat ikastera.

Aste hura, mantso-mantso igarotzen zihoala iruditzen zitzaidan, baina azkenean, iritsi zen hegazkinera igo eta Irlandarantz joateko unea.

Ni bakarrik nindoan hegazkin handi hartan .Bidaia oso luzea izan zen eta denbora guztian familia, lagun eta nire herriari buruzko burutazioetan egon nintzen. Bizitzako une gozo guztiak zetorkidan gogora, izan ere, hiru hilabete igaroko nituen ezezagun batzuen etxean.

Hegazkin barruan luzea egin zitzaidan denbora baina azkenean iritsi nintzen. Bertako aireportua gainezka zegoen. Hiru hilabetez nire familia izango zena bilatzea kostatu arren, aurkitu nuen. Beraien etxera eramán ninduten. Oso etxe handia zen.

Lehenengo egunak, guztiz aspertuta pasa nituen, bertan ez bainuen lagunik. Hori dela eta, bertako nire familiak, auzoan festa bat antolatu zuen ni auzokoei aurkezteko.

Jai giroa izugarria izan zen. Denetarik zegoen. Baina festa hartatik gehien gogoratzen dudana egin nituen lagunak dira; gehien bat Unai. Bera ere, Euskal Herrian jaioa zen, nahiz eta bost urterekin Irlandara joan familiako arazoak zirela eta.

Mutiko jatorra eta zintzoa zen. Euskaraz gogoratzen zituen hitz bakarrak “kaixo” eta “agur” ziren, beste guztia erabat ahaztuta zeukan.

Egunero tokixoren bat ezagutzera eramaten ninduen eta egunero-kotasun horrek hurbildu egin gintuen.

Gehien gustatzen zitzaidan tokia, hondartza ondoan zegoen parke bat izan zen. Unairen ustez, parke hartako tokirik ederrena, harrizko iturri handi baten aurrean zegoen eserlekua zen. Bertan esertzen ginen guretzat benetan garrantzitsuak ziren gauzetaz hitz egin behar genuenean eta elkarrizketa hoietan amankomunean hainbat gauza genuela ikusi genuen: nagusitan zientzilari izatea, futbola, natura maitatzea, abenturazko liburuak,...

Horrela uda aurrerantz joan zen, alai sentitzen nintzen. Baina hirugarren hilabeterantz, nire burua pixkat arraro somatzen hasi nintzen. Ez nekien zergaitik sentitzen nuen hori. Gertatzen zitzaidana nire lagun Lucyri azaltzen ahalegindu nintzen. Azaltzen ahalegindu nintzela diot, sentitzen nuena azaltzeko oso zaila zelako eta are gehiago ingelesez.

Dena den, berak berehala erantzun zidan Unai ez maiteminduta nengoela baina nik zer esan jakin gabe geratu nintzen eta aukerarik samurrena hautatu nuen: itxarotea.

Egunak bazihoazten. Asko pentsatu ondoren, Unairekin hitzegitea erabaki nuen. Euskal Herrira bueltatzeko aste bete baino ez zitzaidan falta eta guztia argituta itzultzeko asmoa nuen. Ze nolako nahastea nuen buruan! Zer esan behar nion? Nola?.


Lucyk nire barnean nuena azaldu behar niola aholkatu zidan eta hori zela egokiena pentsatu nuen.

Irlandan hiru egun gelditzen zitzaizkidala, Unai ikusi eta zerbait esan behar niola esaterakoan, berak ideia bat bazuela erantzun zidan.

Gertatzen zitzaidana eta horri buruz pentsatutako guztia kontatu nion; lagun handiak izan gintezkeela eta urruntasunak ez gintuela banatuko. Unai nirekin ados egon zen.

Iritsi zen eguna. Banindoan. Aurreko egunean lagunak agurtu nituen negar malko eta guzti.

Itzulia laburragoa egin zitzaidan, baina hori bai, orduan ere pentsatzen nindoan. Alde batetik, pozik nengoen, familia berriz ikusiko nuelako; baina bestetik, oso triste, maite nuen mutila utzita nindoalako.



ITSAS LABARREKO ETXEA

Egilea: Ariane Lazaga
DBH 2. maila

Kaixo guztioi. Niri eta nire lagunei gertatutako gauza bat kontatuko dizuet. Barkatu, neure burua aurkeztuko dizuet. Nire izena Garazi da eta DBH 2.mailako ikaslea naiz. Nire lagunak Julen, Miren eta Jon Ander dira. Gu denok oso dibertigarriak gara. Gauza asko ditugu amankomunean eta horregatik lau lagun oso onak gara. Beno, gertatu zitzaigunera bueltatuz dena hasi zen orain dela urte bat. Guk azaroaren 1eko gauera arte gauza normalak egiten genituen. Gure denbora librean gure herriko mendi batera joaten ginen gure kaseta egitera. Larunbatean, uriaren 24an, gure etxetxoia amaitu genuen. Handik aurrera beti joaten ginen hara lanak egin ondoren, beldurrezko istorioak kontatzera. Oso ondo pasatzen genuen.

- Halako batean, plof! Liburuak bakarrik erori ziren. Zer gertatu zen?-esaten zuen Mirenek-.

... Eta trena gelditu egin zen, emakumea eta gizonarekin. Benetan gertatu zen edo amets egin zuten?

Halako istorioak kontatzen genituen. Bata besteari sustoak emanaz.

Istorioak kontatzen ari ginen egun batean, nik, nire istoriorik onena kontatu nuen. Egia esateko ez zen istorio bat. Kondaira bat zen. Itsas labarreko etxearen kondaira. Honela esan nien:

- Itsas labarrean dagoen etxean, mamu bat dagoela esaten dute eta sartzen ausartzen diren guztiei; zast! burua kendu eta berarekin bizitzera kondenatzen ditu.




- Umeen istorioak!-esan zidan Jon Anderrek.
- Zergatik ez gara joaten Santu Guztien eguneko gauean?-esan nuen.
- Bai! Gaueko 12etan itsas labarrean!-esan zuen Julenek.
- Ongi!-esan genuen denok.

Hurrengo egunak oso luzeak egin zitzaizkigun. Bakarrik pentsatzen genuen azaroaren lean gertatuko zenarekin. Ia ez genuen lanik egiten, bakarrik genuen buruan itsas labarreko etxera joango ginen eguna. Dena bezala, egun hura iritsi zen. Oso urduri geunden. Gaueko hamabietan itsas labarrean elkartu ginen. Baina, Julen falta zela konturatu ginen. Azkenean hamabi t'erdietan iritsi zen.

- Uste genuen ez zinela etorriko - esan nuen.
- Bai, baina asko pentsatzen egon naiz -erantzun zidan.

Honen ondoren etxeko atera abiatu ginen. Atean gelditu ginen eta denok gure motxiletan genituen linternak hartu genituen; piztu eta etxe barrura sartu ginen. Sartu bezain laster...plum! atea zarratu egin zen. Denok oso beldurturik geunden, baina etxea miatzen hasi ginen. Gure pausoak etxearen zoruan entzuten ziren. Etxea oso zaharra zen. Hormetan irudi mordoa zegoen. Lehenengo ikusi genuen pasilutik abiatu ginen. Denak hiladan gindoazen ez galtzeko. Etxea benetan oso handia zelako. Gero, eskailera batzuekin egin genuen topo eta haietatik igo egin ginen hurrengo pisura arte.



Kanpoan, olatuak labarraren kontra nola jotzen zuten entzuten zen. Beldurgarria benetan. Bigarren pisura heldu ginenean ispilu handi bat ikusi genuen.

- Begira mamua ikusteko ispilua!-esan zuen Mirenek.
- Ez esan txotxolokeriarik- esan zion Jon Anderrek.

Bigarren pisu hura izugarria zen. Handik ibiltzen jarraitu genuen eta bat-batean zarata batzuk entzun genituen gure atzealdean. Mirenen hortzak ziren beldurratik.....

Bigarren pisutik jarraitu genuen. Han ez zegoen mamurik. Hori pentsatu genuen denok Baina lehenengo pisura baxatu ginenean, errefleju zuri bat ikusi genuen. Mamua! Pentsatu genuen denok, baina bakarrik zen ilargiaren islada mahai batean. Gero eta beldurtuagoak geunden denok, baina han, ez zen ezer gertatzen.

Ordu batak ziren eta oraindik bizirik jarraitzen genuen. Hau da, azkenean ez zegoen mamurik. Gu bai inozoak! Aspertzen hasi ginen eta etxetik irteteko garaia zela pentsatu genuen. Jesarlekuetatik altxatu ginen eta linternak hartu genituen baina... halako batean linternak bat-batean amatatu egin ziren. Ez ziren pilak. Zerbait gertatzen zen. Itzalak linternen argia jan izan zuela ematen zuen. Denok garrasika hasi ginen. Korrika egin genuen atera arte baina zarraturik zegoen. Olatuak gero eta gogorrago jotzen zuten. Orduan han atrapatu zergatik egon behar genuen azaldu nien:

-Zuek bai ume txotxoloak! Itsas labarreko kondaira benetazkoa da eta hemen egongo zarete betiko. Badakizue zergatik?

-Ez- esan zidaten denek-.

-Ziur zaudete ez dakizuela zergatik?

-Ez, benetan ez dakigu. Aizu, ez egin bromarik.

-Ez da broma bat. Hemen egongo zarete betiko mamua ni naizelako.

Ja, ja!

-Aaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaahhhhhhhhhhhhhhhhhhhhh!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!

AZKEN GAUA

*Egilea: Araitz Azkarai Iturbe
DBH 2. Zikloa*

Ohea jantzi gabea, mahai gainea paperez betea, lurra erratzaren premian, armairuak hutsik eta apalak hautsez josita. Ni, leihoaren ondoan nago, bertatik sartzen baita gela argitzen duen argi apurra. Eskuetan nire amaren libururik gogokoena dut. "AZKEN GAUA" da bere izenburua eta amari hainbeste gustatu zitzaienez, nik ere irakurtzea pentsatu dut. Iada ez naiz etxe honetan bizi. Aspaldi erabaki nuen bizitza berritzea eta Asierrekin joatea. Beharrezko ditudan paper batzuen bila etorri naiz. Egia esan, ez naiz damutzen. Etxe honek hainbat tristura eta sufrimendu dakazkit burura eta hori dena ahaztu eta aurrera jarraitu behar nuela konturatu nintzen. Iragana, iragan da eta orainari aurre egin behar diot. Oroitzapen triste bezain astun horiek lurperatu eta zapaldu egin behar ditut. Liburuaren 17garren orrialdean noa oraindik, ezin naiz kontzentratu, ezin dut liburuko istorioa jarraitu, buruak iraganera egiten dit ihes. Letren artean galdu naiz eta amaren irudia aurkitu dut ene bihotzean. Bere hutsune ikaragarria somatzen dut. Nere bizitza goitik-behera aldatu da.

* * *

15 urte bete berri nituenean hasi zen dena. Ordura arte, familia arrunt eta zoriontsu bat ginen. Ama, aita, Bingen eta laurok, etxe honetan bizi ginen. Nire aita enpresaria zen eta uda hartan Alemaniara egin behar izan zuen negozio bidaia bat. Ekainaren 27an abiatu zen, uztailaren 18an itzultzeko asmoz. Baina zoritxarrez, egun batzuk lehenago itzuli zen, amaren eta Bingenen istripuaren berri izan bezain laster. Kotxez zihoazela, bide gurutze batean kamioi batek harrapatu zituen. Biak zeuden ospitalean eta hoberantz egin zutela esan ziguten medikuek aste bat beranduago. Amari alta eman zioten baina Bingen beste proba batzuk egiten gelditu behar izan zen. Uztailaren 20a zen eta arratsaldean anai bisitatzera joatea erabaki nuen. Urrengo egunean, etxera etortzekoa zen eta beraz, nire azken bisita izango zen hura. Biok solasean ari ginela, koloreak txuritzen ari zitzaizkiola konturatu eta ondo zegoen galdetu nion. Berak buruaz baietz egin eta zutitu egin zen. Eskuak nire sorbaldetan jarri zituen eta niri begira gelditu zen. Ni harriturik bezain izuturik nengoen une hartan eta erizainari abisatzera nindoala, Bingen lurrera erori zen. Zur eta lur utzi ninduen eta garrasika hasi nintzen nire buruaren jabetza galduta. Ondorengo ez dut gogoan,

konorte gabe gelditu bainintzen. Esnatzean, anaia galdu nuela jakinarazi zidaten, nahiz eta ez argitu zergaitia. Ostiko ikaragarria jaso nuen. Etxean ere, gauzak okertzen hasi ziren. Gurasoen arteko harremana hoztuz joan zen, ama, botiken beharrezanean aurkitzen zen eta aita, aldiz, alkoholaren menpeko bihurtu zen. Aitak, ama zuen istripuaren eta Bingenen heriotzaren erruduntzat eta ama gero eta txarrago zegoen. Ni ere oso txarto ari nintzen pasatzen. Batetik, ezin nuen anaiaren azken orduko irudia usatu eta bestetik, ezin nuen jasan gurasoen artean gertatzen ari zena. Denborak dena sendatzen duela esaten dute baina, kasu honetan egoera gaiztotu besterik ez zuen egin. Hasieran, denbora osoa elkarri garrasika pasatzen zuten eta bolada batzuk elkarri hitzik egin gabe igarotzen zituzten. Baina, denborak aurrera egin ahala, hitzetatik beste gauza batzuetara igaro ziren:elkar jotzera. Nik ezin nuen egoera hura jasan eta denboraldi baterako etxetik joatea erabaki nuen. Baina nora? Orduan, lagun on batez gogoratu nintzen: Maider. Oso lagun mina nuen eta lagunduko zidalakoan nengoen. Gainera 20 urte zituen, Ainhoa izeneko ahizparekin bizi zen eta, nahiz eta beraien etxea handia ez izan, niretzat haina toki izango zuten. Dena kontatu nien eta laguntzeko prest zeudela azaldu zidaten. Beraz, beraien etxera joan nintzen. Maiderrek eta bere ahizpak, asko lagundu zidaten arren, familiako berotasunaren, goxotasunaren eta maitasunaren premia neukan une hartan.

Oso bakarrik sentitzen nintzen,ez neukan ezertarako gogorik eta ez zitzaidan ezer axola. Ez ninduela inork maite sentitzen nuen eta bizitzak berak ere hori erakusten zidan. Etxeko berotasunaren falta somatzen nuen eta, nahiz eta egoera gozoa ez izan, etxera itzultzea erabaki nuen.

Giltza eskuetan nuen eta atearen aurrean nintzen. Txintik atera gabe, atea zabaltzen hasi nintzen. Bihotzak bira eman zidan, ez nuen horrelakorik espero. Egongela osoa hankaz-gora zegoen eta ama dena txukuntzeko ahaleginetan, lurrean belaunikaturik.

- "Ama, ondo al zaude? Zer gertatu da hemen?"-amak bira eman zuen eta gorputz osoa gogortuta sentitu nuen hura ikustean. Aurpegian nabari zitzaion jasaten ari zen pisuaren neurria. Begietatik malkoak isurtzen ziren aurpegi osoa estaliz eta eskuineko begian kolpe gogor bat jaso zuela naberitzen zitzaion.Ixilik begiratzen zidan, nireganatz zetorrela.

- "Nork egin dizu hori ama? Nor izan da?-Ez zidan erantzunik txikiena ere eman. Nire aurrekaldean jarri eta, besarkada bat eman zidan.

- "Zure falta handia somatu dut.Ondo al zaude?"-galdetu zidan eskuez negar malkoak lehortu nahian.

- "Ni ondo nago. Ez zaitez arduratu. Baina zuk zer duzu? Erantzuidazu mesedez."-eskatu nion, nire begietatik ere kristal itxurako malkoak erortzen hasi ziren bitartean.

Amaren erantzunaren zain nengoela, atearen hotsa entzun nuen eta atzerantz begiratu nuen. Aita zen. Praka berde batzuk eta jaka marroi bat zeramatzan; ahoan zigarro bat, zelan ez! Honela esan zuen:

- "Zer egiten duzu hemen? Zu ere amarengana etorri al zara hiltzeko gogoz?"

- "Jose, mesedez, ez zaitetz kontu berarekin berriro ere hasi."-erantzun zion amak, lurretik altxatuz.

- "Nola berriro ez hasteko? Arenek ere jakin dezala bere ama hiltzailea dela."-esan zuen aitak niri begiratzuz.

- "Mosedez, Jose, ez hasteko horrekin. Larregi edan duzu gaur ere eta ez dakizu zer diozun."-ni oso beldurtuta nengoen. Ez nuen aita sekula ere horrela ikusi eta ez nekien zer egin.

- "Ez dut ezer ere edan eta oso ondo dakit zer diodan. Zu izan zinen Bingenen heriotzaren erruduna. Eta niri ez hitzegin tonu horretan, gaur ere aurpegiko bat hartu nahi ez baduzu. Ulertuta?"

- "Ez zen nire errua izan, istripu bat izan zen eta zuk hori ondo dakizu."-niregana hurbildu eta belarrira esan zidan-"Hobe izango duzu hemendik joatea, aspaldi etxe honetan ez dago giro onik."

Amari kasu eginez, altxatu eta aterantz jo nuen. Ate aurrean nengoela, amaren garrasiak buelta ematera behartu ninduten. Bihotza irten beharrean neukan eta geldiro-geldiro, egongelara urreratu nintzen. Ama, lurrean zegoen. Begietatik negarra zerion eta besoak gorriturik zeuzkan. Nire bizitzan ikusi dudan estenarik mingarrienaren aurrean nengoen. Amaren gainean, aita zegoen eta honek, labana zuen eskuan. Ni, gogorturik nengoen atean, ezin nuen garrasirik ere egin. Dena oso azkar gertatu zen, azkarregi. Bapatean, aitak labana lepoan jarri zion eta...

* * *

Irudi mingarri horiek burura etortzearekin batera, liburua erori zait lurrera. Hura altxatzera jaitsi naiz eta ohearen azpikaldean paper bat ikusi dut. Hurbildu eta hartu egin dut. Argazki bat da, ama, aita, Bingen eta ni agertzen gara bertan. Leihotik sartzen den argiaz, atzekaldean hitz batzuk antzematen dira. Argazkiari bira eman eta bertan zera jartzen duela irakurri dut:<<Amaia, Jose, Arene eta Bingen.1993ko irailaren 8an. Donostia.>> Oso ondo pasatu genuen egun honetan, gogoan dut oraindik zenbat maite genuen elkar. Baina, hurrengo urteko udan hori dena desagertu eta egoerak guztiz okerrera jo zuen.

* * *

...Nik indar guztiak bilduta, garrasi egin nuen:

- "EEEZZZ!!!!!!"-momentu horretan aitak burua altxa eta begirada hiltzaile batez begiratu ninduen:

- "Joan zaitez etorritako bidetik! Edo nahiago al duzu nirekin pixkatxo bat jolastu?"-nik ez nuen gizon hura ezagutzen, ez zen nire aita, aitak sekula ere ez zidan horrelakorik esango. Baina zoritzarrez, errealitatearen aurrean nengoen eta hura nire aita zen. Amari begiratu nion eta hura egoera hartan ikusirik malkoz estali zidan aurpegia konturatu gabe.

- "Zu ere, ama bezalakoxea zara. Emakume guztiak berdinak zarete: beti negarrez."

Aitak zioenak min handia ematen zidan, eta gehiago amari egiten ari zenak. Oraindik ez dakit nola baina, berarengana urreratu eta matraileko bat ematen saiatu nintzen. Momentu hartan, ez nintzen nire buruaren jabe baina, egoerak hori eskatzen zidan, nahiz eta ematera nindoala aitak eskua harrapatu eta berak eman matrailekoa. Ama lurrean zegoen mugitu ezinik, begietan pasatzen ari zen sufrimentua ageri zuela. Zerua, dagoeneko ilunduta zegoen eta etxean gelditzekotan etorri banintzen ere, korrika eta negarraren indarpean alde egin nuen. Parke aldera jo nuen, burutik irudi mingarri horiek kendu ezinik. Parkera heltzean, ertz batean zegoen belarrez estaliriko lurzoru baten gainean eseri nintzen. Gaua beltza zen baina ez nire barnea bezain beltza. Zeruak, nire bizitzaren itxura zuen, ez ziren izarrak ageri ezta ilargirik ere. Ez zen alaitasunik ezta argitasunik, nire bizitzaren antzean. Gora begira nengoela, norbaitek bizkarrean kolpe bat eman zidala konturatu nintzen eta atzera begiratzean, mutil bat ikusi nuen. Ezer esan gabe, nire aldamenean eseri zen eta biok ixil-ixilik, zerura begira geunden. Hiriko argiak gure aurpegietan isladatzen ziren. Ez nekien nor eta nongoa zen baina, bere alboan, zer edo zer arraroa sentitzen nuen. Oso eroso eta salbu sentitzen nintzen. Bapatean, elkarri begira gelditu ginen biok, oraindik ere hitzik esan gabe. Ez dakit zer gertatu zitzaidan, baina oso urduri nengoen. Begietara begira neukan eta ni ere bere begietara. Benetan ederra zen, begi berdeak zituen, hiriko argiekin batera disdisean eta disdira hori, barnera arte sartu zitzaidan. Denbora luzez horrela egon ondoren hau esan zidan:

- "Oso begi politak dituzu."-Ni, mutu gelditu nintzen, ez zitzaidan hitzik ateratzen. Azkenean zera esan nion:

- "Zuk politagoak."-eskua altxatu eta nire ilea laztantzen hasi zen. Gero eta hurbilago geunden bata bestearengandik. Oraindik aurpegian malko batzuk nituen eta bere eskuez lehortuaz, esan zidan:

Ondo al zaude? Zer duzu? Ni, Asier naiz eta zu?"-Arene nintzela esan eta dena kontatu nion. Nik ere ez nekien ondo zer zen egiten ari nintzen baina momentu hartan ondo sentitzen nintzen, pena guztietatik aske. Dena kontatzean, eskuetatik heldu eta are gehiago hurbildu zen nigana. Amets bat zirudien hark, amets zoragarri bat. Bapatean, muxu gozo bat eman zidan ene

ezpainetan,ene bizitzako muxurik politena izan zen. Une hartan, nire bihotzaren barrenean argitxo bat piztu zitzaidan lasaitzearekin batera eta musua itzuli nion. Bere ezpainen gozotasuna zoratzekoa zen.



Inoiz sentitu ez nuen zerbait sentitu nuen, maitemintzen ari nintzela konturatu nintzen. Asierrek, pena guztiak uxatu eta zoriona aurkitzen lagundu zidan. Gau osoa eman genuen parke hartan elkarren ondoan, gutaz biotaz hitz eginez.

* * *

Trin, trin, trin!!! Patrikako telefonoa joka ari zait.

- "Bai, esan?"

- "Aupa Arene, zer moduz?"

- "Ah, aupa Ibone. Ondo esan beharko! Zer berri?"

- "Zaharrak berri! Apunteak uzteko moduan al dituzu?"

- "Bai, pasa zaitez zazpiak aldera nire etxetik."

- "Ondo da, gero arte."

- "Bai, gero arte."

* * *

Oso azkar pasatu zitzaidan gaua eta eguzkia nola irtetzen zen elkarrekin ikusi genuen. Lorik egin ez arren, indarberrituta sentitzen nintzen eta aurrera jarraitzeko indarrak berreskuratu nituen Asierri esker. Baina zorientasunak berriro nire bizitzatik alde ez egiteko, amaren ondora itzuli eta zulo hartatik, aitaren menpetik, atera behar nuen, ama egoera hartan ikustean ez bainintzen bene-benetan zoriontsu. Beraz, Asier ta biok agurtu eta gurasoen etxerantz abiatu nintzen. Gainera ordu honetan aita ez zen etxean egongo eta dena errazagoa izango zen. Etxera heldu, atea ireki eta amari deika hasi nintzen. Ez zuenez inork erantzuten, sukaldera sartu nintzen eta inor ez zegoela ikustean, egongela eta logelak arakatzen hasi nintzan. Zirudienez ez zegoen inor etxean beraz, besaulkian eseri eta telebista pistu nuen. Komunera joateko gogoia etorri zitzaidan eta poltsa

egongelan utzita bertarantz urreratu nintzen. Komunera sartzearekin batera...

- "AAAAAAAAHHHHHHHH!!!!!!!"-lurrean odol putzu bat zegoen amaren gorpuaren ondoan. Ezin zitekeen egia izan! Ama hilda aurkitu nuen, burua komuneko zuloan sartuta zuela eta bizkar partean labana handi bat nabari zitzaiola. Zer egin ez nekiela gelditu nintzen berari begira negar batean. Gorputza dardarka nuela eta gertatutakoa sinetsi ezinik, telefonoa hartu eta ertzaintzari deitu nion. Ertzaintzaren ikerketen arabera, aita zen heriotzaren erruduna. Albiste hark benetan beldurtu ninduen. Begi-bistakoa zen beraien arteko harremana ez zegoela aldirik onenean baina, ez nuen sekula ere pentsatu horrela amaituko zenik. Bi egun beranduago, hileta elizkizunak egin ziren eta egun bi horietan, ez nuen Asierren berririk izan, baina hiletara heldu nintzenean, han zegoen nire zain. Hura ikustean, ez nengoela bakarrik sentitu nuen eta ene bihotzeko argiak gero eta indar gehiagoz argitu zidan barnea eta bizitza. Besarkada handi bat eman zidan eta une latz eta gogor haietan nire ondoan egon zen, bere babesa, berotasuna eta maitasuna eskeiniz. Berarengandik izan ez balitz orain ez nintzateke hemen egongo eta hori beti eskertuko diot. Bera zen bizitzeko gelditzen zitzaidan arrazoi bakarra.

* * *

Aita, gartzelan dago, behin ere ez naiz joan bisitan eta joateko asmorik ere ez dut. Sekula ere ez diot barkatuko egin zuena. Ni orain zoriontsu naiz Asierren ondoan eta berarekin bizi naiz. Oroitzapen mingots horiek lurperatu ditut nahiz eta oraindik irudi garratzak buruan itsatsita eduki. Gogor saiatu arren, ezin izango dut sekula ere amaren azken irudi hura eta gau hartan zenbat sufritu zuen ahaztu, hura izan baitzen bere "AZKEN GAUA".

MAITASUN IRAGANKORRA

*Egilea: Nerea Bilbao Monasterio
DBH 3. maila*

-Zatoz hona laztana- hitzak denboran bertan galtzen zirela ematen zuen.- emaiozu musu bat zure amonari- begiak, malkoz beterik, besoak ireki zituen bere iloba besarkatzeko.

-Asko maite zaitut.- Shulimak ezin zituen bere masailatik behera zihoazen malkoak ezkutatu- Postalen bat bidaliko dizut, eh?

-Hobe duzu joatea.-amonak, bere tristezia, kezka, estutasuna eta negargura erakusten zituen begirada bat botaz - kontuz ibili, ene maitea, eta kontuz mutilekin, entzun duzu?

-Bai.- zaktoa esku artean harturik.- amona, banoa, berandu da eta ez dut nahi nire ametsa berandu heltzeagatik bertan behera utzi. Agur.

-Agur laztana... zaindu asko! –eskua airean zuela agurtu zuen Shulima.

Hau hodeiertzean galdu zen gauak irentsi balu bezela. Erabakia hartua zuen, mundu berria zuen beste aldean itxaroten.

* * *

-Listo.- motxila itxi eta eskuaz burua igurtzi zuen.- Ahh! Hau bai hau burua!- gaumahaiko argazkiari begirada samur batekin musu eman zion.- familia, familia da.

-Yihad! Mutiko... berandu da, zoaz lehen bait lehen!- Aluk bere irribarre alaiarekin.- lagun, ez ahaztu nitaz.

-Zutaz? Zutaz ahazterik ez dago- besoak ireki zituen kidetasun zeinu batekin.- zatoz hona Alu...

-Umekeriak utzi eta zaindu, entzun?- aurpegiko irribarrea desagertu zitzaion.- arriskutsua da, baina lortuko duzu.

-Agur lagun, banoa... Mundu Berrira.

Aluk begirada alboratu zuen bere malkoak izkutatuz. Yihadek ere ez zion aurpegira begiratu, bere laguna negarrez ikusteko beldurrez, edo, bere malkoak erakusteko beldurrez.

* * *

Han zegoen. Bai, hura zen patera. Sakonera gutxikoa eta hamar bat pertsonen edukierakoa. Shulima itsasertzera hurbildu zen eta begirada sakoneko gizon ilunari agindutako dirua eman ostean, ontziaren zoko-moko batean eseri zen, ixilik, beldurturik eta pozik, azkenik lortuko zuelako bere ametsa.

* * *

-Tori, lagun- eskua luzatu zion libra sorta batekin.- eta alaitu aurpegi hori, bai?

Gizon ilunak hitzik ere esan gabe eskuarekin paterara igotzeko agindu zion. Yihad, mutil alai eta aparta zen. Bere irribarre zabalarekin gaueko iluntasuna, txaluparen ixiltasuna, Shulimaren ba-kardadea betetzeko prest zetorrela zirudien.

* * *

Olatuek patera gogorki astintzen zuten. Ilargiak, zeruan jarraitzen zuen zorrotz, bakarti, lasai hodeiek ferekatzen zuten bitartean. Dena zelatatzen zuela zirudien eta noizbehinka keinu lagunkoiak egiten zituela ematen zuen.

Gauaren iluntasunean hotzak mila labanen antzera ebakitzen zuen azala. Shulima lepoko beltz batean bilduta zegoen, dardaraka.

-Hotzez dardaraka zaude, tori nire euritakoa.

Ahots hura... zein gozoa...! Yihad hurbildu zitzaion Shulimari bere jake gorria eskeiniz.

-Eskerrik asko.

Lotsaturik, irribarre gozo bat erakutsi zuen bere aurpegian. Haren ezpaineak hitz haiek esatean..., Yihad maitemindu egin zen. Hain zen polita, hain gozoa... gau osoa berari begira eman zuen eta sentitzen zuena azalgaitza zen... haren begi beltzak, azal beltzarana eta aireak astintzen zuen ile hura... Yihadek inoiz sentitu ez zituen sentipenak agerian azaltzen hasia zen.

* * *

-Nola duzu izena?- ausartu zen Yihad azkenik.

-Shulima. Eta zu, nor zaitugu?- oso urduri zegoen, zergaitia ez zekien baina argi zegoen mutil haren begiak, aurpegia...dena, bereziak zirela.

-Yihad.- Shulima bere pentsamenduetatik iratzarri zuen ahots harek. Yihad, zein izen polita...

-Ondo al zaude?

-*Bai, barkatu. Nire gauzetaz pentsatzen nengoen, besterik ez <<Zein ederra den! Maiteminduta nagoela uste dut... maiteminduta.>>*

Yihad pentsatzen ari zen. Bere bizitzako neska zen, argi zeukan, << nire bizitza zurekin igaro nahi dut>>.

* * *

-Shulima.- bere ezpainak Shulimaren belarrira gerturatu zituen.-
MAITE ZAITUT.

Musu batekin erantzun zion.

-Eraman nazazu zurekin Yihad, ez nazazu bakarrik utzi. Zurekin egon nahi dut.

-Ez izan beldurrik, eramango zaitut, biok elkarrekin pozik biziko gara. Patera zantar honetatik irtetzerakoan dena desberdina izango da. Hori esan arren bazekiten Tarifara heltzean dena amaituko zela. Beraien maitasunak sendo iraungo zuen baina denbora euren kontra zeukaten.

* * *

Tarifako kostaldea hurbil zegoen. Mundu berria zen. Bertako argitxoak, usaia... dena zen majikoa, beti amestu zutena. Tánger-eko argi ahulak bertan behera utzi zituzten eta orain Espainiako kostaldeko izpiek iluminatzen zuten beraien etorkizuna izango zena. Portuko bar-kutxoak, gero eta hur-bilago zituzten, mundu berria zeukaten han, hain hurbil... Tánger-etik batzuetan be-helainorik gabe, ikusten zuten Cadiz-eko kostaldea baina alde egindako kostalde horretatik puntutxoak besterik ez ziren ikusten, hain urruti... orain han zeuden, sentipenak nahasturik, bihotza bularretik irtetzeko zorian eta ilusioa begietan. Kostatu zitzaaien: hotza, miseria, dirua... baina merezi zuen, azkenik luxuzko bizitza zuten zain.

* * *

- Orain zer?.- Shulima, kezkatu, bere buruari airean galtzen ziren galderak egiten zizkion etengabe.

- Kostaldera heltzean, zatoz nirekin, ez zaitut inoiz utziko laztana.

Baina korrika egin beharko dugu. Aluk esan zidan poliziak zain egoten direla eta harrapatzen baldin bazaituzte, itaunketa luzea jasan ondoren, berriz ere Tánger-era bueltatzera behartzen zaituztela.

Yihadek Shulimari begirada estitsu bat eskeini zion, baina honen barrenean kezka zen nagusi: kontinente berri hura, etorkizuna, Shulima...

* * *

-Adi, eskuinaldean.-agindu zuen.- ez dute lortuko hona sartzea.

-Ez dago eskubiderik.- esan zuen ahots sakon batek- diru mordo bat ordaindu, bizitza berri bat topatzeko asmoz, eta berriz ere bueltatzeko. Engainatu egiten dituzte, ez dago eskubiderik...

-Gainera gu ere zelatan egotera behartzen gaituzte, eta egunero hemen egon beharrak ez nau asko alaitzen, egia esan.

* * *

Hondartzara heldu aurretik uretara salto egin zuten pateran zeuden hogeitabi pertsonak. Yihadek salto egin eta Shulima eskutik zuela korrika egiteari ekin zion nora joango ziren argi ez zutela. Bapatean, Yihadek esku bat nabaritu zuen bere sorbaldan gogorki eusten. Gizon hark polizia ematen zuen. Begirada gorrotagarri bat bota zion. Hizketan ari zitzaion, baina hizkuntza arrotz batetan.

-Shulima zoaz! Zoaz! Zure ametsa egia bihurtu...! Maite zaitut!

Shulima, ikaraturik korrika desagertu zen hondartzaren sakoneran, atzera begiratu gabe, aurkituko zuenarekin beldurrez. Yihad poliziek harrapatu zuten; bere maitea, bere bizia zena ez zegoen berarekin, dena amaitu zen. Maitatzeko gau bat soilik izan zuten, baina gau hura, bere bizitzako gaurik onena iruditu zitzaion: Yihad eta bera, gorputz bera bailira bezela, elkar ferekatu zuten, hitz goxoak, begiradak...

Zergaitik da hain laburra maitasuna eta hain luzea ahanztura? Shulimaren barnean hainbat eta hainbat galdera zeuden. Malkoen mingostasunak bere ezpainetan irauten zuen Yihaden musuen goxotasunarekin batera. Dena amaitu zen, dena hasi zen:


“Agur Yihad, Kaixo mundu berri”.

* * *

<<...Cadiz-eko kostaldeko hondartza batetan etorkin gazte baten gorpu bat aurkitu dute poliziek. Dirudenez neska gazte hau Tánger-etik zetorren patera batetan, eta gau guztia hondartzan eman ondoren, hotzaren hotzez hil egin da. Euritako gorri batekin topatu dute eta S.T.W izenez identifikatu dute.

Egun, Cadiz-ko biztanleak ohituta daude gertaera hauekin, egunean berrogei afrikar baino gehiago hiltzen baitira. Egoera deitoragarrietan datozen etorkin ilegalak...>>

Irratia amatatu zuen, bere begirada urrunean galduta zuela. Etxera bidean zihoan, berriz ere bere ametsa bertan behera utzita. Shulima hilik zegoen, eta berak bere burua hil egingo zuen lehenbailehen. Ezin zuen egoera hura jasan, maitasunik gabe, dirurik gabe... Bere etxera berriro poliziarekin eta hamar bat lagunekin.



DENBORAREN MAKINA

*Egilea: Leire Meabe Agirre
DBH 1. zikloa*

Dena uztaileko egun lehor batean gertatu zen. Ni irakurtzen nengoen logelan. Afrikako haurrei buruzko liburu bat zen. Liburu honetan deskribatzen zuen nolakoa zen Afrikako haurren itxura, bere kultura, nolakoak ziren bere bizitzako baldintzak, etab.

Asko gustatzen zait irakurtzea eta baita ere idaztea ere. Australiarra naiz eta Townsville herrian bizi naiz. Herri hau Australiaren ipar-ekialdean dago. Ville kalean dago nire etxea eta guraso, neba eta ahizparekin bizi naiz.

Nire ahizpa ordenagailura itsatsita zegoen, beti bezala. Nebak, Tomyk, futbol amerikarreko entrenamendua zuen. Ama berriz, berridearekin hitzegiten zegoen. Eta garajea aita, bere asmakizun leloak ikertzen.

Liburua irakurtzea bukatu bezain laster, patinak hartu eta lagunekin irten nintzen kalera. Lehenengo nire bi kideei etxeko txirrina jotzera joan nintzen. Denok batera geundenean parkera joan ginen. Bapatean gure laguna Cathering ahateen ur-putzura erori zen. Honek, eskua hautsi zuen. Gero etxera itzuli nintzen. Bidean kale bazterrean arlote bat ikusi nuen, haur txiki batekin. Ez zuten non lo egin, ezta janik ere. Nik pizza bat neraman eta beraiei eman nien, arrangura ematen zidatelako.

Azkenik etxera heldu nintzen. Patinak kotxean sartu behar nituen baina lehenengo giltzak behar. Atariko kaxoian begiratu nuen, baina ez ziren giltzak ageri. Orduan nire logelara joan nintzen. Bertan etxeko lanak egin ondoren, logela txukuntzen hasi nintzen. Hark nire logela baino basapiztien gela zirudielako. Lehenik apaletako hautsa kendu nuen eta gero kaxoiak ordenatu nituen. Patinak hartu eta han abiatu nintzen. Giltzakin atea irekitzean izugarrizko zirrara sartu zidan makina erraldoi. Trankil samar bat ikusi nuen. Patinak apalean utzi eta makina ikustera joan nintzen.

Metaleakoa zen eta kanpoaldean leiho bat zuen. Barruan milaka botoi ikusten ziren eta baita urteko hilabeteen eta egunen bilduma ere, egutegia.

Makina honetako giltzik ez nuenez, berriz nire logelara bueltatu nintzen. Bertan nire ahizpa Elizabeth zegoen. Dena kontatu nion, baina ez zidan sinistu. Gero amak deitu zigun:

- Haurrak, etorri azkar afaltzera!.

Denok burrunbada batean, eskaileretatik behera jaitsi ginen sukaldera. Jaten geundela nire aitak esan zuen:

- Aizue! Norbait sartu al da garajea? – ni isilik gelditu nintzen eta berriro galdera berdina egin zuen.

- Norbait sartu al da garajea?Beno, ba inor sartu ez badaere, ez sartu mesedez - ezarri zuen.

- Zergatik aita?- zioen Tomyk.

- Nire gauzak, nire gauzak,... – erantzun zuen aitak.

Jarraian denok aurrean geneukana bukatzea ari ginen bitartean, nire aitona etorri zen. Gauero-gauero etortzen da nire neba bikiari ipuinak kontatzera. Honi ipuinak asko gustatzen zaizkio eta aitona oso pozik etortzen da.

Afaria bukatu bezain laister denok logeletara igo ginen. Ama eta aita ohera joan ziren. Elizabethek ipuinak haurren kontuak zirela eta orduan ordenagailuan jolastera joan zen. Tomy eta ni aldiz, ipuina entzuten gelditu ginen. Honek honela zion:

“Bazen behin July izeneko neska eder bat.”

- Aibala! Ni bezala! – eten nuen.

- Bai. Desberdintasun bakarra bera ederra dela zu ordea, ez. –Tomyk erantzun zuen.

- Beno, jarrai dezagun – berriro nik.

“Neska hau Towsville herrian bizi zen. Hain zuzen ere gure ondoko etxean. July jolasten zebilela, bapatean izugarrizko makina bat ikusi zuen kale erdi-erdian.Orduan July, tramankulu harrigarria ikuskatzen hasi zen.”

“Barruan milaka botoi zituen eta gainera metalezkoa zen. Neskatilak atea ireki zuen eta txundituta gelditu zen ikusitakoarekin. Makinaren erdialdean eserleku bat zegoen. Neskatila hemen eseri zen. Eta txist! July une batetik bestera beste toki batean zegoen”.

“Orain dela 100.000 urteko garaian zegoen, Behe Paleolitoan. Garai honetan Homo-Erektusak ziren nagusi. Hauek famili txikietan bizi ziren eta fruitu bilketatik ateratzen ziren bizimodua. Harri eta zuhaitzetako adarrez txabolak egin zituzten”.

“July Nabairo tribuan agertu zen. Familia hontako jende guztia berari begira gelditu zen. Nabairo tribukoentzat estonagarriena Julyren eskuordularia zen. Honek “tik-tak” hotsa egiten zuen. Gainera bere orratzak

mugitu egiten ziren. July, egun batzuen poderioz, beraiekin ondo elkartu zen. Hain ondo ere ez zuela bere eguneroko bizitzara itzuli nahi: aire oso garbia; mendiak berdez jantziak; itsaso urdinak, zaborrik gabekoak; auto zaratatsurik gabe,... Naturak emandako baliabideekin sorturiko bizitza.”

- Bukatu al da aitona? – nioen nik.
- Bai haurtxoak, bai – aitonak.
- Ze pena! – esan zuen Tomyk.
- Baina, bihar etorriko naiz. Bihararte! –agurtu zen aitona.
- Bihar arte! Eta eman musua gure partez amonari! – esan genuen Tomyk eta nik.

Izan ere amona bere etxean dago. Buruko minbizia dauka eta orain oheratuta dago. Dena guk sortzen dugun kutsaduragaitik da. Gustatuko litzaidake hau aldatzea. Bakoitzak, ahal duen neurrian gutxiago kutsatzea.

Aitona joandakoan hortzak garbitu eta ohera saru ginen Tomy eta ni. Aitonak kontatutako ipuin hark esna eta pentsakor eduki ninduen gau osoan. Ipuin hau, egun hartan garajea ikusi nuen makinarekin alderatzen nuen.

Hurrengo goizean ikastolara joan baino lehen, garajera jaitsi nintzen. Bertan aita zegoen. Pixkat disimulatuz berarengana hurbildu nintzen. Bere sakelean ikusi baintuen giltzak. Orduan isil-isilik aita ohartu ez zedin giltzak kendu nizekion.

Gosaldu bezain laster amaren autoan sartu ginen, ikastolara joateko. Bederarzirak jotzean gelara sartu nintzen. Lehen orduan matematika genuen. Ikasgai hau zen nire gogokoena, andereñoa kafea hartzen joaten zen eta honela gu bakarrik gelditzen ginelako. Bigarren orduan aldiz, ingelesa geneukan, ez zait batere gustatzen, oso aspergarria da. Orduan pentsatu nuen etxeko makina irekitzeko momenturik onena zela, giltzak baintuen. Baina nire galdera zen: nola helduko naiz etxera? Erantzuna erreza zen. Bigarren orduan buruko mina nuela esango nuen. Andereñoak honela etxera bidal nezan. Hasi zen antzerkia. Dena primeran joan zen eta andereñoak taxi batean etxera bidali ninduen. Izan ere, handitzean aktore izan nahiko nuke.

Etxera sartu eta garajeko makina ikustera joan nintzen. Giltzak hartu eta makinaren atea ireki nuen. Milaka botoi zeuden. Bertan eserleku bat zegoen eta bertan eseri nintzen. Botoi haietako lau pultsatu nituen. Bultzatutako botoiak zeintzuk ziren agertu zen pantaila erraldoi batean: 2, 1, 7 eta 8 ziren zenbaki haiek. Bapatean txist! 2178. urtean agertu nintzen.

Hiri izugarri handi batean nengoen. Afrikako Zaire herrialdean, hango hiri batean. Txundituta gelditu nintzen nolatan 3. munduko batek, hain aldakuntza handia egitea. Teknologian izugarrizko aurrerakuntzak egin zituzten; zaborteak zaborrez gainezka; autoak zerutik zebiltzan; etxeek milaka metro luze zituzten; tabernetan errobotak zerbitzaritzat zeuden,... Baina naturan izugarrizko hanka sartzea egin genuen: zaborteak gainezka, itsasoaren kolorea, kolore ugarietakoak zen, zaborraren ondorioz,..Jendea gero eta alferragoa zen. Lehen, 2002. Urtean, gure populazioaren % 35^a langabezian zegoen. Orain ordea "langagoezian". Gero eta gaixotasun gehiago zeuden. Minbiziaren gaizoa zen nagusia. Hiri honetan egon ondoren konturatu nintzen 2002. Urteko denbora hobea zela 2178. Urtekoa baino. Honek ikusiarazi zidan denboran aurrera egiten genuen neurrian, natura suntsitzen ari ginela, era berean pausuak atzeruntzematen. Egoera honi askabidea emateko zerbait pentsatu beharra neukan. Baina lehenik nire eguneroko bizitzara bueltatu behar.

Herri guztian zabaldu nuen albistea. Udaletxeak ere arazoa ikusita toki guztietan neurri batzuk hartu zituen. Gero eta aire garbiagoa zegoen. Horretaz gain esan behar nire aitak kotxe elektrikoak asmatu zituela, eguzkiaren indarrarekin mugitzen direnak.

Gizakion bizitza askoz hobea izan zen. Baina denon laguntza izan behar genuen. Garrantzitsuena denok planeta hontako parte txiki bat garela. Eta denok batera planeta suntsitu dugun bezala, konpondu ere egin dezakegula.

KITTANO KONTUAK

*Egilea: Andere Zobaran Santos
DBH 1. Zikloa*

Kontatzera noan ipuin hau zeuretzako da irakurle, zeuretzako bakarrik, gero inori konta nahi badiozu, zuk zeuk erabaki.

Gure etxe aurretik kittano asko pasatzen dira. Ipuina, mundura bidean gurean gaua egin zuen kittano zahar batek kontatu zidan, eta nik zuri kontatuko dizut, neuk gogoratzen dudan moduan.



Munduan beste asko lez, harantz eta honantz zaldien atzetik dabilen gurdi batean Emsale zeritzon neskatila bat bizi zen, etxe ibiltari hartako txikiena zen eta bere ama bezain polita. Naim eta Isa, Emsalen neba bikiak, aita bezalakoak ziren eta beti zebiltzan elkarrekin borrokan eta matrakan. Esmaleri eta bere ama Esmari orde, inguruak ezagutzeko ibilalditxoak egitea gustatzen zitzaien heltzen ziren herri bakoitzean.

Ama-alabak, basotik oster bat egiten zebiltzan egun batean, artzain bat aurkitu zuten bidean artaldearekin, artzaina gaztea eta dotorea zen Esmale begira-begira gelditu zitzaion baina artzainak ez zion kasurik egin. Zalgurdia kanpatuta zegoen tokira heldu zirenean, alabak, ea artzainak zergatik ez zion berari kasurik egin galdetu zion amari. Amak ez zion ezer erantzun eta Esmalek ohe gainera bota zuen burua negar baten.

- Ez dut ezer balio...Ez naiz ezer! Itsusia naiz, ez nau inork maitatuko- esaten zuen negarrez, ez zuen gurditik irten gura eta jateari utzi zion. Aita eta ama kezkatuta zeuden eta ez zekiten zer egin, orduan Isa eta Naimek eurek bazekitela zelan konpondu esan zien gurasoei.

- Branen gaztelupeko zelaian dagoen gaztaina arbolaren zuloan Kakanarru mandolina jolea bizi da –esan zuen Naimek- noizean behin gaztainapeko harri gainean egoten da joe eta jo.

-Izatez bera,-jarraitu zuen Isak- lupua baino motzagoa da, katurako berriz nardagarria baina haren mandolinaren soinua entzuten duen neska guztiak maitemintzen dituela diote.

-Laguntza eske joango bagina zer?—proposatu zuen Naimek.

Gurdia zaldiari lotu eta Branera doan bidea hartu zuten. Gaztelupera heldu orduko Emsalere eta Esmā bere amak belarriak argizariz estali zituzten ezer ez entzuteko.

Isa eta Naime hurreratu egin ziren eta inork baino arinago entzun eta ikusi zuten Kakanarrua. Mandolina jo eta kantuan ari zen, beti bezain trakets. Hurbildu ziren gaztainondora eta deiadarka hasi ziren.

-Kakanarru, Kakanarru madarikatua! Non zaude? Zatoz hona zure laguntza behar dugu-eta.

Bat batean hantxe agertu zen zarataka:

-Nork deitu dit!

-Guk -erantzun zioten bikiek-.

-Zertarako behar nauzue mutilak?

-Gure arrebari laguntzeko.

Anaien eskaria entzun eta gero, kakanarruak baietz esan zien, baina mesedearen truke, berak emandako zinginarri bana eramā beharko zuten kokotetik eskegita eta gainera beste bi euren gurasoentzako zirela, bestela ez zela ahizparen ametsa beteko. Mutil biek baietz esan zuten,(zinginarria begizkoaz babesten duen kuttuna izanik zergatik ez?).

Orduan kakanarruak “eutsi,-esan zien- zure arrebak mandolina hau jotzen duen bakoitzean, mutil guztiak erakarriko ditu, beraz artzaina ikusten duenean mandolina jotzen badu erremediorik gabe maiteminduko da. Baina ez ahaztu zinginarriak, emandako hitza”.Bi anaiak mandolina hartu eta gurdia zegoen lekura abiatu ziren. Hara heldu zirenean arrebari eman zioten musika tresna sorgindua, baina ez zioten azaldu nola erabili behar zuten. Gurasoei ordea, zinginarri bana oparitu zien idunetik eskegi zezaten.

Hurrengo egunean Esmale basora joan zen artzainaren bila,baina ez zuen aurkitu eta negarrez hasi zen. Negarrez zegoen bitartean kakanarrua agertu zitzaion barreka eta huxe esan zion:

-Neska tentel hori zertarako pentsatzen duzu dela gitarra txiki hori?

-Bai, badakit mutilak erakartzeko.

-Eta zelan nahi duzu artzaina erakarri ez baduzu jotzen?

Esmale jotzen hasi zen eta handik lasterrera artzaina agertu zen guztiz maiteminduta, baina ez zettorren bakarrik berarekin mandolinaren musika entzundako beste bi artzain zetozen, zein baino zein

maiteminduago. Baina neskatilari berdin zitzaion ,berak artzaina nahi zuen eta bost axola beste biek sentitzen zutena.

Artzainarekin batera, gurdia zegoen kanpalekurantz abiatu ziren. Bidetik poz-pezik zihoan Esmale, bere bihotzeko artzainarekin olgetan, bidetik ezkontza planak egiten zihoazen, batak esaten zuen ezkontza gaur bertan izan behar du, besteak ez, hobe da itzarotea erraz eta zati askotan apurtzen den pertxa aurkitu arte, horrela gorantz bota eta erortzerakoan apurtutako zatiak gehiago izango dira eta urte gehiago egongo gara elkarrekin. Horretan zihoazela ez ziren konturatu beste bi artzain gazteak atzetik zetozenik eta bidean aurrera egin ahala, amodioa gorroto bihurtzen ari zitzaienik.

Zalgurdira heldu zirenean, asko poztu ziren guztiak eta aurpegi ikusteak egin ondorean ezkontza eguna jarri zuten. Hurrengo ilargi betean, gaueko hamabietan, apurtuko zuten pertxa.

Eguna heldu zenean, Esmalek baztertutako bi artzain gazteak heldu ziren eta oparia zekarten ezkongaiantzat mandolina, elkar ezagutu zuten egunean ahaztuta utzi zuten lau sokazko gitarratxoa. Joten hasi ziren, batak jo eta besteak kanta egiten zuten, eta kantuak hauxe zioen.

Txerrenek eman dizu
Mandolina zuri
zoriontsu izatea
zor diozu hari

Bere zorra kobratzen
honaino etorri
orain obedientzia
zor diozue hari

Kantuan ari ziren bitartean Isa eta Niame bere bi neba kuttunen idunekoak, hau da zinginarrien lokarriak sama estutzen ari zitzaien eta arnasestuka lurrean eserita gelditu ziren, begiak zabal-zabalik eta lelotuta hutsari begira. Gurasoak berdin elkarri helduta eta lurrean belauniko aurkitu zituzten, ezin zuten ibili ez barbarik egin... Oker sorgindutako zinginarriak arimak lapurtu zizkietelako.

Halako batean algaraka zetozen bi artzain gazteak zeuden lekutik. Esmalek begiak hara bueltatu zituen eta deabru itxurako bi kakanarru ikusi zituen barreka eta deabru madarikatuok familia guztia eraman zuten. Mesedearen ordainetan.Esmalek orduan bai egin zuela negar, artzainak orde, beldurtuta alde egin zuen.

Mandolina sorgindua berriz, hantxe geratu zen bide bazterrean eta ipuin hau kontatu zidan kittanoak aurkitu zuen arte, orain ipuin hau mundutik dabil kontatzen, batean hemen , bestean han eta hurrengoan, batek daki non!.

Behar bada egunen batean iritziko zaizue ipuin hau, eta heltzen zaizuenean zeuek erabakiko duzue aintzat hartzea merezi duen ala ez. Nik behintzat sinesteko ez dizuet eskatuko, baina gezurra denik ere ez dut nik esango.

GOGOETA

Egilea: Emma Yarza Irusta
DBH 2. ZIKLOA

Maitasuna. Zer da maitasuna? Nire buruan bueltaka dabilen galdera honi ez diot inolako erantzun egokirik aurkitzen. Esan genezake, ia egunero entzun ohi dugula maitasuna gora eta maitasuna behera, baina benetan, norbaitek ba al daki zer den zehazki norbait edo zerbait maitatzea? Esan nahi dudana da, ea norbait gai izango litzatekeen zer den hitzez adierazteko. Askotan, komunikabideetan, eta batez ere telebistan, norbait maiteminduta badago pozez gainezka dagoela eta dena ondo doakiola ikusten dugu. Baina hori horrela da beti? Nik ez dakit, baina irudi horiek ikusita, ematen du amodioa ikaragarria izan behar dela.

16 urte besterik ez ditut eta gutxi dakidala uste dut maitasunari buruz, baina nire lagunak ikustean konturatzen naiz beraiek baino gehiago badakidala. Gazte guztiak bezala, telebistaz itsututa daude. Horregatik ematen dizkiot eskerrak nire bihotzeko amonari, bera izan baita dakidan guztia irakatsi didana. Pena da orain gurekin ez egotea, duela pare bat hilabete joan baitzitzaigun zerura, baina ez da triste egoteko ordua nire amonagatik, bera asko bizi izan delako. Maite. Hori da nire izena eta ondorengo lerroetan, maitasunari buruzko benetako zenbait istorio kontatuko dizkizuet nire amonak lehen egiten zuen moduan.

Zazpi urte nituela kontatu zidan lehenengo gertakizuna, honela esan zidan: “Zortea daukazu. Zuk eta hemen bizi zaretenok.” Nik harrituta galdetu nion zergatik eta jarraitu zuen esaten: “Ba gizarte honetan nahi duzunarekin ezkondu zaitezkeelako. Gogoratzen naiz, zer gertatu zitzaion nire lagun Ahmure Simhundi-ri (Marokokoa). Berak 12 urte zituela, mutil koxkor batez maitemindu zen, txora-txora eginda zeuden biak. Esaten zidanez, mutila ikusten zuen bakoitzean, zirrara sortzen zitzaion barruan eta berarengana joan eta musuka hasteko gogoia izaten zuen. Baina herrialde horretan, ezkondu gabe zegoenak ezin zuen inolako erlazio sexual ezta erakartzen zuena izan. Orduan, bikoteak pentsatu zuten, arrunta izaten den zerbait adin horreki horrelako herrialdeetan, ezkontzea hoberena izango zela. Egun batean, Ahmure joan zitzaion aitari baimena eskatzera, baina zerri horrek esan zion ezin zuela. Izan ere, alabaren sentimenduak ezagutu gabe, txikitatik zuen akordio bat eginda beste gizon batekin bere

semearekin ezkonduko zela, nolabaiteko irabaziak ateratzeko elkarri zerbait trukean emateko. Hau entzun zuenean, neska negar eta negar aritu zen zazpi egun luzez. Igaro ziren egun hauek eta ezkontzaren eguna heldu zen; nola ez aitak bere boterea erakusteko lehenbailehen jarri zuen ezkontzaren eguna. Bitartean, maiteminduta zegoen mutikoa ere nahiko gaizki zegoen, izan ere, honi berdina gertatu zitzaion.

Gauzak horrela zihoazela, ezkondu ziren biak, maite ez zuten pertsonekin eta bitartean gurasoak poz-pezik zeuden, nahiz eta beraien seme-alabak sekulako saminez egon. Ahmure ezkondu zen eta bere senarrarekin amodioa egiten zuenean ere, nazka sentitzen zuen. Ezin zuen horrela jarraitu, beti gogoratzen zen beste mutil dotore eta eder hartaz; gainera, ez zuen ulertzen gizon bat horren zikina izan zitekeenik. Bere senarra, bere aitaren berdina zen, ez zuen ezertarako emakume baten iritzia eskatzen ezta umeak izaterakoan. Horrela, urteak igaro ziren eta Ahmurek sei ume izan zituen: bi neska eta lau mutil. Orduantxe ere ez zuen ulertzen bere senarrak zergatik ez zien kasorik ere egiten neskei.

Konturatzen naiz orain, nolako bizitza daramagun hemen, zein ederra eta askea. Ahmurek, 30 urterekin hil zen arte, maiteminduta jarraitzen zuen bere lehenengo amodio eta bakarraz (urte hauetan guztietan, bi hauek hiru aldiz bakarrik ikusi zuten elkar, baina Ahmurek zioen bezela, merezi izan zuen). Beraz, esan dezaket, neska honi gertatu zitzaiona, gaur egun askori gertatzen zaiela eta oso tristea dela. Nola debekatuko diozu zure bestekoa den pertsona bati, nahi duena maitatzea?”.

Hauek izan ziren nire amonarengandik jasotako hitz gogorrak. Kontatzea bukatu zuenean, bion masailetan behera, negar ttantta batzuk erortzen ziren: alde batetik tristurarenak; eta bestetik amorru eta nazkarenak.

Oraindik gaztea nintzen eta ez nuen bada, nire bizitzako printzea aurkitu (10 urte besterik ez nituen). Baina, nire amonatxo kuttunak, bigarren gertaera azaldu zidan. Honela zioen: “Duela hamabost urte, Ainara ezagutu nuen. Neska gazte bat, 18 urtekoa, polita, atsegina... Kubara joan nintzeneko bidaian ezagutu nuen. Hitz egin genuen, honetaz eta hartaz, eta nola ez, maitasunari buruz. Ea mutil lagunik zuen galdetu nion eta honek baietz esan zidan, ezkontzera zihoazela (hau guztia, begirada triste bezain ilun batekin esan zidan). Orduan, malkotan murgildurik esan zidan, nola bera ez zegoen maiteminduta mutil hartaz, berak Ainhoa maite zuela.” Hau esaterakoan, mundua erori zitzaidala uste nuen. Neska gizajoa, negarra irtetzear nuen, baina amonak jarraitu zuen: “Duela hogeit hamar urte, homosexualitateari buruz ez zegoen informaziorik eta beldurra zen nagusi

halako zerbait entzutean familiaren baten. Ainara, 15 urte zituela konturatu zen bere lagun Ainhoa maite zuela, eta berdina gertatu zitzaion honi ere. Ainarak azaldu zidan, momentu horretan izan zituen sentsazio ezberdinak: beldurra inoiz halakorik ez zuelako ikusi; poztasuna, maitasuna ezagutu zuelako; nahastuta, ez zekielako zer egin... Azkenean, biek esan zien gurasoei... Ez dut uste aukerarik egokiena izan zenik, hauek izan zirelako errudunak, banatu zituztenak. Gurasoek, besteek zer esango ote zutenaren beldur, Ainara beste herri batera eraman zuten, Ainhoarekiko erlazioa erabat puskatu zuten, eta mutil bat aurkitu zioten bere gogoz kontra.

Orain, ez dakit nola egongo den Ainara, espero dut, gizon hartaz banandu eta Ainhoarekin zoriotsu izatea. Dakidan bakarra, garai hartan lur jota zegoela da. Ditxosozko gizarte honi botatzen zion erru guztia eta baita gurasoei ere.” Hau izan zen bigarren istorioa, lehenengoa bezain tamalgarria, baina espero dut gaur egungo gizartea kontu horiekin zertxobait aurreratuagoa dagoenez, nahiz eta behar den beste ez, Ainarak nahi duenarekin maitemindurik egotea, nahiz neska zein mutila izan.

Badakit zuek aspertzen ari naizela nire istorio hauekin, baina nire ustetan garrantzitsua da maitasuna nolakoa izatera hel daiteken jakitea. Hortaz, hor doakizue beste bat: “Nire beste lagun bat, Indiakoa zen. Nawja. Biok 16 urte genituen lehenengoz elkar ikusi genuenean. Zein neska eder eta alaia. Nire amak Indiara lehen aldiz eraman gintuenean ezagutu nuen. Bidaia hartan, bi aste egin genituen eta azken egunean, Nawja ezkondu egin zen berak atsegin zuen mutilarekin. Joan ginenean, behintzat, pozik zegoen eta noizbait ikusiko ginela esan genion elkarri.

Hori horrela gelditu zen, baina guk momentuz ez geneukan Indiara bueltatzeko asmorik, asko balio baitzuen. Baina halako batean, jada hamar urte pasata, begira nor agertzen den nire etxean eta Nawja zen! Baina nolakoa! Ezin liteke bera izan, nik gogoratzen nuena, inoiz ikusitako neskarik polit eta xarmantena. Baina orain... Zer geratzen zen bere aurpegi politarekin? Ezer ere ez zen gelditzen. Nik, etxera sartu, eta galdetu nion ea zer egiten zuen European. Berak esan zidan, etxetik alde egin zuela, diru pixka bat aurreztuta zuelako duela urte batzuetatik. Bat-batean, negarrez hasi zen eta bere gizonarekin gertatutakoa azaltzen hasi zen. Ezkonberriak zirenean, dena ondo baino hobeto zihoan, biak maitemindurik eta batak bestearenganako errespetu osoa zuen. Baina, handik eta hilabete batzuetara, bere gizona egunero joaten zen kalera eta berandu etortzen zen etxera, mozkor-mozkor eginda. Nawja-rekin ez ezik, gizon hura beste sei emakumerekin ezkondata zegoen eta denak batera bizi ziren. Horrek asko mindu zuen Nawja, baina beraien kultura betidanik izan da horrelakoa.” Ni harrituta nengoen, zazpi emakume zituen gizon batek? Zergatik ez zuten

ezer egiten? Nor maite zuen? 12 urte nituen eta nire burua erabat nahastuta nuen, baina amonari ezer galdetu gabe, honek jarraitu egin zuen: “Hori ez zen txarrena, ez jarri horrelako aurpegia. Ez dizut esan zergatik zuen horren aurpegi eskasa. Egun batean, gizon (horrela deitu ahal bazaio) hori oso mozkortuta joan zen etxera eta bere emazteei esan zien, tabernan esan ziotela Nawja oso polita zela eta berarentzat nahi zutela, bere beste emakume baten truke. Nawjaren gizonak hartu zuen haserraldia ez zen normala izan eta bururatu zitzaion lehengo gauza, azido sulfurikoa hartzea eta aurpegira isurtzea izan zen. Bai, bai, ondo entzun duzu, nolako zerrikumea hori eh?” Ezin nuen sinistu, momentu hortan, aurpegi guztia nola erretzen zitzaidan sentitzen ari nintzen. Min egin behar zion Nawja gaixoari. “Hori guztia zergatik eta ez zuelako nahi bere emakumeetariko bat inori polita iruditzea, berarentzat bakarrik izatea nahi zuen. Lehen zuen aurpegi politak, orain ez zuen aurpegi baten itxura ere. Nik ez nekien zer egin eta nirekin bizitzen geratzeko esan nion. Egin ahal genuena, berriz lehen bezala gelditzeko, edo behintzat bi begietatik ikusteko(izan ere, begi batetik ez zuen ikusten, azala eroria baitzuen), zera zen, zenbait ebakuntza egitea. Baina dirutza izugarria zen, beraz ez genuen ezer egin. Nirekin bizi izan zen pare bat urtez. Urte hauen buruan, ez zitzaion bat ere erraza egin moldatzea, jendeak mespretxuarekin begiratzen zion eta beti heltzen zen etxera negar hutsean. Azkenean, etxean egiten zituen egunak eta gauak, kalera irten barik. Askotan hitz egiten genuen, nola gertatu zitzaion eta berak ez zuena ulertzen zen, nola berak asko maite zuen pertsona horrek, horrelako gauza zikin eta bihotzbakoa egin ziezaiokeen. Benetan, ematen zuen Nawja oso maitemindurik zegoela gizon hartaz, baina baita oso haserretuta eta amorrusuz beterik.

Nik pentsatzen nuen hobeto zegoela hemen, egun batean, gure bainugelako lurtean odolez beterik aurkitu nuen arte. Bere buruaz beste egin zuen.” Biok, amona eta ni, negar batean hasi ginen eta jarraitu zuen hitz totelka: “Ez nuen ulertzen zergatik egin zuen... Beno, bai. Banekien, bere bizitza oso gogorra zela eta hori dena, baina ezin nuen sinistu. Gizon zerri, alu, berekoi eta harroputz batek hil zuen nire Nawja. Izan ere, niregana etorri zenean ere, ez zegoen oso-osorik, ez itxuraz ezta barrutik ere. Atsekabetuta zegoen, hilda bezala. Gainera gizon hori oraindik ere, beharbada, bizirik egongo da pozik, Nawjaz gogoratu ere egin gabe. Nola liteke horrelako gauzak gertatzea eta inork ezer ez egitea? Askotan pentsatzen dut hau guztia maitatzearen errua dela. Zertarako maitatu? Bergira zer gertatu zitzaion Nawjari, maitasunak hil zuen!”

Hau izan da hainbat eta hainbat istoriotako bat. Horrelakoak mila daude, baina ez dut gehiago esango. Idatzitako lerro hauetan, nire iritzia bakarrik eman nahi izan dut, nahiz eta asko ez jakin. Gainera, gehiago

ematen du nesken aldeko iritzia dela, baina ez da horrela. Honekin esan nahi dudana da, gehienetan, maitasun kontuetan, gaizkien ateratzen dena, neska dela. Hitz hauen ondorioz, ez dut nahi inor ezer irakurri ez balu bezala geratzea, pentsatzea baino; gogoetak egin norberarekiko.

Maitasuna... Ondorio batera heldu naiz. Ez du merezi inor maitatzea, berak ez bazaitu maitatzen eta gizarteak berarekin egotea eragozten ez badizu. Hau gertatuz gero, min askoren hartzailea izan zintezke. Baina, ez du zertan beti horrela gertatu. Adibidez, ni orain, ditudan 16 urte hauetan, lehen amodioaren zirrara dastatzen ari naiz. Beldur pixka bat dut eta nahiago nuke nire amonaxoa hemen balego, berak ni aholkatzeko. Hala ere, inoiz ez da ikasten, zerbait gertatu arte. Momentuz, nire hitzekin esan dezaket, maitasuna zoragarria dela, inoiz izandako sentimendurik puru eta sakonena. Urte batzuk pasa ondoren esango dizuet zer pentsatzen dudan, gaur idatzitako adierazpenei buruz.

GAZIA, GOZOA... GARRATZA

*Egilea: Garazi Barrenetxea Uriarte
DBH 2. zikloa*

Itsasoa, zabala izatez bera, hain zabala ezen historian zehar hainbat pertsonen ametsak irensteko gai izan baita inolako arrastorik ere utzi gabe. Sakona, hain sakona non hondoratutako historiak sakontasunean galtzen diren. Begietara handi zaigun altxor honek badu bere misterioa, betidanik ezagutu nahi izan dena, baina hartara aursartutako marinela bortizki eternitatean esekiak izan dira dama jeloskor honek behin lurrak lapurtu ziona berarengana bueltatzea lortzean. Ez, ez da nortasun borroka bat, duintasun kontua baino, antzinatik datorren lehia, marinela eta itsasoaren arteko kontua. Hamaikatxo belaunaldi igaro dira itsasoaren joan etorrien sorginkeripean, eta beste hainbat sorginkeripean zeudenen itzulerarik gabeko joanean.

Kontu hauetan ez dago atzera bueltatzerik, behin itsasoak begiz jo ezker ezingo da ezer ere egin haren atzaparretatik aldentzeko, berarekin bateratu arte ez du amorerik emango, eta berataz maitemindutako horienganako begirunea eta berarengana batzeko asmoa izan da hain zuzen ere betidanik familia asko apurtzera eraman duen arrazoietako bat. Emazteak senarrik gabe, alabak aitarik gabe, amak semeri gabe... Marinelaekin batera irentsitako beste hainbat bizi.

Bagoaz, ene portu zaharra, ene kaleak, ene karkaba eta kartzada atzean utziz urdintasunean galtzera, arima betetzen didan urdintasunera. Itsasoan babestuta sentitzen naiz, bere beso sendoen besarkada lasaigarria sumatzen dut haizearen bidez belarrira “zatoz, zatoz, zatoz” xuxurlatzen didan bakoitzean, eta “zatoz” horietako bakoitzak gehiago aldentzen nau “zoaz” oihukatzen didan kaitik, non bi begi bustiren dirdira igarri dezakedan, urruntasunaren beldurrez pentsakor dirautenak. Normala da, begirada hori oraindik ez baita ohitu bizitza honetara, baina apurka - apurka begi ninietan horizontea marrazturik dutela bizitzen ikasi beharko dute.

Berrero, berrero ere portuan zutik itzarotearen rutina jarraitzeari heldu beharko diot kolkotik. Ezin dut jasan, ni baino gogorragoa da baporea infinitoan urruntzen ikusten dudana bakoitzean barnea jaten didan sentimendua. Negarrari eusten saiatzen naizen arren, malkoak ahalik eta

arinen okotzetik salto egiteko gogoia daukatela dirudi, haizeak eraman eta edertasun horretako tanta bat gehiago izatera iristeko

Portua begibistatik galdua dugu dagoeneko, horma zuri batean margotutako puntu beltz txiki bat baino ez gara, gauzeztana, ipar uretara zuzendutako bidearen bila dabilena. Momentuz egoera lasaia da, arnasa sakon hartu eta inguratzen gaituen edertasunaz gozatzeko parada ematen digun egoera behintzat, mundutik urrun, tristuratik urrun, denetik urrun... inon ez.

Beno, hasi da harezko erlojuari buelta eman eta hondar bakoitza nola erortzen den begiratzeko sasoia, ezinegonaren sasoia. Momentu hauetan itxarongela batean egongo banintz bezala sentitzen naiz, norbaiten heriotza edo agian bizitza itxaropenen berri izateko zain dagoen senidea, ezer egin ezin duena, bere patuan bizitza dena eserita itxaroten igaro behar duela idatzita duena. Nork esan zidan neri marinel batekin ezkontzeko? Ez zen ez aukera ona izan berau, senarrak darabiltzan joan etorriekin ia ez baitugu elkar ezagutu ere egiten, eta eskerrak behintzat orain arteko bidai guztietatik itzuli dela. Eta nik negar egiten dut, baina ez dakit seguru honekin zein sentimentu den adierazi nahi dudana, senarra berriz inoiz ez ikustearen beldurra edota inoiz ondo ezagutzeko aukerarik izan ez nuen pertsona bat galtzearena. Hala ere nik negar egiten dut, barrena ere nahastuta daukadala argi eta garbi utziz.

Ez dakit zer egin dugun gaizki, baina zigortuak izan gara, edo hobeto esanda oraindik ere zigor hori geure larruetan jasaten ari gara, amorruren mendekua. Itsasoa bortitz jartzen hasi da gurekin, itsasontziari labankadak emanez, bere aurpegi txarrena erakutsiz. Bat-batean inguru dena ilundu da eta baporea olatuz inguratutako infernu baten erdi erdian agertu da, eta ez dakit beldurraren poderioz izan bada edo ez, baina olatu baten Herio desberdindu ahal izan dut, barreka, itsasoarekin tratu bat egin izan balu bezala. Nire tripulazio osoa eramatearen truke itsasoari bai gu eta bai gure itsasontzia bere apaingarri izatera pasatuko ziren beste altxor bat gehiago baino ez izatea eskeintzen zion. Momentu horretan nere bizi osoan itsasoan iragandako pasarte on guztiak burura etorri bazaizkit ere, amore ematea azkenengo gauza dela pentsatu eta haserrealdiari aurre egitea dela konponbiderik onena pentsatu dut. Baina norgehiagoka horrekin lortutako bakarra zurrumbiloan oraindik barrurago sartzea izan da, gure norabidetik desbideratu garelarik. Orain, arrazoi gehiagoz esan nezake txuriz margotutako horma zuri bateko puntu beltz bat baino ez gara, halaxe baikara damarentzat, nora jo ez dakien inportantzirik gabeko detailea.

Bada denbora harezko orratzak bere azkenengo hondar-alea isuri zuenetik eta ez dut izan inoren itzuleragatik poztko arrazoirik oraindik. Normalean baporea nahiko lehenago itzultzen da, eta oraingoan ez da horrelakorik gertatu, eta beldur naiz. Iluntzero kaira joaten naiz, moilatik paseotxo bat emateko itsasoari galdetzen diodan bitartean. Hainbat dira erantzunik gabe inpazientzian zintzilik gelditzen zaizkidan galderak neu ere senarra betirako galdua dela sinestera iritsi naizelarik. Orduak igaroten ditut, han eserita, eguzkia nola izkututzen den begira, nere aurrean zabaltzen den maindire urdineko lekuren baten neure senarra ere berdina ikusten egongo den esperantzarekin. Jaungoikoari erregutzen diot, ekar dezala berriz ere nere ondora, beste aukera bat eman diezagun, edota txarrenera begira jarriz zeruan lekuren bat izango este dugun sinetsiz, non azkenik biok elkartu eta behin bizi baten egin izan ez genituen gauzak bertan burutzeko. Jaungoikoaren izena bedeinkatzen dut, baina bedeinkatzen dudan moduan, eskatutakoa betetzea espero dut, ez baitutt uste inork merezi duen gauza bat denik erakarpena heriotz bihurtzerik. Egoera honetan itsasoa gorrotatzera heldu naiz, eta orain ulertu dut gaztetan mendi gailurrean itsaso zabalari begira egunak igaroten zituzten alaben amorrua, hain amorru handia kanporatzeak ere beldurra ematen duena, aitarenean zain dagoen alabatxoaren amorrua.

Hogeitazortzi hilbete ikusi ditut gau beldurgarri hartatik, iadanik kontuak ere galduta ditut eta ez dakit zenbat egun daramatzagun hemen, noraezean. Askotan entzun dut itxaropena dela galtzen den azken gauza baina egun hauetako esperientziak galtzen den azken gauza bizitza dela eta lehenengoa itxaropena erakutsi dit. Bihotza piztuko didan argi bat behar dut, irribarre bat, han urrunean ikus daitekeen argia bezalakoa. Zer? Zer esan dut? Argia? Kosta! Kosta aurkitu dugu, faro baten argia da, begi ninietan isladatu zaidan argia eta bueltan poza bidali duena. Ezin dut sinetsi, heriotzaren eskuaren atzamarren artean dantzaka sentitu dudan arima orain emaztearen besoetan imajinatzen dut, gorputza bete didan sentzazio arraro batek ingurau nauelarik. Etxera nator bueltan, eta esperientzia honen ondoren ez daukat berriro ere itsasoaren misterioak bilatzen jarraitzeko asmorik.

Ez da egia izango, ezin da egia izan. Talaieroak bapore bat ikusi du hemendik milia erdira gutxi gorabehera, eta “Euskal Herria” dela dio, ezin liteke egia izan, amets bat da, hilabeteetan itxaroten egon naizen ametsa, eta ez dut izartu nahi. Badatoz, azkenean, iritsi dira. Azken finean itsasoarekin armonian bizitzera ohituko naizela pentsatzen dut.

Sail dago porturako sarrera, eguraldi eskasa dugu eta ekaitza gainean, badirudi damak gure unerik zoriontsuenean ere bere kuttua

nabarmendu nahi duela, baina ez diot gorrotorik, oraindik ere errespetua zor diot, hala ere agurtu zaitez, zure bizkarrean inoiz berriro ikusiko ez duzun marinela honetatik. Agur betirako, gero eta hurbilago bainago hilabeteotan gertatutakoa kontatzeko modukoa izango den anekdota bat izatera baino pasatuko ez den momentutik. Jadanik negarrez agurtu ninduten bi begien disdira nabaritu dezaket berriro ere moilan, dirdiraka orain ere, baina oraingoan portua da “zatoz” oihukatzen didana itsasoarekin batera.

Ez da posible, ez da ia, krudela gero nere senarrearen itsasontzia porturatzen zihoan momentuan nere muturren aurrean hondoratzen ikusi beharra, ekaitzaren erdian, baporea zisko eginda utziz. Itsasoaren hilketen historiak aurrera darrai eta ezin dut eta ezin dut historia honen bigarren planuko parte izanaren mina jasan, bihotzean mila orratz sartuko balizkide bezala sentitzen naiz, eta orain bai, izartu nahi dut, amets gaizto honetatik izartu nahi dut. Behingoagatik argi daukat begiek isurtzen dizkidaten malkoak ze sentimenturi dagozkien, maitasunari, maitasun galduari, itsasoak larpututako maitasunari.



Oraindik gogoan dut 95eko maiatzaren 26 hura, bariku gauetz, eta oraindik ere han goiko kanposantura joandakoak gogoratzera igotzen naizen bakoitzean zabalera begita jarri eta behin labar haien pean galdutako gizonen garrasiak entzun ditzaket biraka itsasoko haizeak “azkenik batera” xuxurlatzen duen bitartean.



GERNIKA-LUMOKO UDALA
Hezkuntza Arloa



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Kultura Saila